# Sagastiberri



## URRUZUNO literatura-lehiaketa

**2008**

# irakaskuntza ertainetako

# URRUZUNO

# literatura-lehiaketa 2008

## LAN SARITUEN BILDUMA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>.

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2008ko ekaina |
| Ale-kopurua: | 2.600 |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila |
| Internet: | www.euskadi.net |
| Prestatzaileak | Maite Artabe, Iñaki Iturain, Iñaki Artola,<br>Miren Jule Azurza eta Santos Izagirre |
| Azala: | Jesus Iturriza |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Fotokonposizioa eta inprimategia: | R.G.M., S.A.<br>Padre Larramendi, 4 - 48012 Bilbao |
| ISBN: | 978-84-457-2783-6 |
| Lege-gordailua: | BI - 2337 - 08 |

# AURKIBIDEA


**Hitzaurrea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 7

**Haizea lagun, nabigatu beti.** *Urtzi Urrutikoetxea Vacas* . . . . . . . . . . . . . . . . 11

**Prosa: A maila**

| | | |
|---|---|---|
| Ganbararen itzaletik . . . . . . . . . . . | *Iraitz Ugalde Pikabea* . . . . . . . | 19 |
| Arkakuso baten isla zapata dendetako beirateetan . . . . . . . . . . . . . . . . | *Alaitz Oiarzabal Santiso* . . . . . . | 29 |
| Azkeneko bidaian . . . . . . . . . . . . . | *Alaine Agirre Garmendia* . . . . . | 39 |
| Anamnesis . . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Oskia Zalakain Ederra* . . . . . . . | 53 |
| Adio . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Iraitz Ugalde Pikabea* . . . . . . . | 61 |
| Zeruertzaren bila . . . . . . . . . . . . . . | *Amaia Agirre Gonzalez* . . . . . . | 69 |
| Patuaren morroi . . . . . . . . . . . . . . . | *Mikel Mancisidor Iztueta* . . . . . | 79 |
| Itsas-enaren hegaldia . . . . . . . . . . . | *Ekain Zubizarreta Zuzuarregi* . | 93 |
| Beltzez zizelkatutako hitzak . . . . . | *Irati Murua Salsamendi* . . . . . . | 101 |

**Prosa: B maila**

| | | |
|---|---|---|
| Labirinto biluzia . . . . . . . . . . . . . . | *Blanca Garcia Cengotitabengoa* | 113 |
| Irri beltzak ez du irri izena ere merezi | *Blanca Garcia Cengotitabengoa* | 121 |
| Audrey . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Maite Jauregi Serrano* . . . . . . . | 131 |

| | | |
|---|---|---|
| Mermelada gorriko opil beltza . . . | *Blanca Garcia Cengotitabengoa* | 153 |
| Gaueko izarra . . . . . . . . . . . . . . . . | *Xabier Zubizarreta Arano* . . . . | 163 |
| Morte nel Carnavale . . . . . . . . . . . | *Unai Alduntzin Egizurain* . . . . . | 171 |
| Loteria tokatu izan balitzaigu, orain Bahametan geunden . . . . . . . . . . . | *Josu Narbarte Hernandez* . . . . | 185 |

**Poesia: A maila**

| | | |
|---|---|---|
| Denbora zer den . . . . . . . . . . . . . . | *Alaine Agirre Garmendia* . . . . . | 201 |
| Zure zain nago . . . . . . . . . . . . . . . . | *Mikel Mancisidor Iztueta* . . . . . | 215 |
| Toxikoa, ia beltza . . . . . . . . . . . . . | *Iraitz Ugalde Pikabea* . . . . . . . | 223 |
| Nork asmatu zuen berotegi efektua-ren ipuina? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Mikel Mancisidor Iztueta* . . . . . | 229 |
| Urduritasuna ari du, eta aterkia ahaz-tu zait . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Oskia Zalakain Ederra* . . . . . . . | 237 |
| Tximeleten jolasa . . . . . . . . . . . . . | *Amaia Agirre Gonzalez* . . . . . . | 243 |
| Iluntasunaren argitan iratzarri ezinik | *Maddi Murua Sarriegi* . . . . . . . | 251 |
| Udazkenean jausten diren orbel sika-tuak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Olaia Azpiroz Iragorri* . . . . . . . | 259 |

**Poesia: B maila**

| | | |
|---|---|---|
| Pantailak itzali du . . . . . . . . . . . . . | *Amaia Iturriotz Etxaniz* . . . . . . | 267 |
| Malkoz josiriko bandera . . . . . . . . | *Ugaitz Agirre Zapirain* . . . . . . . | 275 |
| Gereziaren zukua . . . . . . . . . . . . . | *Blanca Garcia Cengotitabengoa* | 281 |
| Urrun izan arren . . . . . . . . . . . . . . | *Izaro Zinkunegi Barandiaran* . . | 289 |
| …bals . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Blanca Garcia Cengotitabengoa* . | 297 |
| Itsasoaren magalean . . . . . . . . . . . | *Maialen Artetxe Maiztegi* . . . . . | 305 |
| Infernutik zerura . . . . . . . . . . . . . . | *Nagore Valles Albisu* . . . . . . . . | 335 |

**Urruzunotarrak 1986-2008** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 345

# HITZAURREA

Urruzuno literatura-lehiaketak hogeita hiru urte bete ditu oraingoan. Liburu honen azken orrietan dituzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrendak. Bostehundik gora dira dagoeneko horrelako "titulua" lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetakoa lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literatura-izenetan. Kimu loratuak haiek, kimu berriak liburuan barrena dastatuko dituzunak, irakurle.

Urtero bezala, goraipatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-trebatzailea. Hauen lan isila dago gaztetxo hauetako bakoitzaren atzean. Berezko iaiotasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle izateko. Landu, trebatu eta aberastu behar izaten da berezko hori esku artean dugun mailara iritsiko bada.

Eta zuk, Urruzunoko parte-hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu ikusten zure barnean daramazuna. Edo agian ez duzu oraingoan asmatu zure hori kanporatzen. Edo agian trebetasun apur baten kontua da.

Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko, zergatik ez? Topikoa litzateke orain esatea "saiatu berriro", eta topiko erdiarekin nahikoa da "saiatu" besterik ez.

Baina goazen aurtengo datuetara. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Aurtengo epaimahaian literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu:

Castillo Suarez
Urtzi Urrutikoetxea
Yolanda Arrieta
Miren Agur Meabe
Josu Lartategi

Parte-hartzeari dagokionez, 2008. urte honetan 420 lan jaso dira: A mailan 116 prosan eta 38 poesian; B mailan, berriz, 210 hitz lauz eta 56 olerkian; bestalde, parte-hartzaileetako 273 neskak eta 147 mutilak.

Dakizuen bezala, lehiaketak dituen 20 sariak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailetan: bosna sari atal bakoitzean. Aurtengoan sariaz gain hainbat aipamen ere egin ditu epaimahaiak. Lanak epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratu dira.

Hona irabazle bakoitzari dagokion saria:
– Irailean 10 egun inguruko bidaia (Errumaniara)
– Bidai poltsa norbere gastuetarako: 300 €.
– Oroigarria. Iraileko sari-banaketan ematen zaie.

– Lanak *Sagastiberri* sailean argitaratzea. Liburua eskola guztietara eta parte-hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Horrez gain, urtero bi ikastetxeri egiten zaie aipamen berezia: aurten Gasteizko Armentia ikastolari eta Azpeitiako Azpeitiko ikastola-Ikasberri kooperatibari. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaian joateko eskubidea ematen dio ikastetxe horietako irakasle banari.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2008ra bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan eta zein orrialdetan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu sari irabazleoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Urtzi Urrutikoetxeari.

Liburuko idazleak poztuko dira irakurle zaren horrek, lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburu hau irakur eta idatz-zaletasuna zure ikasleen artean ugaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere irakur ezazu liburu hau gazte batzuen ilusio eta sormenaren ispilu moduan. Euskaltzale oro, irakur ezazu itxaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU, deiadarka datorkizu liburu hau.

**Euskara Zerbitzua**

# HAIZEA LAGUN, NABIGATU BETI

Urtzi Urrutikoetxea Vacas

*Navegadores antigos tinham uma frase gloriosa:*
*"Navegar é preciso; viver não é preciso".*

FERNANDO PESSOA

Mela-mela heldu nintzen etxera. Ekaina zen, ikasturteko azken eguna eta suhiltzaileek bitsa bota zuten kurtso amaierako jaian. Ikastetxe berrian egindako lehen urteak ospakizun ederra izan zuen, udan ere oroitzapen goxoa izateko modukoa.

Bitsez eta urez blai igo nituen eskailerak beraz, eta zipriztinak etxeko bazterretan banatu baino lehen, artez joan nintzen komunera. Toallarekin ilea lehortu eta arropak kenduta irten nintzen. Ez zegoen haserrerik gurasoen aurpegian. Aitzitik, irribarretsu galdetu zidaten ea lehiaketaren baten parte hartu nuen. Ordurako idatzi ohi nituen diru apurtxo bat ematen zidaten bertso-paperak, baina ez neukan gogoan zein zen argitzeke zegoen lehiaketa. Benetan diot. Gutxitan sinetsi izan diet "ez nuen espero" esaten duten lehiaketen irabazleei, beti uste izan dut, nonbaitera aurkezten denak itxaropena gutxienean badaukala, eta gehienetan hori baino gehiago, bere buruarekiko konfiantza ere bai. Asko dira idazten dutenak eta berentzat gordetzen dutenak, ihesbide dutenak

idazketa, argitaratzeko asmorik ez dutenak edo beste barik ariketa gustagarri gisa daukatenak baina argitara ematea, ematekotan, oso urruneko zerbait bezala dakusatenak, ofizioan trebatu eta ikasi ostean egiteko zerbait bezala. Lehiaketara aurkeztea bezain zilegi diren ariketak, zalantzarik gabe. Baina lehiaketara doanak, badauka beti desio ezkutu hori, nork irabaziko duen erabakiko duen taldeak jakingo duela saritzen idazleak hor jarri duen ahalegina, irudimena eta ezkutuko keinuak ikusten eta behar bezala. Bai, noski, literatur lehiaketetara aurkezten garenean irabazteko egiten dugu.

Baina sinets egidazue ikasturte amaiera hartan, institutu berrian eman nuen lehen kurtsoaren azken uneetan, udako planak prestatzen, lagunekin geratzen eta urtean zehar ezagututako neska-mutilei agur esaten nenbilela arduratuta beste ezertan baino gehiago. Erabat ahaztuta neukan lehiaketa hura, lehendik irabazi zuten bizpahiru lagun zaharrago ezagutu arren.

Eta pozez lehertu nintzen, ordura arte irabazitako beste edozein lehiaketatan (eta, apal baina egia esanda, irabazi nituen gutxi batzuk ordurako) baino zoriontsuago. Erdi lotsatuta begiratu ditut inoiz 1992ko Urruzuno lehiaketa irabaztea ahalbidetu zidaten bertsoak. Hamalau urteko mutil arrunt baten lan sinplea da, bere sinpletasunean ederra, eta maitasuna (zer bestela?) du gai nagusi.

Biluzten hasita, aitor ditzagun egia gehiago: hamalau urteko mutiko hark liburu asko irensten zituen, gazte literaturako abenturako liburuak batez ere. Poesiarik, lerrorik ere ez artean. Eta poesian irabazi! Bertsolaritzan abiatutako urratsek ahalbidetu zidaten sari hura. Betiko markatuko zuen bidaia izan zen, Paris, Amsterdam edo Rhin ertzeko txangoak baino askoz urrunago eroango ninduen bidaia.

Joan ziren hamar egun, egin nituen hogei lagun, eta marka txiki batekin itzuli nintzen institutura, zauria zeinen larria zen jabetu barik. Astebetera Kilometroak etorri ziren, gero bestelako jai eta topaketa batzuk, eta abentura liburuak irentsi, lagunekin geratu eta bertso-eskolara zihoan gaztetxoak hamar egunetan entzundako egile haien deia igarri zuen. Sentitu zuen ordenarik gabe barruan zeukan hura guztia kanpora ateratzeko beste modu bat, sentitu zituen Joseba Sarrionaindiak, eta Gabriel Arestik, eta Ruper Ordorikak, eta Manu Chaok, eta rapak eta Xalbadorrek eta beste mila iturrik beregan bat egiten zutela, egarri zela, eta gehiago behar zuela. Eta halaxe, bertso-paper sorta hark hiruzpalau lan egitea ekarri zuen hurrengo urterako. Zauria bazeukan, baina literatura gutxienekoa zen une horretan, aurreko urtekoa kosta ahal kosta errepikatu behar zen, bidaia berri bat egin behar zen. "Navegar é preciso". Fernando Pessoa eta Portugal eta Afrikako poetak irakurri genituen, eta maitemindu eta negar eta barre eta haserre, denetik joan zen beste hamar egunetan.

Lehiaketak berekin dauka injustizia. Edozein lehiaketak. Haizeak laguntzen digu nabigatzen, eta zortea ere behar da lehiaketan. Halaxe iritzi zion epaimahaiko norbaitek bertso-paper hari, bazeukala zerbait, ziur aski saritzeko beste meritu izan zezakeen beste lanen batekin duda-mudatan ibili ostean. Eta halaxe ireki zioten nerabe hari ezezagun zitzaion mundu berrirako atea. Bakarrik ezer gutxi egiten dugu, eta bakarrik egiten dugu dena. Elkarri irakurtzen diogu, elkarren iturrietatik edaten dugu, gure aurretik dozenaka, milaka idazlek egindakoa berriz egiten dugu, gure iturritik geure kolorea, geure zaporea emanda. Urruzunotar askorekin harreman bikainak geratu ziren, beste batzuen berri ez dut izan urtetan. Bizitzako legea da. Gehienek idatzi dute hau edo hori, gutxienek libururen bat osatu dute, gaztetxotan

batzuek, geroxeago besteek. Baina ausartuko naiz esatera denoi utzi zigula zauria barruan.

Batzuek hasita zeundeten nabigatzen, eta portu eder honetara iritsi zarete, bigarren, hirugarren edo laugarren aldiz, menturaz. Besteek hementxe jarrita zenuten iparrorratza, eta aurkitu duzue altxorraren uhartea. Eta egongo zarete ontzia nora heldu den ere ez dakizuenok, poesia zaleen eta zoro banda horren erdian zuen burua erdi galduta topatuko duzuenok. Ez arduratzeko esango nizueke, baina gezurretan ibiliko nintzateke: uharte arriskutsua da geltoki hau, bertan geratzen diren gehienak harrapatzen dituen gaixotasunez betetako artxipelagoan zaudete. Baina honezkero, zuek jakin ez arren, beranduegi da. Bejondeizuela.

Nostalgia sentimendu atzerakoia da askotan, halaxe esan zidan elkarrizketa baten Fermin Muguruzak, eta bere gogorrean arrazoi eman behar diot. Horregatik ez dut gura ordukoak eta oraingoak daukan parekotasunetik haratago nostalgian murgildu. Irten dira idazle batzuek gure bidaietatik, literatura bandaren bat eta lagun talde handia ere bai. Zuen nabigazioak zuen portuak aurkituko ditu, haztamuka, hau ukitu eta hori hartu, bestea utzi eta ondokoari heldu.

Etxera mela-mela heldu zen mutikoa nabigatzen ari zen, eta halaxe segitzen saiatu da geroztik. Orain lerro batzuk eskatu dizkiote, eta berriz ere behinola bisitatu zuen altxorraren uhartean dagoela iruditu zaio. Uharte bera da, eta dena da desberdin era berean. Ilusioaren izpirituak bizi du lekua, eta nabigatzeko haize bikaina dagoela iruditu zaio.

Hurrengo portuan berriz ikusi arte.

Urtzi Urrutikoetxea Vacas
(Bilbo, 2008-04-22)

# PROSA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Ganbararen itzaletik

Iraitz Ugalde Pikabea
Koldo Mitxelena institutua
Errenteria

Gela hartako kolore guztiak ezagun zituen jada. Grisa, beltza, arrea, ubela… Aspertu zen irakurtzen zekizkien koloreak behin eta berriro irakurtzeaz. Sinpleegia zen ortzadarraren ekuazio matematikoa: Urdina + horia = berdea; horia + gorria = laranja; gorria + urdina = ubela… Eta honela infinituraino. Bi gehi bi lau. Ez zuen sinisten. Beltza eta zuria konplexuagotzat zituen, lau horma haiez bestalde aurkakoa esaten zen arren. Zuria eguerdi aldean errezelaz bestaldera sartzen zen eguzki izpi itsugarriaren kolorea zen, gehiegizko argi batek dena estaltzeko erabiltzen zuen pintzelkada. Ez alaia, ez tristea, orekatua. Beltza, berriz, begiak itxitakoan ikusten zen kolore bakarra zen, argiak alde egitean agertzen zena. Beste ezer ez zegoenean etortzen zen kolorea. Gutxietsia eta baztertua. Horregatik, orduak ematen zituen begiak itxi eta beltzari begira. Txikitan erakutsi zioten iparra eta hegoa zirela bi koloreok, ona eta txarra, zintzoa eta gaiztoa. Beretzat berdinak ziren, muturren elkarketaren oreka. Ezer ez zegoenean ageri ziren bi koloreak. Itsuen koloreak. Baina, ez zen nahikoa. Aztertuak zituen kolore horiek ere. Gehiegi, ia ez bereizteraino. Gardentzat zuen espazioak, ordea, atzekoa ikusten uzten zion kolore existentziarik gabe-

ak mugitzen zion barrua. Bazekien bere begien ahalmenaz landa bestelako koloreak existitzen zirela nonbait, noizbait. Eta bila joan behar zuen.

Gela hartako usain guztiak ezagun zituen jada. Tiraderan giltzatuta zegoen gutunen kutxa hark jaulkitzen zuen nostalgia usaina; etxepeko kioskoko egunkarietatik zetorren errealitate kiratsa; bakardadearen perfume egunerokoa; horma zuri horituaren hoztasun ostera ere horituak askatzen zuen lurrina: lorontzietatik zintzilik, zimeldutako landareen orkestrak goizero konposatzen zion esentzia ustela, sarkorra… Hautsak jana zuen lau paretetako ganbaratxo hura aspaldian. Itxi usainarentzat ez zen lekurik, ate eta leihoak oroitzen zela behintzat zabaldu ez zituen arren. Bueno, bai, euria egiten zuenean, hautsak trasluzidatutako leihoaren zirrikitu batera hurbiltzen zuen sudurra. Asfaltoa markatzen zuten euri tantek usain berezia isurtzen zuten, bere leihorainoko bidean galtzen ez zen lurrina. Gero, hodei puztuak lasaituz ekaitza hasitakoan, leihoa ixten zuen berriro. Ez zituen begiak zabaltzen, usainarengatik zekien noiz bereizten ziren tanta bakanak lurrean eta noiz ziren hainbeste, non usaina eta marrazkiak ezabatzen zituzten. Pospolo itzalberriaren usaina ere atsegin zuen. Keak arnasbideetatik bidaiatzen zuen bitartean gorputz osoa hura sentitzeko gai baitzen. Eta arnasari eutsiz, segundo batzuetan luzatzen zuen une hura. Ondoren, ahotik kanporatzen zuen airea, emeki, hotsik atera gabe. Une laburreko plazera zen hura, ordea, eta gero lehengora itzultzen zen gelako atmosfera, bere onera, horma zuri horien usainera berriro. Tantadun asfaltozko gela bat nahi zuen, inoiz blaituko ez zena. Tanta izan nahi zuen, edo pospolo. Bizi laburreko, baina zoriontsu. Gehiegi bizi izan zen ordura arte, bestelako bizi baten bila joan behar zuen.

Gela hartako soinu guztiak ezagun zituen jada. Bere begi zimurtuak nagiki kliskatzen zitueneko soinu isila; aulki kulunkariaren eta zurezko zoruaren arteko elkarrizketa behartua, laztan kirrinkariak, konpas perfektuan aurrera eta atzera; neguko arrats euritsuetan izarrak puskaka jausten zirenean, ganbaratxoko leihora iristerako tanta bilakatuta ateratzen zuten hots ezgauza… plin! Gutxitan, oso gutxitan, bere leihopera hurbiltzen zen enararen hegaldiaren doinu melodiarik gabea, belarri ondotik ihesi laster isiltzen zena, urruntzen zena… Zaila zen gustuko soinuak aurkitzea. Bat baino ez zen titulu hori jasotzeko adinakoa bere inguruan. Eta gutxitan egiten zuen, behin edo behin hori zela eta bisita izan zuelako etxean. Egun hartan ere, egiteko berezirik ez zuenez, plazer txiki bat eman nahi izan zion bere buruari. Horretarako, erdi hutsik zegoen likore botila hartu eta leihoa zabaldu zuen, ohiko moduan begiak itxita. Eskuaz botilaren muturra estu helduta, metro gutxitako garaieratik jaurti zuen arreta handiz beira zati bakoitzak albokoa zelan agurtzen zuen adituz, lurraren oihuaren eta kristalen *klink, klink* ugariaren eztanda entzunaz. Erlaxatu egiten zuen. Une hartan, ordea, hots jasanezin batek hautsi zuen harmonia. Giza oihu bat zen, emakumeren batena ziurrenik. Garrasiaren ostean –Zoro alua… laga ezan jendea bakean… udaltzainari esango zionat eta kartzelara joango haiz – oihukatu zuen lotsagabe. Berak leihoa itxi zuen leunki, azken kristaltxoaren *klink*-a aditu arte itxaron eta ezer gertatu ez balitz legez. Denbora gutxi barru ate joka zuen norbait. Egurrezko ateaz bestalde emakume histeriko haren marmarrak eta gizon baten ahotsa entzun zitzakeen. Ez zien aterik zabaldu, apurtu zioten unea berreskuratu nahian zebilen, kristalen oihartzuna entzun nahian. Higuindu egiten zuen urduritasun hark, jendea hurbil zuela sentitzeak. Alde egin behar zuen, sekula inoren oihurik adituko ez zuen lekuren

batera, urrun, botilak leherraraztea zilegi izanen zen mundu berriren baten bila.

Gela hartako testura guztiak ezagun zituen, jada. Lurreko zuraren gorabehera bihurrien leuntasuna; laztan artean eskuekin jostatzen zenean ipintzen zitzaion oilo-larruaren goraune ugari bezain nabariezinak, iletxoak banaka-banaka zutiaraziz; negu partean janzten zuen artilezko jertsearen laztasun beroa, sarri azkura ematen ziona; lau hormak zazpitan bilakatzen zituen ispilu zutunaren aurpegiera perfektua, hotza, nortasun bakoa… Gorroto handia zion ispilu hari. Gorroto, inteligentea baitzen. Traidore hark, benetan ematen al zion bere benetako irudia bueltan? Ala nahi zuen egia eskaintzen zion berak sinits zezan? Ez zen ispiluaz fio. Hala ere, hura zen bere intimitate eta sekretu guztiak zekizkien indibiduo bakarra. Berdin zitzaion betondoko pikorra, izter beteak eta sudur koxkorduna irudikatzea, betidanik izan zen halakoa. Bera atzez zegoenean zer irudikatuko zuen jakin gura zuen. Eta beste inork begiratuz gero gauza bera ikusiko zuen ala ez. Objektu bat izateko ahalmen handiegia zuen. Susmagarria. Bere onerako, ispiluaz gutxi pentsatzen ahalegintzen zen. Atsegin zuen, baita ere, ganbarako hautsak janda zeukan pianoaren teklak sakatzea. Umetan pianoa jotzen zuen. Baina instrumentu haren soinua gorrotatzen zuen, eta horregatik ez zuen sekula hura ukitzen, tentazioari eusten zion, batzuetan gogorra egiten bazitzaion ere. Malko andana isuria zuen piano ukiezina zela eta. Piano mutua nahi zuen, DNAko informazio genetikoan mutazio ñimiño bat jasandako pianoa. Honela nahi beste joko zuen hots okagarri hura aditu gabe. Eta ispiluak liburu batekin saltzen ziren denda bat. *Ispiluen atzean dagoena* izeneko liburua. Horixe behar zuen. Ziur bazela halakorik herri liburutegian. Berak ez zekien irakurtzen ordea… Beste era bat behar zuen, beste

mundu bat. Irakurri gabe kontuak jakin ahal izateko, ispiluen atzeko mundua ezagutzeko, piano mutatu bat erosteko… Horren guztiaren bila joan behar zuen.

Gela hartako zapore guztiak dastatu zituen, jada. Jaikitakoan listu lodiaz mihia bustitzen zuen lehen aldiko zapore errepikaria; egunak edalontzian zeramatzan uraren gustu gardena, hutsa, neutroa, zain egoteaz aspertua; zigilua zurrupatutakoan mihian geratzen zitzaion marrubi mingotsaren zaporea… Gorrotatzen zuen hori egitea. Ezin zuen jasan deskriba ezin zezakeen gustu hura. Baina, egin beharra zuen, hutsik egin gabe, eguneroko gutuna idatzi. Ez zen dibertigarria, ez zen berritzailea, ez baitzitzaion ezer berririk gertatzen egunerokoan… Garrantzitsuak ziren berarentzat, izan ere, inorekin hitz egiten ez zuenez, gutun haiek ziren sentimenduen askabide bakarra. Pentsatze hutsak ez baitu pertsona lasaitzen, ez baita nahikoa. Horregatik idazten zion egunero aspaldi zendutako maiteñoari. Hark beste mundu hartatik jakingo baitzuen ispiluen sekretua, paradisuaren latitude eta longitude zehatzak, zorionerako bidearen norabidea. Ez zen bekaiztia, mundu hura miresten zuen, besterik ez. Eta bere galdera eta pentsamenduak orri horixkatan iltzatutakoan, kartazalean sartu, zigilua ipini eta gutuna bidaltzen zion gorputza zapore okagarriak eragindako hotzikarak astintzen ziolarik. Gehien maitatu izan zuen hari eskutitza. Harenganaino helarazteko tximiniako sutara botatzen zuen kartazala, garra handitzen zen heinean, gaueroko erritualaz gozatzen zuen. Hura zuen eguneko unerik gustukoena, asebetetzen zuena…

Itsatsi gabeko kartazalaren estalkia altxa egiten zen eta orduantxe hasten zen gutunaren bidaia. Sugarren kolore fusionatua, txinparten eztandatxo arritmikoak, ke usain sar-

korra, suaren testura ukiezina, harrapaezina eta zigiluaren marrubi mingotsaren zaporea oraindik ahoan. Eta gauero bezala hatz puntak erretzen zituen, apur bat gehiago belztu, sua hauteman nahian. Eta erre usain itogarria arnastuz tximiniatik hegan zihoazen hitz ketuak irudikatzen zituen gogamenean, gutunaren hegalda, mundu perfekturen batera airezko olatuek daramaten botila galdua.

Orduan ohera joan zitekeen, lotara, amestera, askatasun bila. Eta beste hogeita lau ordu igaroko zituen erantzunen baten zain, eta beste gutun bat bidaliko zuen, egun baten esperoaren agonia orri horiztan zizelkatuz.

Baina ez, ez zen ohera joan. Izan ere, iritsia zen eguna gutunek zentzua galdu zutena, irudimenaren azken tinta tanta ere gardendu zena eta esperantzaren ateek zulo batean zuten akabera. Egun grisa. Egun usainik gabea. Ez euririk, ez pospolorik, ez botilarik bere ordez garrasi egiteko… ispilu traidorea soilik, bere aurrean lotsagabe, egunero legez. Eta beste behin gorputz zimurtuaren isla itzuli zion begiak bertan iltzatu zituenean. Apur zezakeen, birrindu. Baina, ez zuen ezertarako balioko. Bazekien haren barruan sartzeko era bakarra, bere maitearengana iristeko berbera, giza gorputz hura uztea zela. Eta hala egin zuen, botilak jausten uzten zituen modura, lehen euri tanten gisan grabitateak bere lana egin zezan, gorputz urtetsua leihoan zutitu eta hegaldi berri bati ekin zion. Eta ez zituen begiak zabaldu. Eta haizeak, oraindik ere jostari, ile adatsa korapilatu zion. Eta jakinmina sentitu zuen, haizearen kolorea irudikatuz oroimen beltzean. Baina, ez zen pentsatzeko unea, eta sabeleko zurrunbilo sakonaz gozatu zuen, plazerezko mementoaz. Eta une laburra luzaz sentituz, histeria isila isilduz, leihotik zorurainoko hegaldiaren amaieran, bortizki lurrartu zuen

gorputz bizigabeak. Bizigabea diot, haizea ile adatsarekin jolasean hasi zenerako, sabeleko zurrunbiloaren bira amaiezinetan hegaldaka ibili ondoren nortasun bakartiak askatasunera zihoan bideari eman baitzion hasiera. Eta jada gorpututako gizakia lurrean zekusala, ispiluez bestaldeko mundura abiatu zen nortasun askea, aspaldiko maitearen bila, egiaren gibelean ezkutatzen zen paradisura.

* * *

Eta hurrengo goizean inongo egunkariren batean albiste batek irentsi zuen lehen orria. Ispilu batek bere buruaz beste egin omen zuen. Jabea ostera zendua zen, bizitzeaz nekatuta, herriko zoroaren papera betetzeaz aspertuta. Zergatik? Haizearekin haserre zegoelako, hura ikusteko begirik ez zuela eta; kalera irteten ez zelako, espazio haren muga guztiak ezin kontrolatzeak urduri jartzen zuelako; edota inork sekula ikusi ez zuelako, ispilu hura baitzen bere itxura ezagutzen zuen bakarra... Auskalo! Kontua da, hutsik geratu zen ganbara, ilun, usaintsu, hotz hartako ispilua artesitu egin zela. Ordurako gorpu zen emakumearen nortasuna itsatsi omen zitzaion. Nora joan behar zuen, bada, espazio mugaezinaz beldur zen arimak, haizearekin haserre zegoenak... Izan ere, ispiluak soilik ezagutzen zituen bere intimitate guztiak. Hari utzi zion bere herentzia bakarra emakume urtetsuak, zoramena. Horregatik artesitu nahi izan zuen ispiluak bere burua, odolik isuriko ez zuela jakinik, momentuko heriotzaren bila. Arazoa bikoiztea besterik ez zuen lortu, ordea. Eta ispiluaren bi semeek, aurrez aurre, zendutako emakumearen zoramena bitan islatu zuten, eta lautan, eta zortzitan, eta baita hamaseitan ere ispiluaren ispiluko ispiluaren islari begiratuz gero.

Huraxe izan zen bere nortasuna traizionatu zuen ispiluaren zigorra, isla amaigabea ikusteko begirik ez zuen arren, nortasun galdua behin eta berriro kolpatzen baitzen beragan, eta hegan ibili baitzen aurrerantzean, erdibiek islatzen zuten gela ilun errepikatuan, aspaldiko maitasunaren bila. Eta ez zion inork sekula gehiago begiratu ispiluari. Eta zutunik, ganbara zaharkitu hartan, hautsak kristala estali zain geratu zen, betiko bakearen zain. Leihoak itxita, badaezpada, lurrera jausi eta hamaika puskatan eginda, agonia infernal hura mila ispilutako ispilu islatutan isla ez zedin.

Eta ez zen egunkari haren ale gehiagorik argitaratu. Eta inork ez zuen jakin ispiluaren jabe zen emakumearen istoriorik. Eta kolore sinpleak soilik irakurriz, asfalto bustiaren usainari erreparatu gabe, bi gehi bi lau zirela sinesten jarraitu zuen herriak, ezjakin.

# Arkakuso baten isla zapata dendetako beirateetan

Alaitz Oiarzabal Santiso
Ondarroa-Lekeitio institutua
Ondarroa

Erdi itota paratu da, karenka agertu zaion kalearen amaiera ezin atzemanda. Hiru eta lau solairuko etxeak ditu orain alde banatara, zaharkituak, ximurren penaz, beraien buruaz arranguratuta, negar malko potoloak dituztenak han eta hemen. Elkar kontsolatu nahian edo, ezkerrekoek eskuinekoak besarkatu nahi dituztela dirudi, han, jende guzti honen atzean, intimitatean. Txakur galduak jendartean nahasten dira, eta kaletarrek ozen hitz egiten diote batak besteari. Logeletako leihoak zein balkoietako ateak zabal-zabalik uzten dituzte horiek, argi zikin kolorekoekin horma zaharren bihotzak bistaratuz. Zamarra gastatuak daramatzate dandarrez eta kapelen gerizpean ezkutatzen dira olgetako ilargietatik gehienak. Bitartean, tabernak hainbat koloretan blai ari dira iratzartzen, inguruan dabiltzan neska masail gorriek betile luze belztuen artean lez, ahal dutena kateatzeko. Zarata eta kea, tabako merke usaia hara-honaka doazen pipen ahoetatik bere sudurreraino. Eskuekin babestu du eta hauei darien oleo usaiaz jabetu da, eta zaindu gabeko bere bizarraz, eta arrunt bilakatzen duen jaka berde ilun edo zikinaz.

Ireki berri duten taberna batean zokoratu da. Txakurrak ere askatasun osoz sartzen dira hemen diru xeherik izanez

gero. Barraz bestalde horman eskegitako oharra: edertasuna egon badago; eta egia borobilago bat, *nous faisons (l´)amour sur commande*. Dagoeneko mahaipeetan ere ari da metatzen kea. Beti txunditu izan du erretzaileen eskuei darien hats horren forma ezegonkorrak eta nola etengabe kolorez aldatzen den, zuritik urdinera, argi urritasunaren arabera, gris ala morea den sekula ezin ziurtatuta. Gainontzeko bezeroak absenta kopatxoen inguruan batzen dira, zurrutada txikiak ematen batzuk, hitz jarioek lehortutakoa heze mantentzeko, eta dzangada bakarrean edaten bestetzuk, edabeak eztarria beste berotu diezaien burmuina. Kearen higidura zehaztugabe horretan galdu zaio gogoa eta ez da konturatu berbetan entzun arte inguratu zaion laguna bide denaz.

Non ibili zara? Ez dugu zure berririk izan herenegun aurretik, ez genekien bizirik bazeunden ere. Marie benetan arduratuta zegoen, jatekorik ere ez du izan ia-ia. Pierrek ez du lortu zure margorik saltzea, ez gaizki hartu, zaila da egun, badakizu, baina zurea artea da, artea.

Beirate zabaldun hormetan oraindik ikus dezakeen kanpoa litzateke barrua ere, hemengo iskanbila mihi mozkorren malabareen eta akordeoi dandar baten arteko lehia ez balitz. Parean duen aulkian jarri da, aski ezagun zaion arazoa nola konpondu ezin asmatuta, lurrean dagoen zigarrokin bati so, hark erantzuna izango bailu. Eta txakurren zaunkak, trabesetara higitzen diren minak zein akordeoi bakartia mututu egin dira, jakin badakitelako egin beharrekoa lurrean kizkurtutako zigarrokin horrek esango diola. Baina edozer adierazteko beta izan aurretik traje beltzez jantzitako gizon ile luze beltzaran batek jaso du. Atzekoz aurrera ahoan sartu eta ten egitean osorik agertu da berari eskainiko dion zigarrokinordea. Irribarre batek erre du orduan eta errautsak paparreko lorontzian gorde ditu krabelina gorri bat erne dakion.

Arnasa sakon hartu zuen gorantz begira, momentuari zerion argi laranja hura xurgatu nahian eta mendien berdea begi zuloetatik sartu eta urdailean metatzen zitzaiola sentitzeko. Txistuka arituko litzateke, gogo biziz abestuko luke horrelakorik egiten jakingo balu. Gustura zihoalako kalean gora, etxetik ibiliko litzatekeen eran, horrela izan behar lukeelako, kalea etxea legez, eta kale-bizitzak etxebizitzen pare, nahi bezala ibili ahal izateko, norberaren erara. Hala ere bueltakoen so lotsagabeek deseroso harritu zuten eta begi itsaskorretatik ezin askatzeak urduritu, oinek pausoak ezin zapaltzeraino. Zelatak gerrian nasai korapilatuta zeraman bata arrosa harilkatuaren tximetatik dingilizka zeramatzan eta ezin zituen atzean utzi. Konplizitatez begiratu zion gurutzatu zuen txakur batek eta berak etsipenezko irribarreaz erantzun zion, aitzinera laranja zein berde jarraitzeko asmoz.

Kontuz aztertu zuen gabardinadun gangster itxurako tipo bik errepidea bere alderantz gurutzatzen zuten era. Ez, ez zuen haien gris ajatua maite; haiek ere ez bera, laranja eta berde.

Ezin ulertu zer zebiltzan. Gizartearen segurtasun bermatzaileak zirela, irri-baimenik bazuenentz, erakusteko… patrikak zanpatzen zituen, eskuak sartu gabe badaezpada, hutsik zeudela bermatzeko baina zer edo zer aurkitzeko premiaz, edozer zela ere erakusteko, arnas hartzeko tartea irabazteko, lasterka alde egiteko. Baina usoak itota ateratzen zaizkio kapeletatik.

Albornozeko sabel batean sumatu zuen txikle papera erakutsi zien, legala izango ote, arineketan handik edonora alde egin bitartean. Gero, jada ezagutzen ez zuen herria,

hiria zen bere albotik laster batean gibelerantz zihoana. Harlauza berri eta auto errenkada bikoizdun karrikek zeharkatu zuten, egur erdi hirotuetan eusten zen hezetasun, izerdi eta ustel usaineko merkatu bat hurreratu zitzaion istant batez eta konturatu baino lehen sekula egindako iraultzarik bat-bateko eta azkarrenean ari zen parte hartzen haize bolada alimaleko batek matxinatu denak, tartean zebilen txakurren bat salbu, airean eraman zituenerarte. Erdi itota paratu zen, karenka agertu zitzaion kalearen amaiera ezin atzemanda. Hiru eta lau solairuko etxeak zituen orain alde banatara, zaharkituak, ximurren penaz, beraien buruaz arranguratuta, negar malko potoloak dituztenak han eta hemen.

Berari erne zaion krabelina bera daraman ijito bat erakutsi dio ezkerrean gitarra atzamarkatu batek, eta bi gehiago haren atzean, txakur bat lagun. Urrezko kateak sentitzen ditu paparrean mugitzen eta haiek askatzeko alkandoraren pare bat botoi nasaitzean jakako lore gorria atontzeko profitatu du. Bat-batean, oholtzaren aurreko mahai txikietan, jereztar ardo finak hatz artean darabiltzaten jaleo oihuak. Burua makurtu eta eskuak jaso ditu bihotz aldera, zein ahurrak elkar kolparazten dizkion buleria berak astinduko duen. Un-dó, un-do-tré, cuatro-sinco-séi, siete-oxo-nueve-dié, un-dó… Eskuak albo banatara jauzi zaizkion arte. Ospatzeko, hagin zaparrada zuri bat ikusleen aldetik, tarteko hortz itzaliren bat edo beste, ezin izan baitute txaloen erritmoa adostu.

Bitartean, bezero berri bat sartu da. Lokala osorik gurutzatu eta diskoen makinara jo du zuzen-zuzen; argi bide du entzun nahi duena.

Abestu berri duena albora etorri eta ahots korda pare bat jarri dio ezpainen pare beharko lukeenean, baina gehiegi

luzatu dio lepoa hodiei. Beraz, tente jarri behar izan da bere ahoa intsinuatu ahal izateko. Orain, egurrezko mahaien bueltan, hatz artean eskotez ez-jantzitako emakume belarritakodunak darabiltzatela erreparatu du. Artean entzuleen ezker ona erratzatzen zebilenak piano bat osatu du batutako haginekin; eta soken bekaizkeriaz edo, hazi egin da gitarra, atzamartzailea ere zutitu beharrean ipiniz, hari bi galdu dituela konturatzeke.

*Klik*, makinak irentsi du heldu berriak ahoratu dion gozokia eta, horrekin batera, azken ukituak eman dizkio tabernaren metamorfosiari.

Amaitu gabeko soineko luzea darama berak, zeini jostea ahaztu zitzaien tartetik bizkarraldea bezain biluzi dirudien zetaz estalitako berna luzea agertzen zaion. Ahots kordak besarkatu ditu, ahurrak oraindik flamenkotan bero, eta ezpain gorriek elkar askatzean sortutako *bum* txikia igarri du; irrika arin bat trebatu zaio bizkar-muinetik gora bere ahotsa hedatu eta lokala David Lynchek janzten zuen oihal leun urdin berberaz laztantzean.

Txakur uluak saxofoia beharko lukeenaren ordez.

Noraezean zebilen ezkerreko etxeek eskuinekoak besarkatu nahi dituztela dirudien kalean, txakur galduak legez jendartean nahasita, lanbro bariko biderik azaldu ezingo zioten beha lausotuak besterik ez baitzituen topatzen. Tabernaren parez pare tinko so geratu zitzaion behartsu bat. Lo behintzat oinutsik egin beharko zenuke, aholku eman zion tabernaren atarian, bere ametsen norantzaz kezkatuta nonbait. Ortozik ibilita hobeto zapaltzen dela. Horrexegatik erantzi zizkion narruzko botak eta Janis Joplinen itzala zuen

kalekatu bati eman zizkion jateko, gerora orpo gastatuak zirela eta gaindosiz hil eta hirietako ilunpeko saguzuloetan berpiztuko zenari. Oinetakoak estropezu egiteko besterik ez dute balio, begira bestela oin-asea. Zer nolako garrantzitsua den oinak lurrean izan eta behar bezala ibiltzea, ganora apur bat baduzu behintzat, eta jarraian orekak saiatzen dituztenak zein lurrean irristatzen direnak gaitzesten aditu zuen, zigor eta irainak haientzat, atea itxieran behartsu haren marmarra galdu zuen arte.

Belusezko eszenatokitik jaisteke, aparte geratzen zaizkio barmanak proposatutako aulki eta bermuta, aitzitik besoa luzatu besterik ez du egin behar izan haiek eskuratzeko. Biluzik zabiltza kristal artean, oinpeak urratuko zaizkizu. Izterrera jaso du kontrako orkatila eta oinazpian iltzatuta garagardo botila kausitu du tantaka. Txakur bat inguratu zaio isuritakoa miazkatzera.

Behatz puntetan ibili beharko zara.

Debalde al da hori?

Musu-truk ordaintzen badizute bederen.

Hori esatearekin batera irribarre egin eta barmana albo batera okertzen hasi da. Hari jarraitu dio, arreta barra horizontaletik barra bertikaletara aldatuz. Neoizko argiak eta konbinatuak; izter lumatuak gora eta behera.

Oreka ezinezkoetan dabilenak hurbiltzeko eskatu dio eta haren ondora iristean hatz trebeek txanpon bat ostu diote bere belarriei. Ez daki hori artetzat hartu ala ez, ezta ere luzaketa eta jarrera horiek dantza kontsideratu badaitezke.

Zein zaila den baina, arteak praktikoa izan behar badu behintzat. Zenbait lekutan bai, toki batzuetan badago dolar bateko bileterik. Hemen, ordea, zenbaki txikiak handiak baino pisutsuagoak dira eta farfail hauek ez dute nahikoa toki sakelen zuloentzat.

Segidan, bermutera bota dio belarriak luzatutako txanpona, nork geratzen zitzaion likido apurra xukatuko dion eta, gero, alkoholaren beroagatik agian, gori-gori norabide guztietara zabalduko dena. Kopa hutsik, ginda horixe da geratzen zaiona. Txurtenetik heldu eta kontu handiz jaitsi du, pixkanaka-pixkanaka, zabaldutako ahoan zain daukan mihi gainera. Kosk, eta apurka-apurka zorabiatu da, gorria hasieran, urdina, horia atzetik… kolore orgia bat, denak nahastean, beso eta bernak ezin bereiztuta, beltzean guztiz murgiltzeraino.

Bonbilla urkatua dingilizka besterik ez dakusa sabaian. Ohe nahasian agondu eta iratzarri duten kili-kiliak ikusi ditu; tango takoietan harrapaturiko behatzak milizkatzen dizkio txakur andaluziar batek. Zabal-zabalik dagoen balkoira zuzendu da, sartzen diren haize bolada freskoek nahi bezala astintzen dituzte errezel higatuak. Kanpoan aharrausi egin du; takoi orratzen gainetik txikiagoa dirudi hiriak.

# Azkeneko bidaian

Alaine Agirre Garmendia
Arozena-Barrueta´tar Benito institutua
Bermeo

Iluntasun kutsakor batek bustitzen ditu kaleak. Farolen argia itotzen dabil olgetan. Hostoetan, kaleko baldosetan, postontzietan pausatzen da. Gauaren pentagramako lerroak ezereztatzen ditu, isilunean mugatzen ditu, koloregabetu egiten ditu. Ororen jabe bihurtu gura du iluntasunak. Isilunearen isilpe, gauaren itzal.

Emakume bat doa haren barna, gauean pulunpatuz. Bere taupadak gatibatu nahi ditu iluntasunak, eta badaki. Emakumeak daki. Dena eroan nahi du iluntasunak, berarekin akort. Dena. Gaua, emakumea. Eta emakumeak badaki. Beharbada horregatik eseri da eseri den eserlekuan. Akaso horregatik sartu da kuidadoz aukeratutako bagoi horretan. Horregatik hartu du trena, agian. Agian. Honen leihoak iluntasunaren *inpermeable* direlako. Agian.

Badakielako.

Beharbada. Beharbada horregatik egiten du ihes. Iluntasunaren beldur delako, isiltasunaren iheslari. Beharbada horregatik bakarrik egiten du alde, trena hartuta, arretaz aukeratutako bagoian sartuta, eseri den eserlekuan eserita.

Agian bai, agian ez. Eta ezbai horrekiko aiherga, trenak aurrera darrai.

Letra gorriak harrotzen diren pantailara so egiteaz aspertuta, leihotik at jalgitzen du begirada emakumeak. Disimuluz, alabaina; badaezpada ere. Kanpoko mundua atzerantz doala sentitzen du. Trena trenbidean aurrerantz lerratu beharrean, emakumea aurrerantz irristatu ordez, kanpoko mundua atzerantz joango bailitzan, bera hor utzita. Han. Edo hemen. Estankaturik, beti geltoki berean.

HURRENGO GELTOKIA: Geldiune bakarra

HURRENGO GELTOKIA: Geldiune bakarra

HURRENGO GELTOKIA: Geldiune bakarra

HURRENGO GELTOKIA: Geldiune bakarra

Hurrengo geldiunea, geltoki bakarra.

Pentagraman izoztutako si bemola balitz bezala; si *b*, si *b*, si *b*, si *b*, si *b*, si *b*... Ez gora, ez behera. Si *b*. Bere itzalaren gardentasunean itotzen den arima lez. Ordulariaren orratzen taupadak betierean geldituko bailiran, bihotzekoak emanda. (((HURRENGO GELTOKIA: Geldiune bakarra))). Bien bitartean, munduak jiratzen eta biratzen jarraituko balu bezala. Emakumearen inguruan, hura hildako izarra bailitzan.

Hasierako disimuluak ihes egin eta ikara etzan da bere aurpegiko zimurretan, bere inguruko oro atzera doala ikusita. Trenaren leihotik at.

Atzera. *Rew*. Emakumeak zubi bat ikusten duen arte. *Stop*. Zubian, emakume bat. Tirantezko soineko beltzez

jantzia. Zapata beltzak daramatza. Sorbalda biluziak estaltzen dizkion zapia, bera ere beltza. Esku batean duen musuzapi zuria soilik darama zuri; malko gardenez lohitua. Ordulariari begiratzen dio; denboraren morroi izaten nekatuta, aspaldi gelditu ziren orratzei. Zubiaren ertzean dago soineko belzdun emakumea. Aurrean ilunabarra, desafio egiten diolarik. Apurka– apurka estaltzen den eguzkia, pausoz– pauso; (behatz puntetan ibiliaz bezala). Tupustean, iluntzeko sargoria narraz eraman nahian edo, haize bolada bat harrotu eta kendu egin dio lepotik kiribilduta zeukan zapia. Eskua luzatu du eta gorputza aurrerantz bota, gerria barandan bermatuz. Zapia hartu nahi izan du. Baina haizeak irabazi du guda, eta urrun joan da, zapia harrotasunez astinduz, kiribilkatuz. Zapi beltza. Ilunabarraren itsasoan zauri bat, beltza.

Orduan konturatu da zubiaren amildegitik gertuegi dagoela. Behatz puntetan dagoela. Laster galdu lezakeela oreka. Oreka finegian baitago bere bizitza, barandan bermatua. Haizearen mende. Jausi, edo ez jausi. Gelditu, edo ez gelditu.

Instant batez gozoegi egin zaio haizearen menpe galtzearen ideia. Erortzearena. Erortzen uztearena. Alabaina, herio gozoegia iruditu zaio, lutuz jantzita dagoen emakume batentzat. Baketsuegia.

Lurrean finkatu ditu oinak ostera ere.

Barandan pausatu ditu eskuak, metalaren laztan leitua sentitzeraino. Barneratzeraino. Baina ez du sentitzen. Hotzikara batek zeharkatu dio bizkarrezurra. Baina ez du sentitzen. Taupadak isildu egin zaizkio, azkenean. *Ritardando* eta *diminuendo* baten esklabu, agoniari amaia emanaz, suizidatu egin direlarik. *Pianissimo* batean hil arte, isiltasunean itsasoratu arte. Baina ez du sentitu hori ere.

Ezin senti dezake, ez du sentitzen. Ezer. Ez barandaren hoztazuna, ezta herioaren gerturatze geldoa.

Ilunabarrak desafio egiten dio. Zapiaren belztasunari egin dion era berean, ortziaren mugagabetasunean zapiaren iluntasuna irentsi duen moduan. Eta pentsatu du, zapata beltzak daramatzan emakumeak pentsatu du, zaila litzatekeela hari ezetz esatea; iluntzeari. *Iraultza* handiegia litzatekeelako, aspaldi izoztu zitzaizkion taupaden jabe den emakume batentzat. Beltzez jantzita dagoen espiritu batentzat.

Zubiaren ertzera urreratu da, astiro. Barandaren hoztasuna igarri du sabelean, soinekoaren oihal finetik gaindi. Zapia izan nahi du, iluntzeko ortzimugaren hegi ezean urtzeko, ez izateko.

Ez izateko. Betirako.

Eskua poltsikora sartu du, bere bizitzako oroitzapenei azken soada bat emateko. Eta, halako baten, treneko tiketa topatu du. Hamar bidaiako txartela. Hamar bizitzakoa. Eta hamarretik bederatzi, jada agortuak. Iraungitze data balute bezala.

Bakarra geratzen zaio. Itzulirik bako joana. Bakarra. Irri txiki bat egin du, eta ertzetik aldendu da. Zubiaren ertzetik, bizitzarenetik. Trena hartu behar du. Azkenekoz.

Atzera jarraitu du munduak, trenean kaiolatuta dagoen emakumeak geldiunean darraien bitartean. Geldiune bakarrean. Atzeraka jarraitu du leihoez gaindiko unibertsoak, eta berak hor jarraitzen du. Egoten. Kanpoko munduak eskaintzen dionari begira.

Ordulariaren orratzek zirujauaren bisturiaren ahoan hartu dute atseden. Ia erori dira. Kili-kolo ibili dira, duda-mudaka, erori edo ez erori, gelditu edo ez gelditu. Oreka berreskuratu duten arte. Eta deliberatu dute bihar egingo dutela beren buruaz beste. Bihar, edo etzi. Akaso.

Kirurgialariak beste tresnekin batera laga du bisturia. Gomazko eskularruak kendu ditu. Odolez zipriztinduta daude. Sastarretara bota ditu. Ez dago zer eginik. Ez zegoen.

Heriotzaren ordua: 03:43.

Josi egin dute umearen gorpu irekia. Josi haren birikak, josi haren bularra. Oraindik hazi gabeko bular aldea. Garbitu egin dute ondoren, odolak heriotza are *hilago* egingo balu bezala. Are gehiago, oraindik. Are gehiago, eta gehiago, eta gehiago. Oraindik.

Haurraren ama ikusi du treneko emakumeak ezkerreko leihotik at. Haurraren ama ikusi du, itxarongelan ikusi du, haurraren ama, haur hilaren ama. Nekatuta ditu jada begiak. Negar egiteaz akituak, itxaroteaz, esperantzaren errainu ahul orori eusteaz. Bizirauteaz nekatuak. Aitona zahar bat dago bere parean. Haren begiak ere nekez blai daude, malkoz baino. Eta pentsatu du treneko esklabuak, lekukoak, itxarongelan eserita dauden bi arimen begiei begira, ospitale bateko itxarongelan begiek ez dutela beste erremediorik nekatzea baino. Pentsatu du itxaropenaren zirrikituetan ezkutatzera kondenatuak direla: paretan eskegitako erlojuaren orratzak, segundoz segundo, eternitatez eternitate, nola egiten duten narraz begiratzera.

Umearen ebakuntzaz arduratu den zirujaua hurbildu zaio itxarongelako emakumeari. Ahal dugun guztia egin dugu.

Zailtasunak egon dira. Espero genuena baino askozaz zailagoa izan da. Mila hitz esan dizkio, hitzak milaka. Berba mutuak, amaren begi nekatuentzat. Ulergaitzak, zentzurik bakoak.

Sentitzen dugu, andere.

Itxarongelaren beste aldean, aitona zaharrak entretenimendu berria aurkitu du, begien nekea are gehiago nekatzeko: itxaroteko balio ez duten itxarongelako egunkari zaharren orriez baporeak egiteari ekin dio. Eta esan du, xuxurlatu, baporeek hazkura ematen diotela itsasoari. Baporeak itsasoaren zorriak direla.

Emakumearen begiak nekatuegi daude negar egiteko.

Trenak geldirik jarraitzen du, *stop*ean gatibatuta balego lez. Edo hori da barruan atxilotuta dagoen emakumeari iruditzen zaiona. Bera geldi dagoela, trena geldi dagoela, eta kanpoko irudiak atzerantz doazela, azelerazioz.

Luxuzko hotel baterako *suite*a ikusten du orain emakumeak leihoaren bestaldean, ezerezean islatua. Izara zuriz estalitako ohean, arrosa bat etzanda. Azalean zauri baten pare. Gorria zurian.

Xanpaina. Bi kopa.

Balkoian, zuriz jantzitako emakume bat, gauaren beltztasunean zerbait aurkitu nahian bezala. Ezinean.

Zuria beltzean.

Gelara sartu, eta ohearen ertz batean esertzen da. Ilea motots batean batzen dion peineta kentzen du. Ilea sorbalde-

tatik erortzen zaio. Lepo biluzia estaltzen dio, samurki bustitzen; ur-jauziaren antzera. Belarritakoak kentzen ditu ondoren: amarenak. Eskuturrekoa, amonarena. Eraztuna ere kendu nahi du, bere eraztuna; estutu egiten dio atzamarra. Kentzeko gogoz egon da egun osoan: elizan, jatetxean. Gizonak hatzean itsatsi dion unetik. Larregi estutzen dio. Kentzen saiatu da. Ezin izan du. Mesanotxean dagoen lorontzian busti du atzamarra, eraztuna labain dadin. Ezin, ezin izan du kendu. Etsi egin da.

Estutu egiten dio eraztunak. *Bere* eraztunak.

Kopa bat hartu du. xanpainez bete. Trago batez edan du. Berriro bete. Hustu. Bete. Hustu. Bete, hustu. Bere barneko amildegia betetzen eta husten balego legez.

Oheko arrosa hartu du. Arantza batek zauria egin dio atzamarrean. Odol tanta batek lohitu egin ditu izara zuriak, aratzak. Gorria beltza den zurian, tarteka zipriztindua.

Azelerazioz egiten du ihes gauak atzerantz. Eta atzerantz. Eta atzerantz. Denbora gero eta azkarrago lerratzen da erlojuaren geltokietatik. Atzerantz, atzerantz, atzerantz.

Atzerantz. Beti atzerantz.

Bi esku txiki ikusten ditu emakumeak. Pianoaren teklen gainean sostengatzen dira hatzak. Txikiak. Zimurrik bakoak, denborari aiherga. Ezjakin. Geldiro hasieran, beldurrez, airea Beethovenen zortzigarren sonataz betetzeko ikaraz, *do menorr*az bustitzeko. Hatzak harrotzen joan dira gero, alabaina, teklak laztanduz, sakon, errai, hatzak sostengatuz, hatzak des-sostengatuz, pianoari hasperen bat ostuz, bizitzari hatsa, taupadei bizia. Azelerazioz hasi dira mugitzen

notak, hara, hona, gela betez, leihoak leherraraziz, apurtuz, haizearekin bat eginez, lainoei kilimak eginez, eguzkiaren izpiak itzaliz, zuhaitzetako hostoak dantzan jarriz. Harrotuz joan da airea, joan dira atzamarrak, ezpainak gogortu ditu neskak, umeak, begiak itxi, hatzak arrandiatzen joan diren heinean; olatuak bailiran, haitzen kontra, biziaren aitzi. Pentagramen entropiaren gatibu.

Amaierarantz gerturatu da zortzigarren sonataren lehenengo mugimendua, *Allegro con brio*a; itsasoratzera doan erreka antzo. Eskaileretan gora, behera. Heltzeko zorian dago, ezpainak estutu ditu umeak, neskatoak, begiak areago itxi, hatzak dardaraka hasi zaizkio, bihotzaren taupaden arnasa isildu egin zaio, Beethovenen aurrean burumakur. Heltzera doa amaierara, heltzera doa. Neskaren/umearen atzealdean, zutik dagoen irakaslearen ahotsa entzun du bat- batean. Erlaxatu sorbaldak, ez jantzi tentsio guzti hori sorbaldetan. Barreiatu indarra, eskumuturretara, hatzetara. Kontuz matizeekin, ez eman dena orain, utzi gerorako, utzi geroko, *fuertiiiiissimo*rako. Bat, bi, bat, bi... Ez azeleratu, itxaron, bat, bi, itxaron, ez eman dena, laxatu sorbaldak, bizkarra zuzen, itxaron, larregi ematen duzu, itxaron, *piano*ago, ez egin *in crescendo*a. Oraindik arinegi da. Itxaron.

*In crescendo* baten hazi zaio dardara hatzetan neskari, umeari. *Diminuendo* baten heldu da amaierara: sorbaldak laxatu ditu, kontu handia izan du matizeekin, handiegia beharbada; ez du *fuerte*-egi egin. Kasu egin dio irakasleari. Kasu egin du. Itxaron egin du. Arinegi zen. Itxaron egin du. Itsasorantz zihoan errekaren *in crescendo*a hil du, eta jada ez da heldu. Atzean geratu da. Bidean.

Treneko leihoez bestaldeko mundua geratu egin da supituki. Erlojuaren orratzak gelditu egin dira derrepentean.

Dardara baten bibrazio leunean ito dira trena, denbora, emakumea. Argiek dar-dar egin dute, ikaraz. Segundo batez itzali egin dira. Arnasari heldu dio emakumeak. Berriro piztu dira.

Trena martxan jarri da. Aurrera doa trena, aurrera emakumea. Orain bai. Leihotik haratagokoa atzerantz doa, orainetik ihesi; hostoetan, kaleko baldosetan, postontzietan pausatzen den gaua. Atzera doa. Eta bera aurrera. Hostoak eta kaleko baldosak eta postontzia atzean utziz.

Aurrerantza lerratzen da emakumea, helmugarantz gerturatzen doala jakin barik. Edo jakinik. Gero eta azkarrago. Gero eta azkarrago. Emakumea izutu egiten den arte. Artega mugitzen da eserlekuan, arretaz aukeratu duen eserlekuan. Leihoan jartzen du eskua; kristalaren hotzak bustitzen dio ahurra. Aurrerantz doa, azkarregi, arinegi. Ez du itxaroten, ezin du itxaron. Ez trenak, ez emakumeak.

Ez azeleratu, itxaron, bat, bi, itxaron, ez eman dena, laxatu sorbaldak, bizkarra zuzen, itxaron, larregi ematen duzu, itxaron, *piano*ago, ez egin *crescendo*a. Oraindik arinegi da. Itxaron.

*Accellerando* suizida baten mende dago, erritmoa galdu du, taupadak galdu ditu, lar arinegi doa, arinegi, arinegi...

Eserlekutik altxa da. Ilea bota du atzerantz. Bekokiko izerdia sikatu du mahukaz. Beheko ezpainari egiten dio kosk. Ilean endredatzen ditu atzamarrak, des-endredatzen. Irten egin nahi du, trenetik irten, kanpora irten. Urrunegi daraman trenetik askatu nahi da, korapiloengandik, hegan egiteko, inoiz egin ez duen antzera. Eta trena aurrerantz doa, azkar, aurrerantz... Atea zabaldu nahi du, baina ezin du. Azkar, aurrerantz... Leihoak kolpatzen ditu, baina ezin ditu

apurtu. Azkar, aurrerantz... Oihu egiten du, baina jada ez dio inork entzuten. Isilak dira garrasiak, oihartzun mutu baten hiltzen dira. Eta negar egiten du. Negar egin du. Baina mutu dira bere malkoak jada. Eta trena aurrerantz doa, gupidarik gabe, inoiz baino aurrerantzago, inoiz baino urrunago, inoiz baino arinago...

Tren bat ikusi du leihotik at. Hurbiltzen ari zaio. Barruan neska bat doa, ume bat. Zotin egin du, eta negarra isildu. Eserlekuan biribilkatu da. Burua besoen artean ezkutatu du.

Beste aldera begiratu du. Eta handik ere, gerturatzen ari den beste tren bat ikusi du. Barrura begiratu du, eta zuriz jantzitako emakume bat topatu. Atzamarrean daraman eraztun batek egiten dio dir-dir, errukirik bako dirdiraz oro bustiz.

Beste tren bat urreratzen zaio. Emakume bat dago barruan, preso. Magalean du haurra. Masailean ematen dio musu, bekokian, lepoan. Baina hotz dago jada.

Azkenekoz, soineko beltza daraman emakumea ikusi du beste tren batean. Instant batez, begirada ostu dio, eta bere begiak ikusi ditu. Bere begi propioak, grisak, emakume haren aurpegian. Ez darama zapirik.

Tren guztiak ari zaizkio urreratzen. Garrasi egiten du emakumeak. Besteei begiratzen die, baina haiek isilik daude. Deiadar egiten du, laguntza eskatzen die, ozenki, leihoak kolpatuz, ateari bultza eginez. Baina ezin da irten. Intzirika jarraitzen du, baina gor diraute beste treneko esklabuek.

Eta trenak urreratzen doaz azkar. Doi-doi elkar marruskatzen dutela sentitu ahal izan du emakumeak. Talka egingo dute une batetik bestera.

Ulertu egin du. Itxarotera kondenatua dagoela ulertu du. Isilik, geldirik itxarotera. Baretasun batek irentsi du gupidarik gabe. Eta eseri egin da emakumea, trenean sartzerakoan eseri den eserlekuan, arretaz aukeratutako bagoian. Helmugaren esperoan, azkeneko geltokiaren zain. ***Azkeneko bidaian***.

# Anamnesis

Oskia Zalakain Ederra
Ekialdea institutua
Gasteiz

Hizkiak tximini piztuetatik urteten ziren. Batzuetan bat edo bi, besteetan multzoka. Poliki nahiz harrapaladan, haizearen ufada zorrotzak munduaren beste tokiren batera bidaltzen zituen, hizki-euria beharrezkoa zen parajeren batera agian.

Etxeak, denak iladan eraikiak zeuden, eskolara eskutik helduta joaten diren umeen antzera, haiek ere nonbaitera zihoazela zirudien, ez zuten hankarik ordea, pentsatu nuen. Etxe haietako batetik, tximinia piztuta zueneko batetik, ume ilehori bat atera zen atea danbateko batez itxiz bere atzetik. Begira geratu zitzaidan, ahoa erdi zabalik zuela, ni munduko gauzarik xelebreena banintz bezala, fenomeno paranormal bat banintz bezala goitik behera aztertu ninduen. Nik ene aldetik kuriositatea ase nahian kea beharrean tximinietatik hitzak zergatik ateratzen ziren galdetu nion umeari. "Erabiltzen ez ditugunak sutara botatzen ditugu. Orain dela urte batzu hitzak geure aurka errebelatzen hasi ziren, ematen genien tratu txarra eta erabilpen okerra zela eta gizakien aurkako iraultza egin nahiean ibili ziren. Hortxe duzu geure erantzuna", eta bere eskua, hitzak jaurtitzen zituen tximini belzturantz zuzendu zuen.

Bidearen bestaldean jakintsu itxura zuten emakume zahar batzuk ikusi nituen orduan. Umeak, ene aurpegia ikusi orduko hala esan zidan, “metaforak dira, egun guzia igarotzen dute txotxolokerietaz hizketan, baina ez esan haiei halakorik gero!”. Metafora zaharkituengana hurbildu nintzen, elkarrizketa sutsu batean murgildurik hauek.

– Metafora sinpleenak dira finean gehien adierazten dutenak. Sinpletasunez, zuk uste baino gehiago adieraz daiteke. Gauza ez baita hitz konplexuak erabiltzea baizik eta mementu bakoitzari eta hutsune bakoitzari dagokion hitz egokia aukeratzean datza espresibitateak.– zioen batek bere bizar luzea laztantzen zuelarik.

– Konplexutasunik gabe metaforak bere xarma galdu eta originaltasun eza gailentzen da espresibitatearen gainetik, metafora guziak iada asmatuta daudela dirudi eta sinpletasunean murgildutako inpresio itogarri batekin bukatzen duzu…

Joxe Mariren ostalera abiatu nintzen, metaforen metaforaren inguruko elkarrizketaz aspertuta.

Bidean, armonika jotzen zuen zuhaitzarekin topo egin nuen. Han, oroitzapenek bainua hartzen zuten ibaiaren ondoan zituen murgildurik sustraiak, eta haizearen ferekaz ez zela oroitzen esan zidan, eta gauetan, platerak garbitzen ari den emakumearen kantu artifiziala baino ez omen zuen entzuten, paperezko txoriek kantatzeari utzi ziotenetik. Bere buruarekin bakarrizketan aritzen omen zen eta azkenean borobiltasunaren sentsualtasunaz pentsatzen amaitzen zuen, aspaldi joan baizitzaion grina pizten zion ondoko zuhaitza, iraultzaileek moztu ei zuten liburutegia erretzeko.

Joxe Mariren ostatuan dena zen zuria, denak zirudien zuria, dena zegoen zuritasun zuri batean murgildurik, baita zuria bera ere. Herrikoek etxe zuria deitzen zioten.

Koloreen existentzia ukatu nahian edo agian, zuritasuna, garbitasunaren sinonimo delako uste okerrarekin zeudela otu zitzaidan barrara hurbiltzen nintzela, nire alkandora gorriak zuritasun hartan kontraste ikaragarria sortzen zuelarik.

– Animaliak ez daude onartuta ostatuan, ez txakur ez katu ez ahate ez ehunzango, ezta tximeletarik ere. –Esan zidan emakumeak, erdi erotuta zegoela zirudien emakumeak, mizkintasunez blaitutako begirada zuzentzen zidala.

– Ez daukat animaliarik.

– Ongi, 512a orduan zeuretzat.

Aterik irekitzen ez duten itxura zuen giltza utzi zidan eskuartean, “bigarren solairuan” esaten zidan bitartean.

Hurrengo egunean izugarrizko oihuek iratzarri ninduten, eskaileretatik behera jaitsi nitzen harrapaladan gertatzen zena ikusteko. Kolore zuria desagertua zegoen nik lehenagoko gauean utzitako lekutik, paretak jadanik ez ziren zuriak, mahai eta aulkiak, eta enkoadratutako orri zuriek zuri izateari utzi zioten, dena baitzegoen tinda beltzez zipriztindurik, gauean zehar milaka bele beltz kolpeka hil balituzte lez hauen odol beltza ostalaren pareta zurietan sakabanatuz. Eta erdian argi irakur zitekeen “Zeresanik duenak eman beza aurrera pausu bat eta isil dadila”. Eta zentzugabea iruditu zitzaidan dena.

Kalean giroa berotuta zegoen, metaforak armonika jotzen zuen zuhaitzaren adarretan urkatuta azaldu ziren.

Goizean goiz Alizia, medikuaren alaba, izan zen haiek ikusten lehena, adarretatik zintzilik, noraezean.

Bi aitona aztoratu pasa ziren orduan nire albotik:

– Iraultzaileak izan dira!, ez al duzu sagar erre usaina sumatzen? sagar erre usaina seinale txarra da…

– Ze sagar erre ta ze sagar erre ondo! iraultzaileak! errepublikanoak izanen dira, seguru, edo demokratak! Erregea agintetik kendu eta burua moztuko diote!

– Guk erregerik ba al dugu ba?

Bi aitonatxoak jarraitzea erabaki nuen, nik baino zertxobait gehiago zekitela zirudien eta. Herriko plazaraino eraman ninduten. Jende mordoa zegoen bildurik eta denek alderantziz zihoan erlojuaren azpian zintzilikaturiko orri erraldoi bati begira zeuden:

*"Hemendik aurrera debekatu egiten da berez pentsatzea. Pentsamendu propioak dituena gogor zigortua izanen da, ez izan dudarik. Debekatuta gelditzen dira hausnarketa politiko nahiz filosofikoak. Edozein motatako hausnarketak. Etxe bakoitzak 5 kg hitz erre beharko ditu gutxienez egunean eta etxean dituzuen liburu guztiak, bakoitzak bere etxaurrean erre beharko ditu, etxean liburu bat bera ere gorde gabe. Legea hausten duena zigortua izanen da." ALDERDI UTOPIKOA*

Eta denak, labezomorro nahaspilduen antzera, euren etxeetara joan ziren liburuak erretzera. Eta behelaino dentso batek estali zuen herria, estali zituen metafora urkatu eta Joxe Mariren ostatuko zipriztin belztuak, estali zituen herri-

tarren ideia eta umeen pentsamendu inuxenteak. Bikote gazte bat xuxurlaka entzun nuen “zer da hau, utopia dogmatikoa? pentsamendu kritikoaren suizidioa? aniztasun kulturalaren monoformazioa? zer izango da…” Galdera amaitu baino lehen, gorriz jantzitako bi morroi azaldu eta gazte bikotea eraman zuten, “ikusi duzue!” esan zuen gorri batek eskuarekin keinu mahatxugarria egiten zuen bitartean.

Herriak liburu erreen usain sarkorra hartu zuen, orrietan behinola norbaitek izkiriaturiko inurriak pixkanaka erretzen ziren keak ihes egiten zuelarik. Haizerik gabeko egun hartan kea zurrunbiloka gorantz igo eta mogitzen zen, bere bizilekua abandonatu eta atzera begiratzen duenaren antzera.

Eta hala gertatu zen behin, orain dela asko, pentsamendu askearen erailketa. Hala ehortzi ziren lur hezeetan liburu eta teoria guziak, hala desagertu zen markatutako bidetik ateratzeko ahalmenaren konszientzia. Eta gau ketsu hartan paperezko txoriak erori ziren zerutik, mundu guziak gorantz begiratzen zuela. Eta txoriak sutara erori ziren. Eta aitonatxo hura izan zen guziaren amaiera sentitu zuen azkena, ideiak existitzen ez diren aro berriari hasiera eman baino lehen ortzemuga tragikoari begiratu eta gaur egun bizitzen dugun egoeran pentsatuz malko nimino bat isuri zuena.

# Adio

Iraitz Ugalde Pikabea
Koldo Mitxelena institutua
Errenteria

Ezin dut ulertu zertan dabilen. Beti izan da geldi egon ezin duen horietakoa, baina hau gehitxo delakoan nago. Ez zaio otu, bada, granjatik alde egin behar duela… Jabeak ederki ematen digula jaten eta, aritu natzaio ideia hori burutik kendu nahian. Baina, alfer-alferrik. Ezin konformatu setati halakoa. Egia esan, uste dut gehiago eduki nahiak daramala hain urrun, utopiarekin amesteak. Inkonformista hutsa da. Onartzen dut ez dela perfektua granjako bizimodua, baina ez dugu janaririk falta, ez dugu beste piztiaren batek ehizatuko gaituen beldur egon beharrik, eta ostruka izanik ez da gutxi. Oinak lurrean izan behar direla esan diot, ezin dela hain erromantikoa izan. Makina bat ameslari galdu da errealitatearen eta fikzioaren arteko munduan… Beldur naiz gauren batean alde egingo ez ote duen…

*Ez du nirekin etorri nahi Mokok. Ez da ohartzen jabeak berari sobera pentsu ematen diola, baina, ni erabat utzita naukala, abandonatuta. Ez daki –edo ez du jakin nahi- gure patua gizakiaren sabelean dagoela, gaur edo bihar, goiz ala berandu sakrifikatuak izanen garela jate eder bateko platerean amaitzeko. Eta txoriburu deitzen dit behin eta berriro,*

*temoso bat banintz legez hitz egiten dit, esaten dudana astakeria bailitzan. Bai, ameslaria izan naiz beti, baina, oraingoan oso argi dut guztia. Ez dut bizitza monotono honekin jarraitu nahi. Badakit pentsua jaten eta arrautzak erruten igarotako ehunka egunen ostean iritsiko zaigula, guri ere, joandako guztiei bezala, aiztoaren eguna. Baina inork ez du horretaz hitz egin nahi, inork ez ditu begiak zabaldu nahi. Nahiago dute etxaldeko ostruka guztiek, erosotasunean alfer, eguneroko bizi zentzugabearekin jarraitu. Errazagoa baita ezentzunarena egitea. Bada, ni ez nago prest! Alde egiten ahalegindu nahi dut, hilko banaiz ere egun gutxitara, aske izan nahi dut!*

Seko erotu zaigu Luma. Zera esan dit, alde egiten ahalegindu nahi duela, hilko bada ere egun gutxitara, aske izan nahi duela! Ez al daki, bada, gure aitona-amonek eta gurasoek egin duten eran jabearekiko leial izan behar dugula? Hark ematen baitigu egunero jaten eta hari zor baitiogu bizia. Gure jainkoa balitz bezala da. Gure arbasoak zaindu eta gu sortzeaz arduratu da urtez urte. Nor gara gu, bada, haren granja uzteko gure iraultza lotsabako eginez. Gainera, kanpoan gizakien gerra piztua da, sutan dira zelaiak, txabolak eta herriko etxeak. Gizaki andanak galdu du bizia, nola biziraungo du, bada, ostruka batek? Ez du imajinatu ere egiten, Lumak, zenbat katu goseti dabilen kalean gaur egun. Koitadua, heldutasuna falta zaio! Nolabait konbentzitu ahal izango banu… Baina bere fikziozko egia hori soilik ikusten du eta ez dit jaramonik egiten. Ez dakit zer egin.

*Jainkoa. Hitz horrekin izendatu dit Mokok jabea gaurkoan. Berak ematen digu jaten, bai, nahi duenean eta nahi duenari soilik. Nik egun luzeak daramatzat goseak, hezurra eta azala besterik ez naiz ia. Jabearentzat jainkoa hitz potoloe-*

*gia ez ote den galdetzen diot neure buruari. Berak eman omen zigun bizia, baita kenduko ere. Nahi duenean, gainera. Arriskua atsegin dut, ezin uka, baina oraingoan badut arrazoi franko egitera noana egiteko. Ahalegindu naiz Moko nirekin etor dadin konbentzitzen. Saiatu naiz, baina leihoak itxi dizkit. "Hator nirekin, Moko, laguna haut eta hormez bestaldeko mundua hirekin ezagutu nahi diat!". Badirudi jabeak hipnotizatuta daukala. Baina, ez da jabea hipnosiaren errudun, Moko bera da. Ez du etxaldeko erosotasuna utzi nahi, ez ditu egun ziurtatuta dauzkan janaria eta estalpea kolokan jarri nahi.*

Berarekin joateko eskatu dit. Ez! Nola alde egingo dut etxaldetik? Ez dut nahi bera joaterik, bion arrautzak ondoan errun zituzten egunetik ez gara sekula banandu. Hala ere, bost axola zaio nire esana, erabakia hartua duela dirudi. Malkoei eutsi diet solasean ari ginen artean, kostata. Onartu beharra dut haren erabakia. Ez da laguntasun falta, buruarinegia da, besterik ez. Ni, aldiz, ez naiz horrelakoa. Batzuetan nork bere bidea hartu behar izaten du, maitasunaren eta laguntasunaren gainetik, nork bere ideiak ipini. Eta horixe egingo dut, buruaz bihotzaren marrua isilduko dut. Nik ezin dut granja utzi. Jabeari traizio egin? Ahaideei iseka eginez, gure jatorriaren estalpe den etxaldea abandonatu, eurak baino gehiago banintz bezala? Ezin dut! "Hoa hi, hoa, eta izan hadi zoriontsu hori baduk hire nahia… Nik ezin diat momentuko zorionaren truke odolean daramadan familia eta jatorria saldu. Uler ezak!"

*Gauerdian lagundu dit Mokok horma ondoko lurra zulatzen. Jator portatu da, nik nahiago nuen arren horma hura biok igarotzea. Egia esan, beldur naiz. Ez dakit zer dagoen granjako hesiez bestalde. Ez dakit lastoak zer kolore*

*duen bertan, ezta lastorik badagoen ere. Bizi ote den ostrukarik mendian aske, edota ihes honekin bakarrik bizitzera kondenatzen dudan neure burua… Izua astuna da pentsamenduen zeruan hegan, baina askatasunaren hegoak handiagoak dira, luma urdinak eta horiak dituzte eta garaiago egiten dute hegan. Ez dut nagusiaren zain egon beharko egunero, hark jaten eman nahi didan edo ez zain. Ez dut goserik pasako ondokoak bapo dauden bitartean. Eta hilko banaiz, libre izaten saiatu ostean izango da, zorionaren haizea luma artean hegan sentitu ostean. Ez dut ezer galtzeko!*

Denbora luzea hitz bitan labur dezakedala ohartu naiz, urtez urte bizitza deitu diodan honek ez duela ez hankarik ez bururik, egunero errepikatzen dela kontu bera. Ene biziak zentzua galdu du gaur. Bart agurtu dut Luma. Oraingoan ezin izan diet malkoei itxaroteko esan, lotsabako alde egin dute begietatik, momentua lausotuz. Eztiki kiribildu ditugu lepo luzeak. Ez naiz ahalegindu geratzeko eskatzen, berak ez dit elkarrekin ihes egiteko ideia errepikatu. Bagenekien batak bestearen pentsatzeko modua, eta hura errespetatzea izan da onena. Eta halaxe, atzera begiratu barik –berak ere malkotan izanen zituen eta begiak– ilunean ezkutatu da ibilera baldarraz. Goizaldea ostu dit eguzki esnaberriak, zalantzaren izpiek argitu dute etxaldea gaurkoan. Izan ere, tristezia uneetan, arrazoia ez da bihotza bezain indartsua, eta ezin malko jario hau gelditu. Benetan utzi behar al nion ihes egiten?

*Kostatzen ari zaio eguzkiari egun hau pizten. Luze pasatzen dira minutuak belar hezetan etzanda. Egia esan, dena da mantsoegia, hotzegia, bustiegia, norabiderik ez duzunean. Bidea hasi dut, askatasunera. Atera naiz granjaren mugetatik eta aske naiz, edo hori uste dut. Orain, ordea, nola biziraun pentsatu behar dut, zer jan, nora jo, gauak non igaro… Ez da*

*gozoa izan lehen gau hau. Mokoren lumajearen beroa gabetsi dut bihotzaren sakon-sakonean. Berak, behintzat, badu zer jana, badu lasto pila bertara lotaratzeko. Bakarrik nago, beldur naiz! Hobe al zen jabearen mendeko izan arren etxaldean bizitzea, lagunekin, estalpean eta pentsua dagoen lekuan?*

Ez naiz gose, jabeak pertzakada pentsu ekarri didan arren gosaritan. Pozik dago antza gizon lodikotea. Bost axola zaio Lumak alde egin izana. Ohartu da, badakit ohartu dela, denok ezagutzen baikaitu. Galdetuko nioke, ea zelan doan gizakien arteko gerra hori. Ea gure etxaldera ez den bonbarik eroriko… Gogo barik ekin diot pentsua jateari. Lumarekin elkartu behar nuke. Gaur gauean oraindik badut alde egiteko aukera. Agian, granjako hesiez kanpo Luma dut zain. Jada dastatu du askatasunaren gozoa, beharbada, eta pentsuaren zaporea baino gozoagoa da… Berdin zait beste etxalderen batean sartu badute ere. Berdin zait non eta nola bizi… Nahiago dut gutxiago jan eta lagunarekin elkarbanatu eguneroko janari apurra. “Non hago…?”

*Hotz dago ingurua. Lumak bustita ditut, gorputza dardarka. Aske izatea oso garestia da gaur egun. Baserri asko ageri dira sutan, ez nuen uste gizakien gerrak hain tragikoak zirenik. Jende ugariren garrasiak entzuten dira gauean. Badakit gose direla eta ni eurentzat bazkari goxoa nintzatekeela. Zuhaitz honen oinetan ezin naiz luzaro egon, berehala atzemango naute. Buelta gehiegi ematen dizkit buruak nik nahi izan gabe. Gehiegi pentsatzen aritu naiz gauean eta orain hezurretan sumatzen dut izua. Agian, hobe dut sustrai hauetan etzanda geratu, luma bustiek itzaliko nauten arte, lortu ezin daitekeen amets horren atzetik ibili baino. Zertarako segitu utopiarekin amesten? Moko alboan banu sikiera…*

Pentsua jaten bukatu dut eta hegaletik helduta narama jabeak. Luma dut gogoan. Irudimenaren oihalean josita banu bezala, bere aurpegieraren irudia dakusat tinko. Atera nau txabolatik jabeak, eta ondoko etxolara narama bortxaz. "Arrazoi huen lagun!" pentsatu dut etxolako aizto zorrotzen distirari begira. Nahikoa loditu nau jainkotzat nuen honek eta bazkaritarako nahi nau. Ez dut negar egiteko indarrik, beldur naiz. Damututa nago Lumarekin joan ez izanaz. Hura libre da orain, ez da inoren mendeko, eta inork ez du bera gillotinatzeko eskubiderik. "Azken pentsamendu hau eskaini nahi diat, Luma. Amesteko eta bizitzeko gogo horrekin urrun iritsiko haizela bazekiat. Ni, berriz, ez nauk etxaldeko hormez kanpoko mundura sekula igaroko. Ez duk bekaitza, miresmena duk! Asko baizegok galtzeko erabaki eroak hartutakoan, baina askoz gehiago irabazteko. Eta nik ez diat erabaki ero bakar bat ere hartzeko ausardiarik izan ene bizian. Eta iritsi zaidak ordaina… ez dik erruki kolorerik aiztoaren distira oihulariak…"

# Zeruertzaren bila

Amaia Agirre Gonzalez
Antigua - Luberri institutua
Donostia

Itsasoa, bere luzera eta zabaleran hain baketsu eta itxaropentsua. Tantaka sortua, kostata, egunen bateko esfortzuak ikusgai.

Itsasoa, bere gardentasun kristalinoaz, garbitasun hautsiezinaz harro agertzen da, bere handitasuna erakutsiz; luzaroan. Tokiak urrundu, bata bestetik aldentzen ditu. Mugak ezartzen ditu ur gaziko laku erraldoi honek, hesiz inguraturiko mugak.

*Takoradi etxe txiki eta xumez osaturiko herrixka da, inguru eder eta paisaia paregabearen jabe. Bertan bizi garen familia apal bat gara. Ni neu naiz sustraia, irribarreak, alaitasuna... mineralak balira zuhaitzera pasatzen saiatzen naizena, lurraren idortasuna gainditzea nahiko zaila den arren. Enborra, nire senarra, barnetik ustelduz doa, hiesak, harrak sagarra bezala, barrua jaten baitio, apurka-apurka. Ez dago ezer egiterik, badoa, denborarekin ni joango naizen moduan. Hala ere, denon artean etxera txanpon batzuk ekartzea lortzen dugu, irribarre eta alaitasunez ez baita sabela betetzen. Gosez ez gara hilko, beste edo-*

*zerk akabatuko du lehenago gurekin, baina gorriak ikusi behar izaten ditut egunero zazpi seme asetzeko lapiko erdi huts batekin.*

Itsasoa nire ametsen jabe izan da beti, hauek errealitate bihurtzeko giltza, herdoiltzen joan den arren, justu apurtu baino lehen berreskuratu eta giltzatakoan ezarri dudana.

Esaten dute, berari axut eginez, zeruertzaren ateak zeharkatuz, ezbeharrik gabeko mundura iristen dela, egia ote? Ez dakit, hala ere harantz noa, nire familiaren patua aldatzeko grinaz.

*Zazpi adarreko arbola, zazpi beso, lehena bigarrena bezain maitatua. Denen artean bultzatzen naute aurrera, indartsu borrokatzera animatu, duintasun apur bat oraindik gelditzen zaigulako. Guk ezer ez dagoen tokian beti ikusi ohi dugu esperantza, soineko zuriz jantzia gure bihotzetan, zuhaitz hau argitzen duen eguzkian eta baita hornitzen duen eurian ere.*

Alde egin bezain laster damutu nau jokabide harroputz lotsabako horrekin agurtu izana nire izatearen ardatza. Sorlekuaren orbainak ondo itxiak utzi ordez, gori-gorian, erretzen zutela joan naiz. Atzera begiratu gabe, atzamarrak ukabil batean estutuz, gorputz osoa kitarra baten kordak bezain tenka nituela; mundua jateko gogoz egin dut ospa.

*Adar ahulena, hauskorrena, Mabota jaio berria da, nire odola xurgatuz barnean hazten  joan den kimua. Oraintxe bertan, titia atximurkatzen ari zait ezpainekin, samurkiro, nekearen nekeaz erori arte, titipuntak lamizkatu arren, ase dezakeen esnerik ez baita irtengo haietatik. Esan dudan bezala, lur hau zentzu orotan idorra da.*

Inbertsio handia egin du familiak nigan; haien biziraupena hamazazpi urteko gazte baten eskuetan jarriz. Ardurak pisu handia du, espero dut naraman itsasontzia hondoratzeko behar beste ez izatea.

Gaurko egunak hautsi du orain arteko utopia: Europarantz itsas autopistatik abiatzea. Diru eta patera trafikoa etengabea da, ilarak bidesarietan luzeegiak… ez daukat presarik, bizitza osoa itxaroten eman eta gero, denboraren orratzek garrantzia galdu dute dagoeneko niretzat.

*Bigarren adartxoa nire xomorroa da. Zortea bere alde du, otorduak GKE batek antolatutako jangela batean egiteko aukera baitu. Txiki xamarra da bere adinerako baina nik nire arkakusoa berdin-berdin maite dut erraldoi ala ttipi. Apika, bere gorputz meharragatik hartuko zuten beste munduko organizaziokoek, nire beste sei semeak kanpoan utziz, zergatik? denek dute jateko beharra.*

Pixkanaka noa, pausuz pausu aurrera, zuzen, irmoki, helmugarantz, duda barik. Lehenengo orduetan ez naiz neure senean egon, kaiolan gordetako lehoi baten antzera baizik, irteera ate edo pasabide barik; giltzapetuta. Zorabiatzen ari naiz eta oka egiteko gogoa gero eta handiagoa da, jasanezina. Itsasoaren etengabeko izurrek txalupa zabunkatzen dute atseden apur bat ere hartu gabe.

*Adar gudularia, heriotzaren aurkako borroka latzean dagoena, Keite da. Jaio zenetik gerrarako prest, aurrera egin du gaixotasunei iruzur eginez. Oraingo honetan, ordea, ez dakit erronka gainditzeko gauza izango den. Indarrak ihesi doazkio, ahul dirudi; azkenean lehiaren irabazle Herio aldarrikatuko da, gure zuhaitzari adar bat ihartuko zaiolarik, lurrean galdu eta bere jatorrira bueltatzeko.*

Herrian, beldurra ur kutsatua bailitzan hedatu nahian, bidea samurra ez zela errepikatzen zuten behin eta berriz, eragozpenak eta oztopoak franko zirela. Ez zidaten, bada, ikararik sorrarazi, ez naiz erraz kikiltzen diren horietakoa. Banekien gutxi batzuena zela garaipenaren jakia dastatzeko zori ona; abiatutako gehienek haizearen aurka, etsita, haien nortasunak iraultzen utzi behar izaten zituztela olatuetan desagerraraziz.

*Jaio eta hil egiten dira haurrak Afrikan, haur izateari uzteko astirik gabe, jaiotza eta heriotzaren artean dagoen existentzia hori maitasun eta eskuzabaltasunez mozorrotuz. Lehen hatsa azkena bezain mingotsa da, lehen malkoa azkena bezain mikatza. Sufritu besterik ez da egiten biziz, eritu besterik ez da egiten biziz; hil egiten da biziz.*

*Badut adar bat, Jainkoak zigortua, zerura kondenatua, edota paradisura askatu eta liberatua. Hasperen bakoitzean gelditzen zaizkion bizi pikor bakanak kanporatzen ditu, gutxika, arima hustuz. Ahulduz doa, bere barneko zizarea handitzen doan heinean. Bere odola zurrupatzen dio, oraindik dituen mineral urriak lapurtuz; neure besoetan bere eta nire hatsak, mingots zein etsiak nahasten direlarik.*

Urrutira begira zeruertza baino haratago ikusi nahi dut, distantzia zirikatuz, putzu baten hondoa ikusi nahiko banu bezala; zer aurkituko ote dudan igarri.

Zaila da neure senean mantentzea, hemen denok geure baitan bildurik gaude eta bizirik jarraitzen badut, bidaia honetako adiskide bakarrak, itxaropenak, hiltzen utzi ez nauelako da. Ehun lagun inguru gaude, bata bestearengandik hain gertu, non latako sardinak gurekin alderatuz dantzan arituko ziren haien ontzi barruan; izerdi kiratsa, arrainaren usainarekin

nahastean sortzen den konbinazio nardagarriak drogen pareko efektuak lortzen ditu; eta egarria, beti egarri, urez inguraturik egon arren, ureztatu gabeko lore lehorren antzera, euria goitik behera ikusi baina tanta bat bera ere jasotzen ez dutenak, pixkanaka ihartu eta petalo guztiak erortzen zaizkienak.

Beso eta hanken ordez, hegats eta zakatzak banitu eta ezkata koloredunez eginiko trajea, gustura zeharkatuko nuke amets zapuztuen isla proiektatzen duen ozeanoa.

*Seydou etorri zait gaur galdezka ea bizitzea nahitaezkoa den. Ezetza heldu zait lehen aho puntara, baina, mingainean koska egin eta bultzada eutsi dut. Badakit nire aurpegian zizelkatuta dauden zimurrek, aran pasa baten itxura hartzen dutenak, edota bizitzan sufritu dudan guztia ikuste soilak erakusten duela ez naizela galdera hori erantzuteko egokiena, hala ere nire semeen zoriontasuna oparo dudanez, bi segundo bere begietara tinko begira nahikoak izan dira baietz erantzuteko: bizi behar dela, noizbait, denborak aukeratutako unean, hiltzeko, ez dagoela beste aukerarik. Muxu bat eman diot masailean, aldendu aurretik xuxurlatuz: "jaio bezain laster jasotzen dugu bizitzeko dohaina, nahiz eta gero latitudeak adierazi noiz den dote hori ongietorria edo arbuiatua".*

Sorgindutako biraderak olatuak bortxatzen ditu; amoroski ebaki eta zauritu. Bidea erdibituz aurrerantz garamatzate korronte nekagaitzek. Kostaldean lurperatutako oroitzapenak garrazten doaz, oinazeak bihotzeko zauria orbainduz: amodioak irekitako arroila sakon amaigabeak eta familiak utzitako hutsune beteezinak. Ingurukoen begietan atzeman daitezke zaurien minak, zaurien penak, diru truke saldu behar izan dituztenak, arima saldu duena bezalaxe geldituz, ezerezaren jabe.

*Seigarren adarra, bera da egunero lapikoa betetzeko zer edo zer ekartzen diguna. Ezer ez badakar ez da azaldu ere egiten, familia aurrera ateratzeko gai ez dela jabetzen denean bere burua gugandik urrunduz zigortzen du. Bere aita eta anaien osasun egoeraren erruduntzat jotzen du bere burua, nahiz eta azala uzteraino dena eman haiengatik. Bestalde, oso mutiko azkarra da eta eskolara joandako urte eskasetan irakasleak erakuts ziezaiokeena baino gehiago ikasi zuen . Berak trebatu ninduen idazten eta irakurtzen garai hauetan oso garrantzitsua baita; edozeinek egin diezaioke iruzur, ez dagoen tokitik lapurtuz. Imajinatu: familia oso batekin akabatu.*

"Trre visible!" entzun eta bihotza korrika hasi zait, esprintean, taup, taup, taup. Burua altxatu eta hondartza amaigabe bat ikusi dut, hare fin zuridunak estalia et duna malkartsuz mugatua. Entzuna dut hura dela helmuga, Kanariar irlak, Espainiar estatua, bertan indarrak berreskuratu eta aurrera ateratzeko gai izango garela, ni eta nire itzalean daramadan familia. Baina ondoezak ahitzen nau, egunak daramatzagu barauan, gure txiza soilik edanez. Egoera latza da benetan, kosta pare bat ordu barru joko dugu eta ez dakit kareletik garaipena ikusiko ote dudan edota karelak nire gorpua ikusiko ote duen, besteena bezalaxe, itsasoan murgiltzen.

*Azkenik zazpigarrena; zaharrena; helduena. Albotik ihes egin digu, laguntza eske oihuka, bere garrasiek denok salbatuko gaituztelakoan. Joan zenetik ez dut haren berri izan eta norbaitek kontrakoa esan arte, nik ondo dagoela pentsatuko dut; gogor borrokatuz mundu honetan berarentzat leku bat egiten ari dela. Zerua begiratzean bere irudia ikusten dut hodeietan islatua, gorantz begira; bera ere ortzi*

*mugagabe horren azpian ni bezain hutsal sentitzen delako. Horrela elkarrengan pentsatzen dugu, ametsen eta errealitatearen munduak nahastuz.*

Bi mila, bat eta erdi… eguzkiaren distira amatatuz doa; begiak ixten ari zaizkit; jada ez naiz zerua begiratzeko gai. Banoa, hilabete pasatxo honaino etortzen, segundo batzuk joaten. Heldu da damutzeko garaia, hautatzeko aukera izan nuen behin eta aukeratzean beti galtzen denez zerbait, nik preziatuena utzi nuen galtzen. Ez dago atzera bueltarik, dolutzeko denbora besterik ez.

*Bihotzean arantza bat sumatu dut, pixkanaka barneratzen, emeki urratuz oroitzapenak. Sentipen lazgarri batek dardarazi nau, atsekabe bat, ziur nago. Burua jaiki dut, baina ez dago zeruan nire semearen islarik. Burua makurtzean negar malkoak lur lehorrera jauzi dira, tanto bakoitza pisutsu eroriz, kontzientziaren pisua askatuz; dagoeneko garbatzeko besterik ez baitago astirik.*

*Beti damutuko naizelako semea joaten utzi izanaz. Beti.*

# Patuaren morroi

Mikel Manzisidor Iztueta
Aita Larramendi ikastola
Andoain

Zerbaiten presentzia sumatu duzu, bat-batean, pixkanaka hurbilduz, inguratzen zaituen atmosferan zehar zuri konpainia egitera hegaz etorrita bezala. Haztamuka eta oraindik erdi-lo, zure eskua maindire artetik interruptorearen bila luzatu duzu, une batez mundua alda dezakeen espedizio bateko partaide sentituz, aldatu beharrekoa, zerbait hori ilunpean identifikatzeko daukazun ezina bada ere.

Periko ikusi duzu orduan, eta bere begirada xamurrak irribarrea lapurtu dizu momentu batez, optimismoa erregalu paperean bilduta oparituz. Trukean, bezperan etxe azpiko dendan erositako katu-janez bete diozu platertxoa, urrumaka hanka biluzietan kilimak egiten dizkizun bitartean.

Hasierako optimismoa, ordea, udazkenean zuhaitzei hostoak modura joan zaizu, urrunera, telefono dei madarikatu baten kulpaz.

– Bai, esan?

– Fermin naiz. Hara, nahikoa denbora daramat zu agoantatzen!

Maizterraren deiak pipertuta baino gehiago lur jota utzi zaitu, etsita. Astebete baino ez dizu eman etxetik joateko, zer eta pare bat hilabetetako alokairua diozulako zor. Zure erreguek ez dute Ferminen maltzurkeria elikatzea besterik lortu, eta ziur zaude belauniko jarrita ere ez zenukeela barkamenik irabaziko, ez eta bere bihotz zikoitz hori apurtxo bat bigunduko.

Telefonoa indarrez eskegi duzu, guztiaren errua berari botata hobeto sentiaraziko bazina legez. Ez duzu, ordea, zure zoria aldatzerik lortu, eta munduko jainko guztiak bilduta ere, zail ikusten duzu horrelakorik, azken batean patuaren txotxongilo baikara guztiok, bere esana itsu-itsuan betetzen dugun hezur eta azaleko zorigaiztoko marioneta koadrila.

*"Dena dago idatzirik eta dena dago berridazteko"* esan zizun behin lagun batek. Gainontzekoak bezala, hura ere itzalen artean ezkutatu zen gehien behar zenuenean baina iragana une batez baztertu ondoren, zuk ere zure patua idatzita dagoela sentitu duzu; bere baitan, gutxienez Ferminen adinako pozoia gordetzen duen sugegorri baten eskutik agian, edo gainontzekoen bizitza izorratzeko premia duen atso aspertu horietako batengandik beharbada. Ez diezu, ordea, borroka irabazten utzi nahi, eta mesanotxeko korridoreko koadernotik orrialde bat erauzi duzu, zure desioak, apetak, etorkizun ideal hori idazteari ekin diozu, patuaren txotxongilo izateari utziz bezala, eta libre sentitu zara, itsasoan uger, ozeanoetako sekretuak deskubrituz, txorien artean zeruko autopista libreetan imajina ezineko abiadura harrapatuz, askatasunak eskaintzen dituen mila zaporeak bata bestearen atzetik dastatuz!

Guztiak ortografia akatsekin idatziak behar izan dute alabaina, une batetik bestera errealitatera itzuli baitzara; berriz

ere, zure pausoen jabe den horren menpeko panpina artikulatu izatera bueltatuz, sarrera doakoa izanda ere, publikorik gabeko obra bateko protagonistaren azalean sentituz. Eta koaderno orritxoa patrikan sartu duzu.

Tarte batez zure inguruko anabasari begira galdu egin zara, oroitzapenetan murgilduz. Familia ideal eta perfektu horietakoa zen zurea: aita, sona itzeleko sastrea, azkenerako inguruko kategoria altuko gizon guztien neurriak ongi ikasiak zituena; ama berriz, garai batean amonarena izandako txokolategi txiki batean aritzen zen. Igandero joaten zineten mezetara, dotore jantzita, apaizaren sermoia entzutera. Gauzak, ordea, asko aldrebestu ziren ama hil zenean. Aita depresio batean sartu zen hondoraino eta medikuak agindutako pilulek ezer egiten ez ziotela ikusita, berak bere erremedio propioa aukeratu zuen: jokoa. Aita hil zitzaizunean zor piloa besterik ez zizun utzi herentzian.

Egunkariko orriak dantzan jarri dituzu, aloka dezakezun apartamentutxo bat bilatzearen aitzakiaz. Ez duzu, baina, zure eskura dagoen ezer topatu, zaila baitago Bartzelonan kalea ez den beste aterpe merkerik aurkitzea. Kaka zaharra! Ez dakizu zer egin.

Ustekabean iragarki batek zure atentzioa beregan preso hartu du, publizitategileak gero eta profesionalagoak direlako akaso, edo lehendik idatzirik dagoen patuak hala nahi izan duelako bestela.

*“Galduta sentitzen zarela? Zure etorkizunak kezkatzen zaituela? Bihar zer gertatuko zaizun jakin gura duzula? Ez kezkatu orduan, eta utzi guztia Lady Geneviève Bonneten esku, XXI. mendeko eskarmentuko igarlea, Frantziatik*

*espresuki etorria eta hainbat teknika menderatzen dituena: astroen interpretazioa, kartak, kristalezko bola… Zerorrek aukeratu!"*

Hasieran ez diozu garrantzia handirik eman, eta horrelakoei kasu egiten dien jendeaz beti pentsatu izan duzuna etorri zaizu gogora: ergel halakoak! Baina badu zerbait izen horrek, *Geneviève Bonnet*, biziki erakartzen zaituena, eta zure hasierako erreakzioaren aurka, emakume frantses horrek lagun zaitzakeela hasi zara sinesten. Zergatik ez? Finean, guztion destinoa idatzirik badago, akaso honen berri izanda oraina alda dezakezu, etorkizun diferentea sortze aldera.

Iragarkiaren behealdean idatzirik dagoen helbidea leitu duzu behin eta berriz, zeure burua autokonbentzitu nahian, azkenerako zure burmuinean iltzatuta perpetuoki geratu den arte. Kontu horri hainbeste buelta emateaz akituta berokia soinean jarri eta zapaten lokarriak estu lotu ondoren, presaka irten zara etxetik, portaleko eskailerak binaka eta hirunaka jaitsiz, orkatila okertzearen probabilitate altuari aurpegira barre egiten diozun bitartean.

Hotz egiten du kalean eta oraindik ez du egunak guztiz argitu. Haize izoztuak aurpegian zaplazteko latza eman eta bueltatzen saiatu zaren arren, airoski eta amorruz bete zaituen goxotasunez, behatzen artean dantzan egin dizu ihes, urrutira, harrapatu ezin dezakezun txokoren batera. Kaleak hutsik daude oraindik, baina jenderik gabeko karriken perfektutasuna hautsi nahian bezala, apurka atalondoetatik irteten joan dira egunonik ematen ez dien hiriko biztanleak, loaren orratzak aurpegitik ezin kendurik. Zure alboko eskaratzetik trajedun exekutibo horietako bat atera da, eta "zorionekoa zu!" pentsatu duzu.

Nahiko denbora luzez zakur abandonatu baten pare ibili zara, eta iritsi zara azkenean *Josep Garí* kaleko hirugarrenera. Hasiera batean zail suertatu zaizu atea identifikatzea, inguratzen duen horma grisean ederki kamuflatua baitago, baina beronen goialdean dagoen errotuluak ez dizu zalantza izpirik utzi: "*Lady Geneviève Bonnet*" eta beheraxeago hizki txikiagoz idatzirik *"XXI. mendeko igarlea"*. Badu halako misterio kutsu bat erakargarri egin zaizuna, eta atea ukabilaz jo duzu, energikoki.

– *Augega*. Pasa, pasa lasai, atea zabalik dago –erantzun dizu emakume ahots gozo batek barrutik, frantses azentuaz, sartzeko gonbita eginez.

Jaramon egin eta sartu egin zara, une luze batez, begiak bertako iluntasunera ohitu arte, itsu geratuz. Apalategi altu batean ezezagun zaizkizun hainbat objektu joan dira agertzen zure begi-bistan, etorkizuna ikusteko izango direla uste duzu. Hormak hainbat koloretako ehunez estalirik daude eta lurra pertsiarren imitazio merkeko alfonbraz, tokiari garai bateko printzesa arabiarren jauregi baten itxura eman nahian bezala. Gelaren beste aldetik dator argia, ahul, eta harengana hurbildu zara eltxoen antzera, bidean hautsez estalitako eta armiarmen bizileku bihurtu diren liburu astunekin ia estropezu eginez.

Kandela soil batek ematen duen argira hurbildu ahala, mahai zabal bat ikusi ahal izan duzu, eta haren atzean, emakume lodikote baten silueta.

– Eseri lasai eta konta iezadazu *zegk ekagi* zaituen honaino –ekin dio elkarrizketari bere katiluan tea dirudien likido arraro bat zerbitzatzen duen bitartean. –Nahi *apug* bat?

– Ez, eskerrik asko, gosalduta etorri naiz –gezurra esan behar izan diozu te edo dena delako edari higuingarri hori ez probatzearren.

– Arazoak, ezta?

– Baaa…hara, ez dakit zer egin: ikasketak utzi behar izan nituen lanean hasi eta aitaren zorrak kitatzeko, baina kontua da daukadan lanarekin ez dudala pisua ordaintzeko lain ateratzen –arnasa sakon hartu duzu jarraitu aurretik– Ez daukat lagunduko nauen inor, eta…biharkoari beldur diot! Ez dakit nola bukatuko dudan! Gainera aste bete besterik ez dut etxe berria topatzeko.

– *Integesgagia* gazte, baina, dagoeneko jakingo duzun bezala *ezeg* gutxi egin dezaket nik zure diru arazoak konpontzeko –hasperen egin du teari putz egin eta katilua ahora hurbilduz zurrutada bat eman ondoren. –Hori bai, *etogkizuna augesan* diezazuket, ongi *augesan* ere.

Lehendik ere bazenekien diru arazoak ez direla *Geneviève Bonnet*-en kontua, baina itxaropenak irri egin dizu, eta uste osoa duzu emakume horrek benetan lagunduko dizula. Azken batean, zure arazo larriena iristear den horri diozun beldurra da, ez besterik, eta hori jakinda lasaituko zarenaren ziurtasuna duzu.

– Egia esan, horrexen bila etorri naiz.

– Ongi da. Zein metodo gustatuko litzaizuke? Kartak? Astroen azterketa? Eskuko marren irakurketa nahiago? Edo, kristalezko bola, agian? –aukera ezberdinak azaldu bitartean mahai gainera aipatutako tresna bakoitza ateratzen joan da, azkenik, bere esku zimurtuekin mahai azpitik kristalezko bola galant bat atera duen arte.

Txikitatik iruditu zaizu harrigarria kristalezko bolarena, eta hainbeste filmetan ikusi ondoren, horixe hautatu duzu, inertziaz edo.

– *Kgistalezko* bola ogduan? –zuk hitzik esan aurretik asmatu du *Lady Bonnetek* esatera zindoazena, eta buruarekin baiezkoa eman diozu.

Momentuan zur eta lur utzi zaitu, baina ondoren akordatu zara amak bihurrikeriaren bat egiten harrapatzean esaten zizunaz: "zure aurpegia barruan daramazunaren isla da seme; guzti-guztia nabarmentzen zaizu!"

Mahai gainean soberan dauden traste eta tramankulu guztiak batu ostean, labanda usaindun intsentsua piztu du, etorkizunera begiratzeko balioko dion esfera perfektua emeki-emeki zentroan jarriz. Ulergaitzak zaizkizun hitz magiko modukoak ahoskatu ditu azentu frantsesaz, Afrikako hizkuntza horietakoen kutsu nabarmenekoak, eta bere soa bolaren gardentasunean iltzatuta geratu da bat-batean. Erabat kontzentratuta, begiak kliskatzera ausartu ere egin gabe egon da emakumea zure aurrean. Ez dakizu zenbat denbora daraman horrela eta apur bat urduritzen hasia zara, jada.

Baina ezustean, bekozkoa zimurtu eta harridura eta izua nahasten dituen oihu isila jaurti du, gela guztian zehar espektro baten arimaren hoztasunaz barreiatu dena. Hotzikara indartsu batek zeharkatu dizu gorputza orduan, eta jakinminez, ikusi duenari buruz galdezka hasi zatzaizkio emakumeari. Honek, ordea, ezin izan dizu erantzun. Begiak kristalezko bolan finko dauzka oraindik, eta galderez bonbardatzen duzun arren mutu dirau, katuak mihia jan izan balio bezala.

Azkenean zuri begiratu dizu.

– Zer? Zer ikusi duzu? –itaundu diozu segundo bat gehiago itxaron ezinda.

Gelako zoko ilunen mugagabetasunean galdutako bere begirada izan duzu erantzun bakar, baina ez duzu etsi.

– Esan iezadazu zer erakutsi dizun bolak! Berdin zait zer den! Jakin beharra daukat!

– Sentitzen dut, bene-benetan sentitzen dut –hunkitua dirudi, baina egoerak nolabaiteko dibertimendua ematen diolakoan zaude.

– Zer ba?

– Etorkizun iluna duzu oso, eta zoritxarra laster iritsiko zaizu ate joka.

– Noiz? Esan mesedez!

– Hemendik gutxira, oso denbora gutxira!

– Ze-zenbat denbora da hori? –hitz-totelka egin diozu galde.

– Hilabete bat.

Ez dizu gehiago esan nahi izan. Alabaina, uko egin diozu egoera horretan geratzeari, eta patrikan zenuen diru guztia eman diozu informazio gehiagoren gosez.

– Zeure izatea soilik izango da galbidera eramango zaituena, ez besterik.

Ez dakizu zehazki zer esan nahi izan dizun horrekin, baina kezkatuta laga zaitu oso, eta berarengana joatearen damua barrutik atximurka hasi zaizu. Baina ezin iragana aldatu, ezta?

Egunak pasa dituzu *Lady Geneviève Bonnet*ek esandakoari bueltak eta bueltak emanaz; alfer-alferrik izan da, ordea.

* * *

Topatu duzun pentsio merkeenaren gelan zaude, ohe gainean eserita, bertako horma hitsei so, kanpoko zaratari entzungor, emakume frantsesari bisita egin zenionetik pasatu diren egunez akordatu ostean trantze moduko batean sartuta. Egun bat besterik ez da falta hilabeteko epea agortzeko, bat besterik ez!

Denbora bihurtu da zure etsai nagusia, indartsuena eta menperagaitzena. Ordulariaren orratzak ezpata zorrotz bilakatu dira zuretzat, eta ezin diezu begirik kendu euren mugimendu erritmiko errepikakorrei, ustekabean *"zast!"*, eraso egin baitiezazukete. Eta oker-okerrena zera da: zure etsai hori ez dela guduzelaira bistaratuko, berarekin borrokatu eta irabazteko aukerak ezerezera, hutsera murriztuz. Gertatuko denarekiko duzun ziurgabetasun sentimenduak ez dizu, gainera, bakerik ematen, eta etorkizunari pazientziaz itxarotea beste erremediorik ez edukitzeak, apurka-apurka ito egiten zaitu, orainean preso sentituko bazina bezala.

*"Honek ezin du horrela jarraitu!"* pentsatu duzu, eta gehiago itxaron ezinda, zure bizitza infernu bihurtu zuen emakumearen bila abiatu zara. Desesperatuta irten zara kalera, bere aurpegia kale-kantoi eta karrika-zulo guztietan zuri begira, irribarre maltzurraz, imajinatuz. Korrika abiatu zara

*Josep Garí* kalerantz. Izerditan hasi zara, eta buruak bueltak ematen dizkizu, bata bestearen atzetik. Aspaldi honetan sufritu duzunaren memoria modura, irudi mordoa datorkizu burura, hil aurreko momentuetan gertatzen ei den estilora, diapositiba-saio azeleratua balitz bezala. Baina bada gero eta gehiago errepikatzen den irudi bat: *Lady Geneviève Bonnet*ena.

Eta ustekabean, zure aurrean oinez, bera ikusi duzu, eta amorruz itsututa, jende gehiegirik gabeko kalearen erdian lepotik heldu diozu, indartsu, hatzaparrak zintzurrean hondoratu bitartean histeriko bat bazina legez, builaka kontuak eskatzen dizkiozula:

–Esan! Esan! Esadazu zer gertatuko zaidan! Zer ekarriko dit etorkizunak?! Esaaaaan! Zein da nire patua?! Hitz egin ezazu, sorgin halakoaaaaaaaaaa!–errabia kontrolagaitzaz aritu zara emakumearen lepoa estutuz, zure eskuen artean bere bihotzak taupadak betirako isiltzen sumatu dituzun arte.

Zorabiatu egin zara eguzkia ezkutatzearekin batera.

* * *

Hurrengo goizean, begiak zabaldu eta gela zuri batean zaudela ohartu zara, leihorik eta aparteko altzaririk gabekoa. Ez dakizu non zauden, baina telebista piztuta dago, eta albistegia ari dira ematen: *Bart arratsean, Josep Garí kalean, bi seme-alabadun emakume bartzelonar bat psikopata baten eskuetan eraila izan da. Hiltzailea, itxuraz arazo ekonomikoetatik pasatzen ari zen gaztea, ero-etxera eraman dute.*

Alboko mesanotxean orritxo bat ikusi duzu. Esku artean hartu eta labanda usaina dariola konturatu zara. Zabaldu egin duzu:

*Ez al dakizu etorkizunarekin jolastea arriskutsua dela? L.G.B.*

*Stewart*

# Itsas-enaren hegaldia

Ekain Zubizarreta Zuzuarregi
Lizardi institutua
Zarautz

Lurrera lotzen nauten sokak askatu eta astiro irten naiz portutik, bueltatuko ez naizelako sentipen arraroarekin. Martxan hasi eta banoa urrun.

Lasaitasuna, goxotasuna, bakea nabari dira itsasertz isil honetan, munduko erokerietatik kanpo.

Atzera begiratu eta arroketan kaioak eta itsas-enarak dakuskit beren habien inguruan jolasean.

Itsasoa handituz doa nire azpian eta gero eta urduriago doa batela, abiada bizian. Baga txikiek batela kulunkatzen dute. Gero eta barrurago narama batelak, ostertzetik gertuago eta lehen bezain urrun.

Laino kezkatuak puzten ari dira, eguzkia ezkutatuz eta norabide ezberdinetako haizeek borrokan dihardute.

Ez dakusat inor. Non dira nire lagunak? Barrurago jarraitu beharko dut.

Ekaitza hasi da bat-batean nire gainean eta zerua beltz eta ilun dago. Tximistak eta trumoiak lehian dabiltza. Bustitzen hasi naiz, zirimiri lasaia ari du.

Han urrutian, hegaztiak datoz, kostata. Oso gutxik dihardute hegan. Egoera zail eta neketsuari ezin heldu eta uretara jaitsi direnak gehiago dira.

Ubarroiak eta pottorroak dakuskit, beltz, ur azalean geratzeko gogo gutxirekin baina berriz aireratzeko aukerarik gabe. Ezin dute. Halere baten batek oraindik hegan dihardu.

Gorago itsas-enarak gogoz dabiltza, indartsu. Kaioak dituzte gainean harrokeria eta lasaitasun arraro batekin, guztiaren jaun eta jabe izango balira bezala.

Barrurago noa, ezin dut bateltxoa geldiarazi. Penatzen ari naiz nire lagun itsas- enarak uretara, banan-banan, etsita, nola erortzen diren ikusiz. Gogo gutxi antzematen diet, mutur goibela. Ezina ere nabaria da batzuengan. Uretan pausatzen dira. Zerk eragiten die etsipena?

Aurrerago noa. Ekaitz gogor hauek asko zailtzen dute nire bidea. Kaioek eta itsas-enarek borrokan dihardute. Kaioak lasai ikusten dira, arerioa kontrolpean dutelako ustean. Kala-txori gajoak berriz gogor dihardute eta dagoenerako abilenek, bizienek eta trebeenek bakarrik eusten diote gudari. Laguntza behar dute.

Orain konturatu naiz lehen ez naizela nahastu eta labarrean ikusi ditudan habia guztiak itsas-enarenak zirela eta ez antxetenak. Kaioak ere baziren habiatan eta ziurrenik honengatik ariko dira lehian. Mutur galanta dute kaioek besteen lepotik bizi nahi badute, handiagoak izan eta indar gehixeago dutelako. Nik ere gauza bera egingo nuke.

Kaioen aurkako borrokan lagungarri izan nahi dut. Lagundu nahi diet baina nire hegalak ez dira oso luzeak. Ez

dut nire hegoak erabiltzeko aukerarik eduki eta ez dakit lortu ahal izango dudan.

Ur gainean pausaturiko hegaztiei begiratu diet laguntza jaso nahian baina ez dut ezer lortu. Ez dute inolako interesik erakusten, nazkatuta eta nekatuegi daudelako agian. Bata bestearen atzetik murgildu dira kanpoko borroka ahazteko agian, ez dute begiratu nahiko. Urpean txaluparen inguruan jiraka dakuskit, murgil nadin erregutzen.

Ez dute ezer ulertzen. Nire heroiei lagundu behar diet momentu zail honetan. Nola murgilduko naiz bada lagunekin jolastera orain? Mundua ekaitz bortitzenek astintzen diharduten bitartean ezin da jolastu. Burua altxa eta gorantz begiratu dut.

Borroka ez da baretu gogortu baizik. Hainbat txenadak zauri sakonak dituzte eta kaioen artean ere badira zaurituak. Kaio baten txilio garratzak belarriak gortu dizkit. Ez dut gehiago itxarongo.

– Lagunak, banoa!

Karelera igo eta erantzi egin naiz, nire benetako irudia erakutsi nahi diet, itsas- enara arrunt bat baino gehiago naiz. Hanketan indar guztia bildu dut eta posizio aerodinamikoa hartu. Bizitzako jauzirik indartsuena egin eta banoa gorantz, jainkotzat ditudanekin elkartzera.

Parean ditut. Blai eginda egoteak ez dit mesederik egiten eta hegalak motzegiak ditudala konturatu naiz. Hemen goian dena ezberdin ikusten dut. Itsas-enaren artean badira albatrosak ere, handi eta sendoak, pixka bat gorago kaio zurien aurka dabiltzanak. Kaioen artean hankahoriak, hankago-

rriak, burubeltzak, txikiak, ilunak, hankabeltzak beltzak eta mokogorriak ere bereizten ditut. Kaio nazkagarriek kontrola dutela dirudi, denen gainean hegan baitabiltza nolabaiteko lasaitasunaz.

Itsas-enarek apenas hitz egiten dute. Garbi dakite beraien zeregina: aurkaria garaitu.

Borrokak aurrera darrai eta ez dirudi inor nekatzen denik. Antxetek lehen adinako indarraz jarraitzen dute eta itsas-enarek ere bai. Ni, berriz, nekatzen ari naiz. Kaioek gure gainean jartzen dute pisua gu nekarazi eta erortzeko. Ni, behintzat, leher eginda nago eta lagunak konturatu dira. Ingurura bildu zaizkit eta tarteka animatu egiten naute beraien borroka utzi gabe.

Trikimailuren bat erabiliz kendu dut gainetik kaio hori azkenean. Nireak egin behar zuela uste nuen. Berehala, lasaitzen hasi orduko, beste bat etorri zait eta kolpe latz batekin ia bota nau. Erantzuten saiatu naiz baina nire gainean jarri du pisua eta ez naiz bien pisua jasateko gai.

– Lagunak, ezin dut gehiago.

Kaioari indar guztiz heldu eta hegoak astintzeari utzi diot. Txaluparantz abiatu naiz, zuzen goitik behera. Kaioak ez du sinesten eta madarikatu egiten nau behin eta berriz. Ez du askatzea lortuko. Hatzaparrak erraietaraino iltzatu dizkit etsiko dudalakoan. Oker dago. Ez dut askatuko! Mokoka dabil nire begiak itsutu nahian baina ez diot utziko, begiak beharrezkoak ditut.

Jada ezin du ezer egin. Indar guztiz bultza eta askatu dut eta pixka bat desbideratu naiz. Indarrak agortu zaizkit. Krak!

Kaioak txalupa jo du. Bat gutxiago! Beste antxetek ezin dute sinetsi. Madarikatzen dantzuzkit. Ploff! Uretan murgildu naiz.

Begiak ireki eta nirekin borrokan ez zeuden lagun batzuk dakuskit. Nire inguruan daude, ni noiz esnatuko zain. Zenbat denbora pasa dut konorterik gabe?

Ingurura begiratu dut, lagunei apenas jaramonik egin gabe. Ateri dago eta eguzkiak gogoz berotzen du. Ez dut ezer ulertzen! Nola liteke? Konpondu al dira ba jada munduko arazoak? Kendu al diegu agintea kaio nazkagarri, zikin horiei? Pozez txoratzen ari naiz.

– Garaitu ditugu! Libre gara! – diot ozenki.

Lagunek ez didate erantzuten. Zertaz ari naizen ere ez dakitela dirudi. Ezinezkoa da. Ez al zaie ba axola?

Ur azalera muturra atera dut. Itsas-enara eta albatrosei zorionak eman nahi dizkiet. Merezi dute, lan izugarria egin baitute antxeten aurka beren bizia arriskuan jarriz.

Ez da posible! Zeruan ekaitza da nagusi, euria ari du gogotik eta tximistak eta trumoiak gogoz dabiltza. Ez da ezer aldatu. Kaioen eta itsas-enaren eta albatrosen borrokak bere horretan darrai. Ez ditugu garaitu. Zer da, bada, nire beste lagunak dauden urpeko mundu hori?

Burua urpean sartu eta berriro ere lagunak dakuskit eta eguraldi lasai eta ona. Lagunei so egiterakoan lasaitasuna eta arduragabetasuna ikusten diet. Berriz ere kanpoan borrokarako gogo bizia ikusten diet itsas-enarei eta ur gainean pausaturik dauden pottorro eta ubarroiak kezkatuta eta haserre bizian daudela garbi dakusat. Aireratu ezinik daudela dirudi.

Ez da oso azalpen normala baina horrelako zerbait behar du izan, bestela ez baitut ezer ulertzen.

Bi mundu paralelo daude eta borrokarako gogoa edo gogo ezak bereizten ditu. Ez da oso azalpen normala baina horrelako zerbait behar du izan, bestela ez baitut ezer ulertzen. Ezin dut bestela urpekoen lasaitasuna ulertu. Hori da bururatzen zaidan arrazoizko azalpen bakarra. Berdin zait. Nik badakit zer nahi dudan, ez naiz berriz murgilduko.

Irabaziko dute. Ezin dugu kaioak gure gainean ditugula bizi, haientzako lana eginez. Ezin dugu gehiago haien menpe bizi.

– Eutsi lagunak! Garaipena gertu duzue. Egurra eman! – ahal dudan bezain ozen esan arren ez dakit entzun didaten.

Ziur nago ez dugula galduko. Ezin dugu galdu ez baitugu inoiz etsiko. Ez naiz gehiago murgilduko.

Gora begira nago eta eguzki-izpi batek laino tartean zulotxoa ireki duela dakusat. Dena ez da hain iluna. Esperantzak errealitate bihurtzen ari dira eta ekaitza, oso pixkanaka bada ere, lasaituz doala iruditzen zait.

Heriotza zain daukadan itsasertzera bidean, patxadatsu, presarik gabe noa eta garaituko dugula ziur dakit. Borrokan jarraitu beharko dut, ordea, nireei lagunduz.

Lasai hartuko dut, gauzak ez baitira azkarregi gertatuko, baina azkar xamar gertatzea espero dut, ni itsasertzera heldu aurretik. Itsasertzera eguzkiaren berotasunean iritsi nahi dut.

Itsasertza dakusat. Garaipenak gertu behar du egon!

# Beltzez zizelkatutako hitzak

Irati Murua Salsamendi
Oianguren institutua
Ordizia

*Mundaka, 9:15 a.m.*

*Kaixo Zu,*

你好吗 (*Zer moduz zaude?) Elkarrizketa hutsal gehienen moduan eguraldiaz galdetuz hasi nezakeen hitzaspertu hau. Bide egokia izan zitekeen lehen urratsak elkarrekin emateko. Baina ez, nahiago izan dizut nola zauden itaundu, hasieratik zutaz arduratzen naizela adierazi.* 多谢

*Tok, tok… Bai Zu, zu zeu. Beste aldean zauden hori. Mesedez, itzuli begirada paperera. Zurekin gura dut eleketan jardun. Bai, zelan zauden jakin nahi dut. Badakit honek arruntetik ezer gutxi duela eta are gutxiago mintzotik. Haatik, ez naiz jende gehienaren moduan zer erran jakin gabe isilik ez gelditzearren "Zmz?" soilik esan eta mutu geratuko.*

*Zergatik zuzentzen ote natzaizu hain berandu, beranduegi ere izan daitekeela jakinik. Hur-hurrean ez dut sekula berba multzo hau gutun-azal batean sartuko, ez naiz inoiz beldurrak behin betirako gainditzea xede, postontzira*

*hurreratuko. Bakarrizketa hutsa izanen da tamalez. Elerik gabeko eskutitza nahi nizuke izkiriatu, guztia esateko adorea, abagunea… izan dudanaren seinale. Zein hizkuntza, zein hitz erabili hainbeste zor dizudan horri eskerrak emateko? Mila milioi esker edo thank you, gracias ala merci, …*

Urrin, oso urruti, urrunegi…

Tratatatatatatatatata…

Ohartzerako ipurdia sostengatzen zion aulki herrenak epizentroa galdu ostean gela erraldoiaren zoruan zegoen hankaz gora Zu. Ehungarren lerroan, eskumatara 28. langilea. Beldurraren beldurrez, bizi jaiki eta mahukaz lehortu zuen lokuluxkaren salatari zen adurra. Zorionez ez zen zaindaria ohartu. Bizkor ekin zion beharrari, atsedenaldiak ez ziren musu truk. Ezta hurrik eman ere! Lanaldi bukaeran yuanak ikusiko bazituen besteek adina jeans pare josi beharko zuen.

*Dilin, dalan… Goizeko hamarrak? Hori diote bai kanpaiek. Erloju orratzek ere berdina, puntu puntuan dela. Ene bada, dagoeneko zakarrontzia okaka ari da. Paper pilotatxoek banaka-banaka metro erdiko zirkulua osatu dute ordu bete eskasean. Punteria eza, ni errudun. Beste behin zurbiltasuna ostu eta tintaz zikindurik lurrean botata dago orri saldoa. Magalean eserita dudan haurtxoa ere jabetu da alferrik galtzeaz. "Aita, ostabe erabili eta rezikle ein biher dala diño andereñuek". Barkatu, pagdon, sorry alabatxo. Ez zaitut ezagutzen, ezta zuk ni neu ere. Baina haurra agian…*

Etenik gabeko tratatatatatatak.

Ezin jakin zenbat zehazki, baina dudarik gabe aunitz. Andana jostorratz aldiune berean bakero oihalak zulatuz

hauts kutsakorra aireratzen. Makina bakoitzaren aurrean zegoen txinatar emakume jostunak $O_2$ bailitzan arnasten zuen berau. Zuk ere bai. Begirada oztopatzen zien maskarek beren zelulek jasaten zuten inbasioa ekidin zezaketela jakin izan balute… heriotzaren zepotik… Beharrerako programaturiko automatak ziruditen. Bertan zeudenean ez berba ez imintzio. Egunero, astelehenetik igandera, hamalau orenez elkarren alboan ondokoaren berri barik. Inbertsio ekonomiko minimoa suposatu eta merkatuko teknologia hoberenaren parekoa zen produktuen kalitatea, ezin lehiakorragoa. Izua zen robot jokaeraren zioa, atsedenik gabe lanean mutu jarduteran zergatia. Sosak ez ikusteko beldurra alegia.

*Hamaika erretratu marraztu dizkizut, hamaika bozeto. Begirada miopearen moztasunak erretinan inoiz prozesatu gabeko irudia lausotzen dit. Neskatoari so orenak ematen ditut imajina argitzeko asmotan. Munduratu berritan Maddiren lehen negar zotinak entzun zituena zu izan zinen, gaueko ordu txikitan bularra ematera jaikitzen zena… Gu bere aldaketen testigu eta eragile zuzen izanagatik, bere bihotzak zure odola ponpatzen dihardu. Sorreran geneetan gordetako informazioa aldagaitza da, kultura ez ordea. Hala eta guztiz ere, ahaleginak egin ditugu Maddik sustraiak sorterrian manten ditzan. Aberria uzteak ez zezan lotura eten. Zenbat desiratuko genukeen estreinakoz ahopetik ebaki zuen hitz xume harren lekuko zeu ere izana! 娘! Bai, 娘 hura zu zinen, Miren **A-M-A** da. Ez dugu gura izan ez zegokigun mozorrorik soinean jartzea, baina tamalez berba honen atzean ezkutatzen zara.*

Bost gradu zero azpitik, Zu zurbil, hotzaren hotzez. Zoruan soa iltzaturik zihoan urrats arin laburrak emanez, inork zirkin ezohikoren bat sumatzearen ikaraz. Noizean

behin ur tanta batek ihes egitea lortu eta masail zurietan barrena emari urriko errekastoak bustitzen zizkion. Orduan zeharka begiratzen saiatzen zen kale kantoietako ezezagunei, irribarrerik ederrena trazatu alderik alde, triste ez bailitzan. Ausarta izan nahi zuen, ez zuen heriotzaren aurrean kikildu gura. Ezin horratik ematera behartua izan zen haurraz oroitzean mintzea ekidin. Esperantza pintzeladaz margotu zen goizean penak orlegi argiz koloreztatzekotan. Beroki berdeaz laneko uniformea estaltzen ahalegindu bazen ere, itxaropen gabe jarraitzen zuen. Karminez pintatutako ezpainak jaiki berritan bezain ahul ziren. Azal zuria bakearen ikur izan beharrean, zelulen guda osteko heriotzaren lasaitasun ikurra zen. Makillajeak ere beraz ezin funtzio psikologikoa bete.

*Irratiko sinfoniaz bestaldeko trumoi burrunbadek arreta ostu didate. Ttantto bat, bi malko geza, hirugarrena bidean... Arrantzaleak euritakorik gabe doaz porturantz zalapartan. Garai hauetan ohikoa den lez itsasoa haserre dabil. Bolumena igo diot uhinek dakarten rock&roll abestiari. Ene gaztaroa gogorarazten dit, Miren ezagutu nuen parranda zoro hura bereziki. Hilabeteak ziren jainkosa mitologiko haren presentziapean eskuetako ximurretan izerdi hotza nabaritzen nuela, barne-katalogoko irririk atseginena jalgitzen saiatzen nintzela, bere tabako hatsak ninduela txoratzen... Eta azkenik Elvisen melodia honekin amuarraina marinelaren sareetan erori zen. Ez dakit zehazki zerk erakarri zuen niregana, izan ere, lagunarteko lotsati, hermetikoki itxitako mutil xaloa nintzen ni. Miren, berriz... Miren zen!*

*Irakatsi zidan*
*itsasoko mareei aurre egiten,*
*ez oilotzen.*
*Irakatsi zidan*

*noiz, nola eta zergatik*
*jitoan ibiltzeari laga*
*Irakatsi zizkidan bai,*
*baina nik ez behar bezala ikasi.*
*Eta hondoratu nintzen, nuen,*
*Ur gaziz zopatu genituen*
*bion ilusio, amets, egitasmo…denak.*

*Medikuaren ahotik "haurrik ezin izango duzue izan sekula" entzuteak eragin zuen gainbehera. "Per secula seculorum?", utikan medikua eta haren kontsulta! Indar kosmikoren batek gainazalera itzuliko gintuelakoan ekin nion "gure aita, zeruetan zarena, santu izan bedi…". Bi gehi bi lau eta kito! Horrelakoa da bizitza, kontrakoa dioenari, zapla!*

*Belarrondoko franko jasoarazi zizkidan jadanik ene jakin-min ase ezinak. Hura adinakorik ez hala ere. "Zergatik hau? Eta bestea? Zer dela eta…?" Inozoaz gain, ameslari samarra nintzen eta urteen joanak munduarekin sinkronizatu arazi ninduen arren, haur utopia haren apurrik nigan bazela eta egun ere badela jabetzen naiz. Kimika ezagutzak esaterako ez nituen sekula nireganatu. Fraideetan taula periodikoa zen galderarik sortu gabe inertziaz sinesten nuen gauza bakarrenetakoa. Potasio tetraoxomanganato =* $K_2$ *Mn* $O_4$*…bufff! Ni beti nintzen argudio gosez.*

*Logelako lau hormen artean gatibatu nintzen. Etsipena igortzen nuen. Eskerrak Mirenek guraso izan nahi eta ezinari adarretatik heldu zion argi printza topatuz adopzioan. Maddi dugu egun bizi poz, gure etxeko printzesa. Ene irudimen guztiz bitxiak eragin behar izan du alabagan zoritxarrez. Tamalez diot bai, baina polita da halere irakasleak dilistek Fe asko dutela esan zietenetik neskatoa eltzekoa ikaragarrizko arre-*

*taz irensten ikustea, beste hainbeste, goizeroko kaltzio dosia. Zu zeuk ere zinez sormen mugagaitzekoa izan behar duzula deritzot, alabak iratzarririk ere ametsetan jarraitzen baitu.*

Zer zen bada, andre koitaduarentzat amets egitea? Baziren asteak begirik batzea lortzen ez zuela. Esna bai, esna ametsak josi egiten zituen, banan-banan eta puntada ñimiñoz. Txinan ekoiztutako produktuei behar besteko balioa eskaintzen zitzaiela irudikatu ohi zuen sarri. "Made in China", ez da kasualitateko perpausa, kausazkoa baizik. Ezin ahantzi Txinak bizitako matxinada, inbasio, iraultza… anitzak. Beste hainbertze enperadore, diktadore, jeneral… igaro direla bere historiatik. Erreforma guzti horiek jasan behar izan dituena entziklopediek aipatzen ez duten herri xumea dela gogoan izatekoa da, agian guzti horrek zaildua. Guda gehienetako moduan han ere herritar langileak dira sustraien alde borroka egindakoak, meritua tituludunei emana bazaie ere. Etorkizun hurbilean bertan produzitutako auto zein etxetresna elektrikoak paisaia europarrean nagusituko dira, oraintsu arteko japoniar nahiz Hego Koreakoei lekua ostuz. Txiripa hutsa, zortea ala sakrifizio askoren ordaina ote da esaldia? Dena delakoa izanik ere, ongi etorri Txinaren arora!

*"Attatto, Olantzero neure lez txinue ete da? Ekarri zandoztezen erregalo danak bertan eiñikuek diez." Haurrak ez dira ergelak, ez horixe! Soinean ditudan jeansak ere "Made in China" eta norbaiten bizitza emeki-emeki errotik atera izanaren eragileak goizeko titularrek diotenez. Pentsatze hutsak ilea lazten dit. Menturaz bizitza-heriotzaren arteko mugara hurbiltzen ari zara zu ere edo apika helmugan zaude. Ez ote naiz ni erantzule behintzat! Eman dezagun oker nenbilela, jostuna beharrean, ofizioz nekazaria zarela. Katiuska parea oinetan eta lastozko txapela buruan marraz-*

*tu behar zintudala arroz soroetan. Edo demagun zure gorputza gizon atzerritarrei diru truk eman beste erremediorik ez duzula izan. Edozein ofizio bezain duina izan daiteke, egoera ezagutu behar da. Batzuek osasuna saltzen dute, birika edo giltzurrun bat bizitzaren hurrengo hilabetea erosteko. Zuk agian, zoriontasuna eta hala bada, bejon dizula ba! Ez lotsatu, jaso burua. Europarrok nahiz yankiak gara gure herrialdeetan aurkitzen ez duguna, maitasun merke, sexu erraz eta zirriekin ordezkatzera joaten garenak. Kontzientzia arazorik izatekotan guk geuk izan behar genuke.*

Irakurle hori, izan al gaitezke lantzean behin bada ere utopiko eta tragiko aldi berean? Napoleonek iragarri zuenez mundua dardaraziko zuen dragoia ezkutatzen zen Txinan. Guk nolanahi ere, produkzio guneak erruz estatu gorrian eraikitzea deliberaturik iratzargailua ipini genion munstrotzarrari. Eta Harresi Handia mundutik babesteko eraiki zuten arren, bera gurutzatuz europar nahiz amerikarrak ahultzen ari dira jada. Ez ote genuen iratzargailua gure erosotasun ekonomikoaren heriotzarako programatu?

Maoren aberri gorria kapitalismorantz darama egungo gobernuak bere mesedetan. Indar ekonomikoaren epizentroa Ipar Amerikatik Ozeano Bareaz beste aldera doa txinatarren izerdiaz. Ezin jakin alabaina indiarren jarioa ere horren erantzule izango den etorkizunean, oraindik neurri apalagoan izanagatik boterea metatzen ari baita emekiro. XXII. mendeko Julio Cesarrek, Bushen bilobak akaso, Asia ekialdean arma nuklearren presentzia aldarrikatuz mantenduko ote du AEBen nagusitasuna?

*Karaktere gabeko SMSak bidali dizkizut, helbide barik emailak igorri, alabaren berri emanaz. Berari aldiz zure*

*ahotsaz errima gabeko bertsoak abestu dizkiot. Irudikatu lez erretratatu zaitut, imajinazioaren fruitu diren lanbideak ezarri dizkizut eta Zu ( ) izenaz bataiatu. Alaba lapurtu genizun, baimenaz agian, baina gurekin eraman. Alferrik izanen da ziurretik zeinen errudun sentitzen garen aitortzea, berekoikeria hutsa dela pentsa zenezakeelako. Zurikeria nolabait esateko. Ahal den neurrian ama alaben arteko hurreratzea soilik dugu helburu. Hori da eskutitz honen bidez zugana zuzendu izanaren arrazoia.*

*Zor dizugun poztasun zatitxo batto helaraziz agurrik ez. Laster arte,*

*Maddi,*
*Miren*
*&*
*Peru*

Berant, arras belu, beranduegi...
zordun sentipenentzat.
Zelulen inbasioak gaina zion hartu
Beltzez zizelkatutako nahiak, desirak, asmoak…
Urteen joanak gris bilakatu
azkenik garden
baina sekula ez ziren galdu.

# PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Labirinto biluzia

Blanca Garcia Cengotitabengoa
Armentia ikastola
Gasteiz

Atea itxi zenuen bortizki, atzera begiratu barik, eskulekua okertu ere egin gabe. Akaso, labirintoan barrena sartu zinen ihes egin nahi zenuelako, nigandik aldentzeko gogoz beterik... Batek dakizki zure ekintzen zergatiak! Baina urriko arratsalde horixka hartan, zuhaitzak biluzik geratu ez ziren udazken hartan, jada nire bihotzak senti zezakeena ez zitzaizun axola. Eta hantxe utzi ninduzun, labirintoaren bestaldean, zuretzat egunsentian hartutako arrosa gorria eskuan eta malkoak masail zailduetatik jausten zitzaizkidala, zure bila…

Bakarrik nengoen eta hala sentitzen nintzen. Minutu erdi ere ez zen igaro izango baina dagoeneko besarkada bero haien falta nabaritzen nuen, hipokresiaz beteriko zure ezpainen musuak, laztan grisak… Eta musu eman nion arrosa gorriari, zuk jasoko zenuelakoan. Esperantzaz beterik.

Negar tantek utzitako kresalak ate beltza zabaltzera gonbidatu ninduen, beldurrik ez izateko xuxurlatuz, zortzi urteko neskatila banintz bezala. Arrosa lurrera erori egin zitzaidan bihotzak emandako jauziaren ondorioz, nire zain urdinek

zeroaten urduritasuna gehiegizkoa baitzen. Apur bat lasaitu ostean, eta aginduari jarraituz, atea ireki nuen emeki, kobazuloko txoriak ez esnatzearren. Hamaika aldiz oihukatu nuen zure izena, baina hamaika oihartzun maltzurrek zu han ez zinela ohartarazi zidaten, jada zure bidea hautatuta zenuela.

Amorrua eman zidan horrek.

Labirintoarekin topatu nintzen orduan, aurrez aurre. Bide posible guztiak hobeto begiztatzeko asmotan, soa altxatu egin nuen. Hiru korridore zeuden eta berdin-berdinak ziruditen hirurek. Bakarra aukera nezakeen, alabaina, bide estu bakar batek zugana eramango ninduelako. Ehuneko hogeita hamahiru koma hiruko (eta infinitura doazen infinitu hiruko) aukera nuen asmatzeko, hogeita hamahiru koma hirukoa zure usain goxoaz berriz ere gozatzeko, hogeita hamahiru koma hirukoa… Soilik.

Kostata baina azkenean lehenengo korridore distiratsua aukeratu nuen, besterik gabe, fenomeno ezezagunen (nire ustez, behintzat) bati men eginez. Eta sartu egin nintzen, itxuraz presa handiegirik gabe, baina bihotza hankak baino aurrerago zihoala nabarituz, lasterketaren garaile bilakatu nahian edo. Aurrera pausu bat eman nuen orduan, aurrera pauso zail erabakigarria. Ondoren, bigarrena eman nuen, eta haren ostean, hirugarren pausoa, eta laugarrena gero, eta bosgarrena… Zenbat eta gehiago ibili, orduan eta errazagoa suertatzen zitzaidan aurrera egitea, lehenengo korridore hartako hasierako puntutik aldentzea, txori beltzen kantu desatseginak atzean utzirik.

Bat-batean, zure irudiak inbaditu ninduen, eta begi lotsagabe berde haien begiradak nire bi begi gosetuei begiratu zien, ezer esan gabe, guztiz mutu. Burua ezkerretara biratu

zenuen, nekez, jolasak dagoeneko dibertituko ez bazintu bezala. Ni, berriz, keinua ulertu ere egin gabe, nire tokian irmo mantendu nintzen, goizaldeko haize gaztearen ferekekin gozatuz. Eta elkarri begiratu genion berriz ere. Eta oraingoan ez zenuen keinurik egin, ez eta hitzik esan ere. Besterik gabe, halaxe geratu ginen ene pentsamenduetan barrena, ordu laurden luzean…

Saguzar baten hegaldiak eraman ninduen errealitatera berriz eta, beraz, aurrera jarraitu beharrean sentitu nintzen, bidexkaren amaieran aurkituko zintudalako ustez. Baina, usteak erdia ustel… Bukaerara iritsitakoan aukeratzea tokatu zitzaidan berriro ere. Oraingoan bi bideren arteko hautaketa zen, errazagoa beraz. Dena den, zure arrastorik inon topatu ez eta zalantza sortu egin zitzaidan. Ez nien, ordea, fenomeno arraro samarrei merezi ez zuten kasurik egin. Nire ardatzarekiko birak eta birak eta birak emateari ekin nion… jausi nintzen arte, hogeita hirugarren bueltan, hain zuzen ere, lur hezera erori nintzelako.

Min hartu zuen ene gorputz osoak.

Buruz behera etzanda, bigarren bideari begiratzen geratu nintzaion, burua oraindik ere biraka nuelarik. Eta orduantxe erabaki nuen korridore harexek eramango ninduela zuganaino, hari begira erortzea seinale bat izan zitekeelako eta seinaleak, askotan memelokeriak diruditen arren, aintzat hartu beharreko fenomenoak dira. Kaka zaharra...! Fenomenoek harrapatuta aurkitu nuen neure burua berriz ere. Hala ere, ez nintzen gehiegi larritu. Egia esan, berdin zitzaidan.

Hautatu berriko korridorean barrena nindoala, labirintoa lehenengoz ikusi nuen egunarekin gogoratu nintzen. Hotz

egiten zuen kanpoan, abendua hilzorian zegoenez. Eskua heldu zenidan elur maluten artean gal ez nendin eta kobazulorantz zuzendu genuen noranzkoa, pinudiak gibelean utziz. *"Zurekin konpartitu nahi dut labirintoaren ezagutza, Jone"* esan zenidan, kobazuloko atea zabaltzen zenuen bitartean. Nire ahots-kordak tentsioan jarri ziren zeri buruz ari zinen galdetzeko prest, baina bibratzen hasi beharrean, bat-batean lasaitu egin ziren, apur bat itxarotea gehiago komeni zitzaidalako, edo beharbada ustekabeak atsegin nituelako. Sekretua ikusi bezain pronto, harridura oihu entzunezin bat atera zen nire ezpain artetik… Horixe labirinto bat espero ez nuela! Eta, ene esku izoztuari oraindik ere eutsiz, barnera egin genuen salto, elkarren ondoan, esploratzaile bilakatzeko gogoz beterik…

Egun hartan eman zenidan azken musu zintzoa.

Bide zuzena hartu ei nuen galdetu nion neure buruari gero, bigarren korridore hura bukaezina iruditzen ari zitzaidan eta. Ez nuen, halaber, amorerik emango. Bizpahiru ordu neramatzan oinez, eta ez nuen orain atzera egingo… Ez horixe. Soineko berriaren behealdea busti-busti egina zegoela konturatu eta pena sentitu nuen. Izan ere, zuretzat erosia zen, ikusgarria suertatuko zitzaizulakoan. Baina, agi denez, ez zen zure gustukoa izan… Hantxe utzi baininduzun, kobazuloan bakarrik, arratsalde zoragarria izan behar zuen horretan.

Sentimenduak ez bezala, giharrak ahultzen zihoazkidala susmatu nuen, progresiboki, urrats bakoitzarekin indarra galduz. Azukre erreserbak agortuak nituen eta zama ikusezin baten pisua nabaritzen nuen bizkarraldean, uneoro karga bikoizten zuelarik… Beste irtenbiderik topatu ez eta egoera jasangaitz hura konpontzeko desioz beterik, soineko beltza

kentzea erabaki nuen. Lasaiago sentitu nintzen orduan, gorputzeko zelulen erdiek alde egin izan balute bezala. Soinekoa kontu handiz tolestu nuen, zuk aurkituko bazenu zimurrik behintzat ez antzemateko. Eta biluzik jarraitu nuen aurrera, oihal beltz ikusgarriari *"adio"* esan ostean.

Ordurako, nekeak inbaditua nintzen. Egoera hark konkistatu berri ninduen eta ezinezkoa suertatu zitzaidan bere kontra egitea. Gudaroste handiegia zuen, dudarik gabe... Belaunak dardarka hasi eta segituan erori nintzen lurrera, labirintuko lokatz hezera. Harea partikulak ene gorputzera itsatsi eta haien kolorekoa izatera behartu ninduten, nik azal zurikoa izaten jarraitu nahi nuela behin eta berriro errepikatu nien arren.

Arrastaka higitu behar izan nintzen une hartatik aurrera, sugeek egiten duten moduan, narrasti lehor horietako bat bilakaturik. Ez zitzaidan amorerik emateko energiarik geratu eta, beraz, bidexkatik jarraitzea erabaki nuen.

Zu, eta berriro ere zu nire pentsamenduen protagonista...

Nazka eman zidaten besoek, zikin haiek, lokatzez josirik nabaritu nituenean. Nazka eman zidaten hankek, eta sabel erdiko zilbor kiribilduak, eta bular biluziek... Gorputzeko atal guztiek, den-denek.

Azkenean, korridore amaigabe haren amaierara heldu nintzen, berriro ere aukeratzeko unea iritsi baitzitzaidan. Lau bidetan banatzen zen labirintoko pasilloa oraingoan... Zu aurkitzeko aukerak gutxiagotuz zihoazen hautaketak burutu ahala eta horrek are gehiago urduritzen ninduen. Ezinegonak jota, lehenengo bidexkari erreparatu nion.

Hutsik zegoen, zeharo abandonatuta, aurrez ibilitako guztiak lez. Bigarren eta hirugarrenak antzekoak ziren ere, nahiz eta azken horren iluntasuna ilunegia izan. Laugarrenean, ostera, itzal bat ikuskatu nuen, paretaren kontra eserita, nigandik berrogeita hamar bat metrora. Begirada pixka bat zorroztu nuen gizakiren bat ote zen jakin guran, jada mugitu ere egin ezin nintzelako. Eta, ustekabean, itzalak kantatzeari ekin zion… Zure kantarik gogokoena abesten hasi zen, elkar ezagutu genuenean kantatu zenidan hura… Hara, zurea zen irudi grisa! Zurea, laztana…!

Baina ezin izan nintzen mugitu, ezin izan nuen zugana korrikarik egin, ezin izan zintudan besarkatu… Gihar ahulek ez zidaten ene desio horiek guztiak betetzen utzi. Hantxe geratu behar izan nintzen, zuri begira, bidexkaren ahoan, bihotz tristeak noten erritmora dantzatzen zuen bitartean… Hantxe geratu zinen zu ere, aurkitu zintudan toki berean, abesti bera kantatzen. Eta ez zinen nigana hurbildu, neure deiak entzun zenituen arren…

Zerbait agertu zitzaizun esku artetik. Gorria zirudien, zure ezpainen kolore berekoa. Sudur aldera eraman zenuen, usaintzeko asmoz, baina labirintoko kiratsa gogorregia zen horretarako… Lurrean laga zenuen gero, burua horma hezearen kontra jarriz. Zirrikituren batetik haize zurrunbilo bat sartu zen orduan eta, haren indarraren eraginez, zugandik zetorren arrosa-orri bat pausatu zitzaidan ondoan, egunsentian zuretzat hartutako arrosa gorriaren orrietako bat.

Eta begiak itxi nituen, begirada malenkoniatsu hark hil ez zintzan.

# Irri beltzak ez du irri izena ere merezi

Blanca Garcia Cengotitabengoa
Armentia ikastola
Gasteiz

Ke usaina antzeman du zure sudur ttipi zapalak. Amari begiratu diozu, erantzun bila, baina burua laztanduz ihardetsi dizu berak, egun hartan hitzak aire gris astunak eraman dituelako. Itotzen hasia zara jada. Jende gehiegi duzu inguruan (zure adinekoak, nagusiagoak, nagusi horiek baino nagusiagoak oraindik…), eta guztiak ari dira alde batera eta bestera euren lepoak luzatzen, zerbait ikuskatzekotan; ahaleginak egiten, behintzat. Zuk ez kezkatzeko esan nahi diezu, horretan energiarik ez agortzeko, amak esandakoaren arabera glukosaren prezioa dezente igo delako azkenaldian. Baina mutu geratu zara, egun hartako aire grisak hitzak eraman dituelako...

*Pum! Pum! Pum!* Bakeroek egin ohi duten soinu sikua entzun duzu, urrunean, indioak hainbeste beldurtzen dituen eta bakeroei hainbesteko grazia egiten dien zarata hura. Ingurura begiratu eta jendea dardarka dagoela antzeman duzu, indio kakati haien antzera. Zuk, ostera, bakeroen papera nahiago eta barrez hasi zara, eurek egiten duten moduan. Indio gehiegi nabaritu duzu inguruan, alabaina. Albokoen (amarena barne) so deserosoak sentitu dituzu zure gain,

bakoitzetik gezi zorrotz bana irtengo balitz bezala. Eta serio jartzea erabaki duzu orduan, lastozko kapela lurrera botaz, guda amaitutzat emateko asmoz.

Inolako esfortzu minimorik egin gabe, bat-batean ibiltzen hasi zara, jende pilo hark aurrera eramaten zaituelarik. *Hauxe bai erosoa!* pentsatu eta atzeraka erortzen utzi diozu gorputzari, jendeak eutsiko zaituelakoan baitzaude. Baina, iragarritakoak funtzionatu ez eta haitz gogor itsusien gainera erori egin zara, min hartuz. *Ama, arren, lagun iezadazuuu…!* Oin batek ostikoa eman dizu eskumako hankan, beste batek gero, eta beste batek… Zapalduta sentitu zara. Zure adinekoak, nagusiagoak, nagusi horiek baino nagusiagoak oraindik…zure gainetik pasatzen antzeman dituzu; amaren arrastorik, ordea, inon ez.

Konturatu zarenerako, tren batek kondenatzen zaitu jada. Sartu orduko, herritarrei errua botatzeko gogoak eman dizkizu, ez baitizute esertzeko tokirik utzi. Baina bertan ordu erdiz egon ostean, eserlekurik gabeko trena dela sumatu duzu. Animaliak garraiatzeko ote den pasa zaizu burutik, lurrean dagoen lasto horixka mordoa dela eta. Dena den, segitutan errefusatu duzu ideia hura, zu inolako animaliarik ez zarelako (nahiz eta askotan amak tximinoarekin parekatu zaituen).

– Aizak! Aldenduko al duk hire besoa nire tripatik, faborez? –eskatu dizu, agindu eran, zure alboko gizonak.

– Barkaidazu, jauna…

Urduri daude denak. Urduri zaude zu ere, ama topatzen ez duzulako eta urduri ere egongo da ziurrenik ama, galdu berri zaituelako. Gainetik kentzeko eskatu dizun gizonari bere ezinegonaren kausak galdetu gura dizkiozu, baina horrelako

beste haserrez josiriko esaldiren bat entzuteko beldur zarenez, zure ezpainek ez dute hitzik ahoskatu. Gainera, tren zaharkitu marroi hartan hitzek ez lukete hegan egiteko nahikoa tokirik izango eta, zuk behartu arren, ez lukete ahots kordetatik kanpoko inolako dantzarik egingo. Gizonarengandik aldentzen saiatu zara, baina alferrik. Besteen ipurdi, beso, hanka, bizkar eta sabel gosetuek ez dizute horrelakorik egiten utzi. Hastapenez, preso aurkitu duzu zure burua.

Bihotzean sentimenduak korapilatu zaizkizula sentituz begiak itxi dituzu, segundo batzuetan besterik ez bada ere tren zaratatsu hartatik ihes egiteko…

Itsumustuan, bagoi guztiak gelditu egin dira, hotzikara eragin dizun soinu desatsegina sortuz. Leihotik begiratzea lortu duzu, garaiera handiko mutikoa ez zaren arren. Bi malkok zeharkatu dizkizute masail gorrixkak. Bi negar tanta lotsagabek… Gose zara. Kristal grisaren bestaldeko paisaia ez da apopilo berriak agurtzera atera. Hantxe geratu da, irmo, hauts lodi zikinaren mozorroa soinean. Ez dituzu espero izandako lore more, urdin, horiak ikusi, ez eta ume alaiak jolasean ere. Desertu beltzera eraman ote zaituzten galdetu diozu zeure buruari, baita bertan gamelurik egongo ote den ere. Izan ere, zure ametsetako bat bi konkordun gameluen gainean ibiltzea izan da betidanik, izen arraro samarra duten horietan, hain zuzen ere (amak irakatsi zizun behin nola deitzen ziren, baina orain ez zaizu izena burura etortzen…).

Eskumako oina lur berrian pausatu ostean, ezkerrekoa jaitsi duzu trenetik. Harea beltza behatz artetik kamuflatzen nabaritu duzu, oinetakoak aurretik, albo batetik, bestetik…urratuak dituzulako. Kilimak eragin dizkizute pikorrek eta bakeroen hotsekin bezala, irribarre egin dute zure ezpain arrosek, zure ezpain arrosa gosetuek. Tartean,

treneko bederatzigarren atetik egurrezko txabola bateraino-ko ilara luzea sortu da. Bertan, umore txarrekoa dirudien gizon bat ikusi duzu, altua, ile horiduna eta zilar koloreko sei txapa edo trajearen goialdean daramatzana. Zorte handiko gizona dela xuxurlatuz eta bere haserrearen zergatia ulertu gabe (hainbeste txapa izanda zu ez zinateke horren haserre inoiz jarriko, egoerarik okerrenean ere), aurrera pauso batzuk eman dituzu, ilarako gainontzeko lagunen erritmo urdurian: *bat, bi, bat, bi…*

Ez da zure aurrean inor geratzen. Atzean, beldurrez tindaturiko ilara amaigabeak jarraitzen du. Une batez, inportantea sentitu zara. Izan ere, hantxe zaude zu, sei txapa daramatzan soldaduaren parean eta milioika lagun gibelean dituzula. Soldaduaren begiradak goitik behera miatu zaitu, baita behetik gora ere. Pentsakor geratu da hiru bat segundoz eta, ondoren, besoa zaku multzo baterantz luzatu du.

– Links! –oihukatu eta txistua jo du ondoren. *Gor gaudela uste al du ala?* Galdetu diozu zeure buruari, erabat harrituta. Ordura arte amak baino ez zizun holako oihurik bota! Dena den, oihartzun bortitzari men eginez, zaku multzora zuzendu duzu noranzkoa, gainontzekoek bezala lanean hasteko prest.

Arras gogorra suertatu zaizu lana… Zakuak gora, zakuak behera, berriz ere gora… *Ez al dugu atseden hartzeko unerik izango?* Beno, seguruenik, afaltzeko platerkada bat babarrun ogi samurrarekin emango dizuetela pentsatu duzu, hainbesteko lanak saria merezi duelako… Hala ere, ez da horrela izan. Arratsaldeko zazpietan, kilkerrek kantatzeari ekin diotenean, koltxoi zaharkituan etzan zara, zeharo nekatuta. Zure alboko nerabeari, ohe erdia soberan zenuela konturatu denean, ezpain artean irri bat marraztu zaiola nabaritu diozu, irri

urdin bat. Berak ere barretxoa antzeman du zure ahoan, irribarre morea. Eta, pixkanaka, gela osoa irriz betetzen joan da: barre horiz, gorriz, laranjaz… Sabel gosetu baten zurrumurruak apurtu du alaitasun atmosfera hura. Zurea da, hain zuzen, marmarka dabilen tripa. Zurea. Begiak ixten ahalegindu zara… Azkenean, afariarekin amesten hartu zaitu loak, eta esperantzak bertan iraun du, zure ideiekin batera igerian, kilkerren *kri-kri*-aren erritmora dantzan…

Antzekoa izan da hurrengo eguna ere, eta hurrengoaren hurrengoa, eta hurrengoaren hurrengoaren hurrengoa… Igualak. Amaren falta gero eta nabariagoa da. Gauero negarrez lokartzen zara, malkoek haren irudia aurkituko dutelako esperantzaz josirik… Baina gauero lurrundu egiten dira tantak, sufrimenduaren arrastorik utzi gabe.

Uso zuri distiratsu bat gelako leihotik begira antzeman duzu; zelatan dagoela dirudi. Hain toki zikinean, haren garbitasunak erakarrita berarekin hitz egitera hurbildu zara. Ama nonbait ikusi duen da egin diozun lehen galdera, horixe baita zerrendako guztien artean garrantzitsuena. Izan ere, ama alboan, ez duzu beste edozer galdetzeko beharrik izango, galdera guztien erantzunak amak dituelako (sakelan, zorroan, burmuinean, (berak dioenez)…), batzuetan ulergaitzak suertatzen bazaizkizu ere. Amari galdetuko zenioke, beste askoren artean, non zauden, zergatik, noiz aterako zaituzten hesi multzo hartatik… Baina ama ez duzu alboan eta usoak, zikinkeriarik izan ez arren, galdera horiei guztiei erantzuten ez dakiela ematen du. Dena den, horrek ez zaitu batere harritu, erantzun guztiak amaren sakelan, zorroan, (burmuinean?)…gorderik daudelako, salbu.

Dagoeneko hilabete oso bat igaro da lur latz hura lehenengoz zapaldu zenuenetik; egia esan, ez zaude guztiz ziur

horretaz. Apaizak orain dela hiru hilabete oparitutako egutegia trenean galdu omen zenuen, zure eskuek ez baitute poltsikoan topatu. Amorrua eman dizu horrek, atzealdeko amabirjinak amaren izen bera zuelako… "*Jungfrau Marie*".

Eguneroko lana dela eta, porru eginda dituzu giharrak. Zakuak gero eta pisutsuagoak dira, barruko harrien dentsitatea bikoiztu, hirukoiztu, laukoiztu balitz bezala. Bestalde, hainbat gelakide desagertu dira azkenaldian, oso era misteriotsuan (irratiko sailetan gertatzen den modu berean), aurretik ezer esan barik. Abisatuko balute, behintzat…! Baina ez, hantxe uzten zaituzte, ohar ziztrin bat ere idatzi gabe, haien hutsunea sentituko duzula ohartu ere egin gabe… Ez zaizu bidezkoa iruditzen.

Soldaduak deitu dizue, hots eginez. Korrika batean gelatik atera eta, bata bestearen aldamenean kokatuz, lerro luze bat osatu duzue, hogei bat metroko lerroa. So guztiak ostertzeko puntu berak bildu ditu, lurralde hartan egunero egiten duen moduan. Onarpen keinuarekin begiratu dio soldaduak zuzenari, ondo egina balego lez. Zuk eskolan luze eta zuzenagoak eratzen dituzuela esateko gogoa izan duzu, baina beste hainbatetan bezala, isilik geratzea komenigarriagoa iruditu zaizu. Lerro traketsetik zehar ibiltzen hasi da soldadua, lasaitasun handiz, gizon bakoitzaren bizkarraldea ongi aztertuz. Dardarak antzeman dituzu albokoen gorputzetan. Zu, ordea, lasai zaude, seguruenik joko berria ezagutzen ez duzulako… *Pum!* entzun eta ilarako bosgarren mutikoa lurrera zapla jausi dela ikusi duzu. Lokatz zikinak gorputza busti dio… Trena hartu zenuten eguna gogora ekarri dizu hotsak, ama azkenekoz ikusi zenuen eguna, hain zuzen. Gainontzekoei beldurra islatu zaie aurpegian. Zurean, aldiz, irri bat agertzekotan egon da, bakeroen talde-

koa zarelako, berriro ere bere burua indioz inguratuta aurkitu duen bakeroen multzokoa... Hala ere, apur batean ezbaian ibili ostean, barreak berak ez islatzeko erabakia hartu du, tupust egin berri duen lagunaren omenez. Beste *pum!* bat aditu dute zure belarriek orduan eta bederatzigarren mutikoak estropezu egin duela begiztatu duzu. Oraingoan irriak ez dira kanporatzen saiatu ere egin, eurak ere (zu bezala) beldur direlako. Ezpainetan ezkutaturik geratu dira barre moreak, urdinak, horiak, orlegiak… Beltza da zure ahoan irudikatzeko ausardia izan duen bakarra, baina irri beltzak ez du irri izena ere merezi…

*Pum!* Eta huraxe izan da entzun duzun azken hotsa… *“Arbeit Macht Frei”* goialdean idatzita duen ate beltzetik ihes egin du, mundura zabalduz, gizartea esnarazten saiatuz… Alferrik, ordea.

# Audrey

Maite Jauregi Serrano
Azpeitiko ikastola - Ikasberri kooperatiba
Azpeitia

– Jean-Paul! Zeren zain zaude? Jaitsi, ez gara gehiago zure zain egongo!

– Bai, banoa.

Eguzkia alai zegoen han goian zintzilik, zeruan galdutako txanpon bat bezala. Izpiak leihoko beira lodiak zeharkatu eta Jean-Paulen aurpegian gelditu ziren. Zast! begiak ireki zituen bat-batean, erlojua begiratu eta altxa egin zen ohe bigun eta berotik. Leihora hurbildu eta ireki egin zuen. Begiak txiki-txiki eginak zituela udaberriko haizea bere ile tartetik zeharkatzen sentitzen zuen bitartean betiko egoera ikusi zuen bere ezti koloreko begi bizien aurrean: bere lagunak behetik oihuka, amonak arrandegikoekin eztabaidan, neskak sokadantzan, emakumeak konpotarako sagarrak zuritzen aihen zabalen azpian, aitonak purua erre eta petankara jolasean... huraxe zen bere herria, Ledoux. Hau guztia bere etxe aurreko plazan gertatzen zen udaberri eta udako arratsalde guztietan. Gogotik maite zuen Jean-Paulek bere herria.

Leihoa itxi eta galtzak eta tiranteak jantzi zituen alkandora zimurtuaren gainetik. Ondoren, korrika irten zuen pasilo-

rantz. Tupustean gelditu zen paretan zintzilik zegoen argazki bat begiratzen, sarritan egiten zuen bezala. Han ageri zen familia guztia: aitona, amona, lehengusuak, osaba-izebak… argazki hura bi urte lehenago ateratakoa zen eta ordundik gauzak asko aldatu ziren. Aitona hilda zegoen jada eta amonak ez zeukan ordungo alaitasun hura. Arropetan jarri zuen arreta, txukunak ziren baina inolako luxurik gabeak. Jean-Paulen familia ez zen oso aberatsa, baina mutikoa pozik bizi zen Frantziako herri txiki hartan. Ez zituen luxuak eta plazer handiak ezagutzen: ez bitxirik, ez auto dotorerik, ez kabiarrik… Bitartean bizitzako plazer txikietaz gozatzen ikasi zuen: neguan etxera itzulitakoan amonaren salda beroa hartu, larunbatetan beranduraarte lo egin… eta horrekin nahikoa zuen. Mutiko zintzo eta xaloa zen gero.

Eskilerak korrika jaitsi zituen, amaren eskuartetik txokolate ogitartekoa hartu eta kanpora irten zen lagunengana joateko.

– Salut, ca va?

– Kostatu zaizu iristea, lo gelditu al zara? – galdetu zuen burlaka Pierrek.

Pierre Jean-Paulen lagunik onena zen. Alaia, bizia eta bihurria, lagun talde osoa arazotan sartzen duten horietakoa. Orraztu ere ez zen egiten eta aste osoan zehar arropa berdinak erabiltzen zituen. Astelehenetan txukun eta ostiraletan narrats, Pierrek etxetik ihes egin eta beti topatzen zuen tarteren bat lagunekin jolasteko. Bere aita gizon baldar, lodikote eta erretxina zen. Emazteari etxean lan egiteko eskatzen zion eta semeari, hari laguntzeko. Bitartean Ludovicek, hala baitzen bere izena, lanean ziharduen tailerrean. Ostiral gauetan mozkorkerian ibiltzen zen eta Ledouxko herri guztiak

zekien bezala, inguruko putetxe guztiak pasatzen zituen bere emaztearen ondora joan aurretik. Monique emazte fin eta langilea zen, baina inozoa. Bere ustez dena ondo zihoan, denborarekin jendearen zurrumurruei kasurik ez egiten ikasi zuen. Jada ez zitzaion axola besteek esaten zutena, ez zeukan indarrik aurka egiteko, zeharo koldarra zen. Baina hau guztia ez zen bere errua, Ludovicek koldartu zuen, isilik egoten erakutsi zion, mehatsuekin batzuetan eta kolpeekin besteetan. Moniqueri gelditzen zitzaion gauza bakarra Pierre zen. Jean-Paulek askotan galdetzen zion bere buruari Moniqueri zer gertatu ote zitzaion horrela bukatzeko. Iaz joan zen Stephanierengana, herriko biztanle zaharrenarengana, solasaldi bat izatera. Hark kontatu zion Monique txikitan neska bihurria eta pixka bat buruarina zela. 18 urte zituela kanpotar batekin maitemindu eta ezkondu aurretik haurdun gelditu zela. Umea izan zuen eta bere familiak haserre bizian Ludovicekin ezkontzera behartu zuten. Handik sei urtera, Bigarren Gerra mundialean kanpotarrari frentera joateko eskatu zioten eta gehiago ez zen berataz ezer jakin. Monique gaixoak umea umezurtztegian utzi zuen jaio zenean, bere senarrak ez zuelako onartzen. Kanpotarra ez zen bueltan itzuli gerra bukatutakoan. Huraxe zen Moniquen istorioa baina Jean-Paulek ez zion inoiz ezer kontatu Pierreri, ez baitzituen bere sentimenduak urratu nahi.

– Lelotuta al hago? Motel mugitu hadi bestela lekua harrapatuko zigutek eta ezingo diagu futbolean aritu. –esan zuen Pierrek Jean-Paul bere pentsamenduetatik ateraz. –

Plaza erdialdera joan, jertseak ate bezala jarri eta jolasean hasi ziren. Eta han zegoen egunero bezala, aurpegi hitsarekin ezerrezera begira, bere begi ilunetan tristura sakona nabari zelarik. Esku finak iztarren gainean zeuzkan jarriak,

soineko zuriaren gainean. Egunero han eseritzen zen, eserleku berean euria egin edo bero latza jasan beharra izan, egunero han zegoen aulkian jesarrita, eserlekuaren zaintzaile leial bat bezala. Neskato ilegorria ezaguna egin zen herrian. Denek zekiten zein zen, batzuek `aulkiko neska´ deitzen zioten, besteek `begi sakonena´. Baina inork ez zekien bere benetako izena, ezezaguna zen.

* * *

Udaberria aurrera zihoan eta goizetan ikastolako leihoak zeharkatuz txorien txorrotxioak entzuten ziren. Inork ez zeukan klasea emateko gogorik, ezta irakasleak berak ere. Eguraldi onak kanpoan jolastera gonbidatzen zuen eta horixe egiten zuten Jean-Paul eta bere lagunek. Urtaro hasieratik egiten zebiltzan bezala egun eguzkitsu hartan ere plazara joan ziren bazkaldu eta siesta egin eta gero. Oraingo honetan ezkutaketan jolastea erabaki zuten eta sarritan gertatzen zen bezala Pierreri tokatu zitzaion besteak bilatzea. Amorruaren amorruz marmarka eta maldizio ulertezinak xuxurlatuz paretaren kontra jarri zen kontatzen hasteko. Jean-Paulek bazeukan ezkutaleku berezi bat, beste inork ezagutzen ez zuena. Hantxe ezkutatzen zen gehienetan eta inoiz ez zuten topatzen, azkenean errenditu egiten ziren eta bera bilakatzen zen jokuko garaile. Korrika hasi zen errota zaharrerantz eta inork jarraitzen ez zuela baieztatu zuenean barrura sartu zen. Armiarma sare bat edo beste kendu eta koxka batean eseri zen zain, nahiz eta jakin ez zutela aurkituko. Gora begiratu zuen eta ohi bezala saguzarrak eta hautsa besterik ez zuen topatu.

Ordu bete pasa zen, jada oso aspertuta zegoen ez zeukan egitekorik han, baina ez zuen nahi arriskatzea eta kanpora irtetea. Ordu laurden barru, lagunen ahotsak entzun zituen.

Pierre zen eta hogei bat metroko distantziara zegoela antzeman zen. Orain bai ezin zuela irten edo bestela bere ezkutalekua aurkituko zuten.

– Nazkatu gara zure bila. Iluntzearren dago eta gu etxera goaz, nahi duzuna egin! –esan zuen Pierrek ohiuka. Argi zegoen ez zekiela non zegoen Jean-Paul.

Bere lagunaren pausoak entzun zituen urruntzen eta lasaitu eta gero irten egin zen. Uste zuena baino ilunago zegoen eta larrituta etxerantz abiatu zen amaren errietaren beldurrez. Plazara iritsitakoan etxeko leihoetara begiratu zuen. A zer nolako lasaitua hartu zuen sukaldeko argia oraindik piztu gabe zegoela ikusi zuenean, ama oraindik ez zen hasi sukaldean. Garaiz iritsi zen etxera. Begirada bat somatu zuen bere atzean, orpoen gainean buelta eman eta bestalderantz begiratu zuen. Neska ikusi zuen, baina begirada segituan beherantz zuzendu zuen mutikoa berari begira zegoela ohartu zenean. Jean-Paul lotsagabe eta irekia berarengana joan zen eta alboan eseri zen. Esku txikia kopetan jarri zuen ilunabarreko eguzkiak ikustea galarazten baitzion. Orduan argiago ikusi zuen neskatxa, ileak diztira egiten zion errefle-xu gorrixkak botaz eta Jean-Pauli udazkeneko hosto erorien edo egunsentiko eguzki izpien kolore berbera zuela iruditu zitzaion. Azala zuri-zuria zeukan ia gardena eta orbain txiki mordoa masail potxoloetan. Polita iruditu zitzaion. Ia beti bezala soineko zuri bat zeraman soinean. Ez zen ausartzen berari aurpegira begiratzen, baina Jean-Paulek ez zuen etsi, neska hark bazeukan zerbait benetan liluratzen zuena.

– Kaixo, Jean-Paul naiz – aurkeztu zen eskua luzatuz.

Ez zen erantzunik izan.

– Beno nahiago baduzu ez dugu eskua emango helduek bezala, baina edukazio falta izango litzateke zure izena ez esatea.

Oraingo honetan ere isiltasuna nagusitu zen bi umeen artean.

– Ikusten dut ez zaudela umoreko, beste egun batean ikusiko gara –hasperen eginez mutikoa aulkitik jaiki zen bere porrota onartuz.

Azken begirada bat bota zion neskari erantzun baten zain. Ez zen halakorik gertatu. Buelta hartu eta etxerantz joateko prest zegoela ahots mehe eta fin bat aditu zuen bere atzean, mantekilazko ahots bat ematen zuen:

– Audrey

– Nola? –buelta eman zuen Jean-Paulek harrituta.

– Nire izena Audrey da, ez dut nahi zuk edukaziorik gabeko andereñoa naizela pentsatzea.

– Atsegina izan da zu ezagutzea baina beste batean hitz egin beharko dugu, agur.

Ez zen erantzunik egon eta mutikoak gehiago zain egon gabe buelta hartu eta etxera sartu zen neskaren begirada sakonaren pisua bizkarrean zuela. Zerbaitek edo norbaitek esaten zion bere barnean neska hura berezia zela.

* * *

Egunero joaten zen plazara jolasera lagunekin eta han ikusten zuen egunero neska, baina lotsatu egiten zen eta ez

zion kasurik egiten. Ez zuen nahi bere lagunen aurrean neska ezagutzen zuela onartzea. Begiradak botatzen zizkion baina beti behera begira topatzen zuen. Lagunak joaten zirenean neskaren alboan esertzen zen eta hitz egiten zion, baina inoiz ez zuen erantzunik jaso izan. Aurreko egunean esandakoa edukazioz bakarrik esan zuen eta bistan zegoenez ez zeukan berarekin gehiago hitz egiteko asmorik.

Egunero itxaroten zuen bere lagunak joan arte eta gero neska ilegorriaren alboan esertzen zen. Begira gelditzen zitzaion eta bestea berriz beti behera begira egoten zen. Egunak azkar pasatzen ziren eta egunero bankuan esertzeko desiatzen egoten zen Jean-Paul.

* * *

Egun euritsu batean beti bezala lagunekin futbolean jolastu eta gero han gelditu zen bere aterki beltzaren azpian. Hogei minututan itxaron zuen baina neska ez zen azaldu. Harrigarria iruditu zitzaion, beti ordurako azaltzen baitzen. Euritan gelditu zen bere amak leihotik deitu zion arte.

* * *

Hurrengo egunean larrituta azaldu zen eserlekura, neska ez ote zen azalduko beldur zen. Baina han zegoen lagunekin jolasten hasi zenerako. Ilunabarrean bere alboan eseri zen eta begira gelditu zitzaion.

– Zergatik ez zinen azaldu atzo? – galdetu zuen Jean-Paulek.

Isiltasuna berriz ere. Mutikoa nazkatuta zegoen neskaren isiltasunaz.

– Aizu baina zer gertatzen zaizu?– amorruz beteta zegoen. Zure laguna izatea nahi dut.

Ezer ez, erantzunik ez.

Minutu batzuk ezer esan gabe gelditu ziren ohi bezala.

– Ikusi al zenuen atzo gizon ilegorri bat plaza inguruan? – galdetu zuen neskak bat-batean. –

Ustekabean harrapatu zuen Jean-Paul galdera hark, bere ahotsa aspalditik entzun gabe zegoen, bere izena esan zion hartatik.

– Ez nuen ikusi horrelakorik– esan zion azkar, ziur baitzegoen.

– Ziur al zaude?

– Bai, ez daude herri honetan ilegorri asko, baina zergatik daukazu horrenbesteko interesa? – galdetu zuen Jean-Paulek Audreytaz zerbait gehiago jakin nahian.

– Ondo da, gaur edo bihar etorriko da.

– Ah! Norbaiten zain al zaude? Denbora gehiegitxo daramazu itxaroten, ordu asko, egun asko, ez iruditzen?

Ez zen hitz gehiago egon bien artean.

Audreyk hitz gutxi esaten zituen baina nahikoa zen Jean Paulentzat. Laster eserlekuko elkarrizketak edo bakarrizketak oso garrantzitsu bihurtu ziren bere bizitzan eta laster konturatu

zen baita ere, neska hari kontatzen zizkiola bere sentimentu sakonenak, agian bazekielako inori ez zizkiola kontatuko.

Etxera itzuli zenean amak prestatutako afaria jaten hasi zen, aita, ama eta amona isilik jaten ari ziren eta aitak elkarren arteko hoztasun hura mozteko irratia piztu zuen.

*`Gabon eta ongi etorri gure gaueko albistegira. Titularrak:*

*Gerra bukatu zen baina oraindik Hitlerrek eta bere ejertzitoek lagatako aztarnak azaltzen dira. Gure estatuko iparraldean hobi komun bat bilatu dute trenbidearen eraikuntzaren obretan. Ikertzaileek diotenez Dunkerqueko ebakuazioan, 1940an, hildako soldaduak dira…*

Astelehena zen, Jean-Paulek zeharo gorroto zuen egun hura. Eskerrak Audreyren konpania zeukan eguneko azken orduak pasatzeko.

Arratsalde hartan beti bezala eserlekuan elkartu ziren.

– Kaixo zer moduz zaude gaur?– Jean-Paulek galdetzen jarraitzen zuen nahiz eta jakin ez zuela erantzunik jasoko.

Jean-Paul berak ere ez zekien zergatik jarraitzen zuen neskaren alboan, ordubete isilik egonez.

– Atzo entzun al zenuen irratia? – galdetu zion zerbait esatearren. Dunkerkeko ebakuazioan hildakoen hobi komun bat topatu zuten – jarraitu zuen erantzunik egon ez zenez.

Ustekabean Audreyk begiak zabal-zabal egin zituen eta arnasa ezin harturik geratu zen. Jean-Pauli begirada bat bota eta korrika hasi zen. Mutikoak azkar erreakzionatu zuen eta

besotik eutsi zion. Neskak ordea larritasunak ematen duen indarra zeukan eta laster askatu zen. Jean-Pauli Audreyren beso finak ihes egin zioten eskuetatik. Bere alboan edukitzeko azken saiakera batean metalezko bi eskumuturrekotatik heldu zion. Eten egin ziren eta neska korrika urrundu zen.

Ilunabarreko argipean bitxiei begiratu zien. Bata zilarrezkoa zen eta bestea laranja kolorea hartzen hasia zegoen metal puska baldar bat. Azkenengo honek txapa txiki moduko bat zuen zintzilik. `*Saint-Jaume umezurtztegia´* jartzen zuen. Besteak ere antzeko zerbait zeukan,`M*aitasunez Audreyrentzat, G.F. Middleton´* jartzen zuen. Audrey urrunegi zegoen jada eskumuturrekoak itzultzeko. Etxera eraman zituen.

* * *

Hurrengo egunean amari eskolara zihoala esan eta piper egin zuen umerzurztegiaren bila hasteko.

Goizeko ordu haietan herrian aiton-amonak besterik ez zeuden. Umeak eskolan zeuden eta helduak lanean. Setephanierengana galdezka joatea otu zitzaion eta kalexka estuetan barrena abiatu zen.

Stephanie amona maitagarria zen, herri osoan ezaguna. Ile zuri eta luzea erabiltzen zuen txirikorda batean jasoa eta oker-oker eginda joaten zen azokara asteazkenetan. Inork ez zekien zenbat urte zituen edo nondik zetorren. Herriko gehienentzat Stephanie betidanik egon izan zen han, eliza bezala edo plazako zuhaitzak bezala.

Ohi bezala, eguraldi oneko egunetan, amona aulki batean esertzen zen puntua egiten. Jean- Paul hurbildu zitzaionean, jertse arrosa bat zuen eskuartean.

– Kaixo, egunon Fanny – aspaldi honetan Jean-Paulek jendearen izena mozteko ohitura zuen .

– Egunon Paul – erantzun zuen Stephaniek mutikoari jokoa jarraituz– zer darabilzu hemen ordu hauetan? Ez al zenuke ikastolan egon behar?

– Mesedez, ez esan inori hemen izan naizenik bestela txikituko naute etxean- esan zuen ahopean norbait begira edukiko balu bezala.

– Ongi da, baina esaidazu zergatik etorri zaren nigana.

– Hara, ba al dakizu nor den eserlekuko neskatoa?

– Jakingo ez dut ba, beno… bere izenik ez dakit baina badakit nortaz ari zaren.

– Azkenaldi honetan berarekin hizketan aritu naiz eta atzo irratiko albiste baten berri emandakoan korrika alde egin zen. Orduan eskumuturrekoa eten nion nahigabe – azaldu zuen umeak.

– A, eta ze albiste zen ba?– galdetu zuen amonak interesatuta.

– Dunkerken hildako soldaduen hobi komun bat bilatu zutela.

– Hara eta zer galdetu nahi didazu?

– Eskumuturreko batean umezurztegi baten izana jartzen du: Saint-Jaume. Ba al dakizu non dagoen?

– Jakingo ez dut ba, hara mutiko ni herri honetan zure gurasoak jaio aurretik nengoen eta bizitzak asko erakutsi dit. Nik herri honi buruzko den-dena dakit. Hartu iparraldeko bidea eta segi aurrera lehenengo bihurgunean hartu ezkerretara eta aise topatuko duzu bilatzan ari zarena.

– Eskerrik asko, baina ez dakizu dena, ez dakizu aulkiko neskaren izena.

Hau esan eta eskuarekin agurtuz iparraldeko bidea hartu zuen Jean-Paulek.

Hogei minutuz ibili zen bihurgunea topatu arte. Ezkerretara joan zen Setphaniek esan zion bezala eta segituan bilatu zuen umezurztegia. Eraikuntza gris eta triste bat zen, hesi batez inguratua. Hesian burdinezko ate erraldoi bat zegoen eta honen aurrean autoentzako zirudien hondarrezko bide bat eraikuntzako ateraino. Ate aurrean, biribilgune txiki bat zegoen lehortutako lore more batzuekin. Bidearen alde banatan lorategi txiki batzuk zeuden, zuhaitz, lore eta iturriekin. Inor ez zebilela konturatu zenean erdoilak jotzen hasitako hesia kanpotik inguratzen saiatu zen. Sastraka batzuk pasa eta atzeko aldea ikustea lortu zuen. Atari zabal bat zen, lurrean kinkirrinean aritzeko lekuak zeuden, bakoitza kolore desberdinekoa. Jean-Paulek uste ez zuenean txirrin zorrotz batek jo zuen eta atzekaldeko egurrezko atetik neska pila bat irten ziren. Batzuk sokasaltoan hasi ziren, besteak kontu-kontari edo kinkirrinean. Denek soineko zuri berdinak zeuzkaten eta ilea motots batean jasoa. Neska talde bat hurbildu zen orlegi koloreko kinkirrinera eta ia ikusi egin zuten. Sasitzaren atzera joan zen eta bertatik begiratu zuen. Hesiak

nesken aurpegiak ikustea galarazten zion baina atariko jendetzaren artean ilegorri bat ikusi zuen. Hura Audrey izan behar zuen, dudarik gabe. Burua pixka bat altxa zuen eta atarian neskez gain mojak zeudela begiztatu zuen. Bere ezkutalekua alde batera utzi eta makurtuta sastraken atzetik sarrerara itzuli zen. Han ez zegoen inor eta bi aldiz pentsatu gabe barrura sartu zen. Lorategiko zuhaitz eta iturrien atzean ezkutatzen zen, nahiz eta inor ez egon inguruan. Atea itxita egongo zela uste zuenez, irekita zegoen leiho baterantz joan zen. Eskuak leiho ertzean bermatu zituen eta jauzi batez barrura sartu zen. Erorketa zalapartatsua izan zen eta ukalondoan pare bat urratu egin zituen. Inguru guztietara begiratu zuen inor ez zegoela ziurtatuz. Jangelan zegoen, argiak itzalirik zeuden eta zabalik zegoen leiho bakar hartatik sartzen zen argipean mahai eta aulki luze batzuk ikusi zituen. Ez zeukan ordea denbora asko, beraz tente jarri eta aterantz joan zen. Bi beira karratu zituen, lodi-lodiak. Atea itxita egongo zela uste zuen baina bere iragarpen guztien aurka atea irekita zegoen. Zeharkatu egin zuen eta bere atzean itxi isil-isilik. Eskilara batzuk zeuden gorantz joateko eta alboan burdinazko horma-irudi bat. Honako hau zioen:

1. *solairua: jangela eta idazkaritza*
2. *solairua: ikasgelak, logelak eta komunak*
3. *solairua: liburutegia eta zuzendariaren bulegoa*

Eskilarak igotzen joan zen hirugarren solairura iritsi arte. Hormaren kontra jarri zen eta burua atera zuen behatzeko. Korridore luze bat zeukan aurretik eta barrenean egurrezko ate eskas bat. Zuzendariaren bulegoa izango zela suposatu zuen eta harantz joan zen hanka puntetan, ahal zuen zarata gutxien ateraz. Atea bultzatu zuen. Kirrinka bat egin zuen eta ireki egin zen. Barruan mahai txukun bat zegoen, gainean

idazmakina bat zuelarik. Atzean leiho bat zegoen eta ezkerretara apal pila bat, paperez gainezka. Eskuinetara metalezko kaxoi batzuk zeuden. Bakoitzak etiketa bana zeukan letra batekin. Ireki egin zituen eta karpeta mordo bat zegoela ikusi zuen. Alfabetikoki ordenatutako txostenak ziren, ikasle bakoitzaren datuak jasotzen zituztenak. A jartzen zuen kaxoira joan zen Audreyrenaren bila. Han zegoen beste batzuenen artean. Audrey Middleton jartzen zuen. Poltsikotik aurreko egunean kendutako eskumuturrekoa atera zuen. J.R. Middleton jartzen zuen, beraz izen hura Audreyren aitarena zen. Izen benetan xelebrea zen, ingelesa edo. Karpeta zabaldu eta irakurtzen hasi zen.

*`Izena: Audrey*
*Abizena: Middleton*
*Jaioteguna: 1934ko Urriaren 15a*
*Umezurztegiko sartze-data: 1935ko Martxoaren 20* a
*Gurasoak: Geoge Fitzgerald Middleton eta Monique Marie Laurent´*

Gauza gehiago ere jartzen zituen baina gurasoen izenak irakurri zituenean aho bete hortz gelditu zen. Audrey, Moniquen alaba zen. Bere lagun Pierren arreba.

Karpeta zegoen lekuan utzi eta beherantz jaitsi zen. Joatea pentsatu zuen baina lehenagotik Audreyren logela arakatu nahi zuen. Ez zen zaila izan bilatzea, abizenaren arabera baitzeuden sailkatuta. Audrey, Anne Mondou delako batekin zegoen gelan. Atea ireki eta barrura sartu zen. Leiho txiki bat zegoen gelaren barrenean eta bi ohe alde banatan. Gau-mahai bat zegoen erdian hiru kaxoirekin. Lehena ireki zuen eta erloju zahar bat, pare bat belarritako eta garrantzirik gabeko dokumentu batzuk ikusi zituen Bigarrenean ordea,

eskutitzak ziruditen paper pila bat zegoen. Gain-gainean zegoena hartu zuen, kartazala ireki eta irakurtzen hasi zen:

*1940ko Maiatzaren 24a*

*Alaba maitea:*

*Zer moduz zaude? Ondo ziurrenez, mojak oso txintxoak dira zurekin ezta? Asko ikasten ari zara, gero eta hobeto idazten duzu. Ni hondartza zoragarri batean nago lagun askorekin eta laster Ingalaterrara eramango gaituzte. Ingalaterrara! Ez al da zoragarria? Esan nizun itzuliko nintzela, badakit denbora luzez itxaroten ari zarela, baina eduki pazientzia txiki. Gogoratzen al nauzu? Nola ez ba berdin-berdinak gara eta, biok ilegorriak.*

*Zure erantzunaren zain nago. Musu handi bat zure aitaren partetik: G.F. Middleton*

Jean-Paulek eskutitza kartazalaren barruan sartu zuen eta atzekaldea begiratu zuen nondik zetorren jakiteko. Dunkerke. Eskutitza Dunkerkeko ebakuazioa baino bi egun lehenago idatzia zegoen. Beste eskutitz guztiak begiratu zituen eta eskuartean zuena azkenengoa zela konturatu zen. Dena bertan behera utzi eta korrika alde egin zuen.

* * *

Hurrengo lau egunetan ez zen eserlekura azaldu eta bostgarrenean nora jo ez zekiela, Stephanierengana joan zen.

Aulkian eserita zegoen azkenengo aldiz ikusi zuen bezala. Jertse arrosa eskuartean zeukan eta melodia bat intonatzen ari zen.

– Kaixo –esan zuen Jean-Paulek arnasestuka, korrika joan baitzen.

– Epa, zer berri?

– Orain dela bost egun umezurztegian egon nintzen.

– A bai?

– Bai, isilean sartu nintzen eta eserlekuko neskari buruzko datu batzuk jaso nituen.

– Eta zer jartzen zuen?

– Hara, ez didazu sinetsiko baina egia da.

– Ea ba kontatu.

– Audrey, aulkiko neska, Moniquen alaba da eta Pierren arreba. Bere aita kanpotarra da, zeuk esan zenidan bezala. Monique Ludovicekin ezkondu zenean umea umezurztegian sartu zuen. Berak ez du gehiago ikusi, beraz, ez daki nor den. Aitak aldiz bisitak egin zizkion eta bere alabak sei urte bete arte hemen inguruan bizi izan zen. Baina Bigarren Mundu Gerran borrokatzera joan behar izan zuen. Azkenean Dunkerken gelditu zen eta ebakuazioa baina bi egun lehenago eskutitz bat idatzi zion bere alabari. Eskutitz hura izan zen azkena, horregaitik susposatzen dut bere aita hilda dagoela. Aurreko egun batean ea gizon ilergorri bat ikusi al nuen galdetu baitzidan. Eskutitzak zioenez bere aita ere ilegorria da, beraz egunero bere aitaren zain egoten da. Ez du galdu itxaropenik nahiz eta ziurrenik bere aita orain dela sei urte hil izan. Stephanie, aulkiko neskaren misterioa argitu dut!

– Oh, zuk esaten duzun guzti horrek zentzu handia dauka.

– Bai, baina zer egingo dut orain? Esan egin behar al diot? Eta zer gertatzen da Moniquekin? Bere alaba zein den jakin behar al du?

– Ziurrenez badaki.

– Nola? –galdetu zuen Jean-Paulek harrituta.

– Moniquek ere jakingo du bere alaba dela.

– Nola jakingo du ba!

– Zeuk esan duzu bere aita ere ilegorria zela, eta inor gehiago ez dut ezagutzen ilegorria denik, Moniquek Audrey bere alabatzat joko zuen. Gainera plazan elkartu zituzten soldaduak kamioietan gerrara eramateko. Horregatik Audreyk plazan itxaroten dio bere aitari.

– Baina orduan zergatik ez du umezurztegitik ateratzen eta berarekin bizitzera eramaten?

– Ludovicekin ahaztu al zara? Hark ez daki nor den bere emaztearen alaba eta hobe ez jakitea, badakizu nolakoa den.

–Eta Audreyri esan beharko al nioke nor den bere ama?

Bat-batean Stephaniren eskuetatik puntua egiteko makilak jauzi ziren lurrera. Mugimentu zakar batez eskua bularrera eraman zuen. Arnasa kostata hartzen zuen eta lurrerantz erori zen. Jean-Paul larrituta bere albora joan zen eta oihuka hasi zen laguntza eske.

– Fanny zer duzu? Fanny entzuten al didazu?

– Oh, Jean-Paul nire ordua iritsi da. Ni oso zaharra naiz. – esan zuen Stephaniek ahots fin eta ahul batekin.

– Baina ze txorakeria esaten ari zara?

– Agur Jean-Paul.

– Fany zer egin behar dut, esan egin behar al diot?

– Istorio hori guztia argitzeko gauza izan bazara, erabaki hau hartzeko ere gauza izan behar duzu.

– Baina zer esango diot?

– Egin duzun guztia eta dakizun guztia –amonari indarrak desagertzen ari zitzaizkion– Kostatu zaizu misterioa argitzea, denbora asko neraman zain, neska haren ondoan lehenengo aldiz eseri zinen arraltsalde hartatik.

– Zer diozu baina?! Ba al zenekien nondik zetorren Audrey?

– Esan nizun herri honetan gertatu izan diren eta gertatzen diren gauza guztiak dakizkidala.

– Eta zergaitik ez zenidan ezer esan?– pare bat malko potolo irten ziren mutikoaren begietatik.

– Horrela dibertigarriagoa izan da.

– Dibertigarria?

– Bai, gainera orain Audrey ez dago bakarrik.

Jean-Paulek Stephanieren azken irribarrea ikusi zuen eta bere alboan gelditu zen azkenengo hatsa arnastu zuen arte.

Jendea bere inguruan pilatuta zegoela jabetu zen orduan. Ezer esan gabe jende artetik pasa eta etxerantz abiatu zen. Arratsaldero bezala Audrey aulkian eserita zegoen.

– Berandu zatoz. – esan zuen.

Hitz hauek erakutsi zioten zer esan nahi zuten Stephanieren azken hitzak. Orain bere zain egoten zen Audrey eta ez aitaren zain, lagunak ziren. Audrey ez zen ezezagun bat, Jean-Paul zuen alboan.

# Mermelada gorriko opil beltza

Blanca Garcia Cengotitabengoa
Armentia ikastola
Gasteiz

*“Koloreak preso bizi dira egunez; hala ere, gauez, ihes egiten dute hegan eta lo dagoen jendearen ametsetan sartzen dira, ordu batzuetan besterik ez bada ere, libre bizitzeko…”*

*Sarraila (Bidean), Ken Zazpi*

Airean, hauts zirimola hegaka, uso *zurien* artean kamuflatu nahian, euren erritmo berean. Tartean, Manexen oihu bortitza, desesperatua… Jada infernurako bidexka hartuta duen oihartzun sakona, zirimola hautsiz, usoak ferekatuz… Haien adiskide bihurtuz?

Ez…

***..Rewind..***

***..Pause..***

Begiak zabaldu zituen mutikoak, ikustear zegoenaren beldur. Makina bat kolorek inguratzen zuten, inurri sukorrez osaturiko taldea balira: kolore bat, beste bat, eta beste bat…

infinituraino. Zertarako, bada, horrenbeste…? Amorruz beterik zuen bihotza, tristura tristeaz josia… Ez zituen koloreak gogoko, ez horixe. Gorroto zituelako susmoa ere bazuten izarrarteko hainbat izarrek. Ez guztiek, ordea. Bi herenek besterik ez…

Bigarrenekoz zabaldu zituen begiak gazteak, oraindik ere beldur apur baten menpe; pentagramadun pareta horiak (eta nazka keinua aurpegian islaturik), armairu urdin distiratsua (eta betazalen segundo eta erdiko ixketa, soa mahaira zuzendu aurretikoa), mahaitzat zuen egur xafla laranja, amak makina bat lore orlegirekin hornitutakoa (eta beste nazka keinu bat… Edo, beharbada, bi…)…

***..Play..***

Hego-haizea soineko iparrean nabaritzen zuela ohetik altxatu zen Manex, jarraian izarak kontu handiz tolestuz, edredoi leunpean gorderik ezkutuan mantentzeko asmoz. Bart zabalik utzitako leihoa bere hasierako posiziora eramaten ahalegindu zen gero, baina alferrik. Eguzkiak ez zuen amorerik emango, indartsuegia zen, eta hori bazekien mutikoak. Kristal molekula guztiak zeharkatuko zituzten haren izpi gazteek, nahitaez. Ez zegoen ezer egitekorik. Ezinezkoa zuen naturaren kontrako borroken garaile bilakatzea. Ezinezkoa. *"Pertsiana ziztrin batzuen jabe izango banintz…"* Baina aita bazen Manexen arazoaren jakitun. Eta, hain zuzen ere, horixe zen etxean pertsianak zein haren antzeko gailuak debekatzeko arrazoia.

*Levis* zaharkituak armairuari ostu eta azkar batean jantzi zituen, gerriko eta guzti, egunean zehar euren tokian irmo manten zitezen. Ispiluaren deiadarrei inolako arretarik jarri gabe, hirugarren kaxoian zeuden hamalau kamiseta beltzeta-

tik bat aukeratu eta hura ere jantzi egin zuen, ohi baino azkarrago. Behin oinak zapatilekin babestuta, (hain garrantzitsutzat zituen) eguzki-betaurrekoak ipini eta inor abisatu barik kalera irten zen Manex, tripan atzo afaldutako pizzaren arrastoak baino ez zituela. *Kaletxiki*-ko tabernara zuzendu zuen noranzkoa gero. Bertakoak bai opil goxoak! Atea zabaldu bezain pronto Miren agertu zitzaion mostradorearen bestaldean, *ding-dong*aren abisu zaratatsuari men eginez.

– Manex…!

Masailak gorritu zitzaizkion betaurrekodun gazteari.

– Egun on…

– Zer, gosariaren bila berriz ere? –itaundu zion neskak.

Baiezko keinu lotsati bat egin zuen Manexek, burua gora eta behera mugituz. Berez, ez zen mutiko lotsatia, baina gozogilearen aurrean halaxe jokatzen zuen, nahigabe, espazioko indarren batek portaera hura izatera bultzatuko balu bezala.

– Lasai, gaurkoan opilik bereziena gorde dut eta –horixe esatearekin batera ikatza baino beltzagoa zen opil bat eskaini zion Mirenek. – Betiko kafe hutsa prestatuko dizut?

– Eskerrik asko, Miren, baina kalean gosalduko dut gaur. Aho-zapirik har dezaket?

– Noski, beltzak hantxe daude, zigarro makinaren ondoan. Behar dituzun guztiak har itzazu, zuretzat tindatu ditut eta.

Manexek zeuden guztiak hartu zituen. Ez pentsa zekena zenik, alabaina. Bazekien berak erabili ezean hantxe geratu-

ko zirela, utzi bezala, hurrengo egunera arte. Eta horrek mutikoa tristatzen zuen, gauean imajinatzen baitzituen ahozapi ilunak dantzan, hotzez dardarka... Ez zitzaion bidezkoa iruditzen.

*Camel* letra distiratsuek erakarrita, pakete bat zigarro erosi zuen gero. Hura ordaindu eta beste bat oparitu zion makinak. Eskerronez, argazkiko gameluari konkorra ferekatu zion, pakete berria hark erregalatutakoa balitz. Dromedarioa zelako susmoa ere burutik pasa zitzaion hasiera batean, inoiz ez baitzen bi animalia horiek desberdintzeko gai izan.

– Ez, *Camel* "gamelu"tik dator eta! –argitu zion bere buruari.

Eta halaxe konpondu zitzaion zalantza, segundo pare labur batean baino ez.

***..Stop..***

***..Forward..***

***..Play..***

Eseri orduko, Manexek bazuen errauts mordo bat unaifraka estuetan itsatsirik, eurak ere bakarrik sentitzen zirelako mundu koloredun hartan. Belar artetik agertzen zitzaizkion egunero, gosaldu bitartean, guztiak bere bila. Guzti-guztiak. Seguruenik, salbuespenen bat ere egongo zen, bai, salbuespenak edonon daudelako: etxeko baineran murgildurik gomazko ahate txiki horiekin jolasean, sofan etzanda telebistaren morroi, ohe barruan goxo-goxo... Baina, orokorrean, errauts gris, triste haiek ez zuten salbuespenaren papera

gogoko. Protagonistak izatearekin egiten zuten gehienek amets, dorrean gordetako printzesak berreskuratu nahian dabiltzan printze ausartak lez.

Errautsen mugimendu motelek beste mundu batera garraiatu zuten hastapenean, minutuak iruditu zitzaizkion ordu erdi luzez. Bueltan, zigarroekin gogoratu eta bat erretzea erabaki zuen, lasaitasun osoz, inolako presarik gabe.

*"And I'm the only one who knows, so far, the way life looks like in the dark… I can't wait for you to come, again, black is black and white is grey today…"*

Zigarroa ahoan, goizak eta goizak ematen zituen abesten, kez beteriko koadro zuri-beltzak airean irudikatzen zituen bitartean. Airea baitzen, hain zuzen ere, Manexen paper partikularra, margolan berezi haien lekuko, ilargiarentzako museo. Kantak aurrera joan ahala, belardi hartan ezkutaturiko errauts kopurua bikoiztu egiten zen, eta hirukoiztu, eta laukoiztu… zigarroek sufritutako astindu txikien erritmoan, begiek ezin ikusi baina bihotzak senti zezakeen infinitu iluneraino.

Tripen eskaera desesperatuari erantzun nahian, azkenean sakelatik atera zuen opila Manexek, ondoren, emeki, Mirenek bildutako aluminio paperetik askatzeko, merezitako askatasunaz apur batean behintzat goza zezan. Izan ere, minutu batzuen buruan, biziarteko zigorra ezarriko zion mutikoaren sabel gosetuak, opiltxo izutua bere barnera eramanez, betirako kondenatuz. Paperean geratutako zimur guztiak jan ostean bolatxo bat eratu zuen harekin eta bueltak eta bueltak eman zizkion esfera perfektuaren itxura hartu zuen arte, geometrian ikasitakoen antzeko bat lortu zuen

arte. Bolatxoaren aerodinamikotasuna zerokoa zela konprobatu ostean, paperari hegazkin forma eman ez izateaz damutu egin zen Manex, baina jada ez zegoen atzera bueltatzekorik. Bolarekin konforme geratu beharra zuen...

Lehendabiziko hozkada eman zion. Lehendabizikoa eta azkena. *“Ez da posible…”* Hobeto zabaldu zituen begiak, aurrean zuena egia zela konprobatu nahian edo. Mermelada distiratsu batek betetzen zuen opila. Gorri koloreko mermeladak…! Mutikoaren bihotzak itzelezko saltoa eman zuen saltsa gozo hura ikusitakoan. Ezin zuen sinetsi. *“Nolatan…?”* Ez zekien. Erantzunek, bat-batean, lurralde ezezagun batera alde egin zutela iruditu zitzaion, hegazkin batek eraman izan balitu bezala.

Mirenen irudia etorri zitzaion burura hurrena. Hantxe imajinatzen zuen, betiko lez, kafeak prestatzen, bere ohiko irribarrea ahoan… Eta beste erantzun-gabeko galdera batek egin zion bisita orduan… *“Zergatik?”* Horixe zen, hain zuzen ere, galderen arteko galdera nagusia, zeinen erantzunak beste planeta baterainoko bidea hartuta zuela zirudien.

Dena den, opila eusten ari zen eskuak konturatu barik eginiko mugimendu oker baten ondorioz, marrubi koloreko mermelada tanta bat errautsen gainera jausi zen eta, ondoren, leunki, zelai osoan zehar sakabanatu, Manexen mundu iluna margo gorriz estali zen arte: errauts bakartiak izan ziren lehenak; gero, oinazez beteriko zuhaitzak; haien ostean, zerua betetzen zuten usoak… Eta, nola ez, mutikoaren txanda ere iritsi egin zen. Su atsegin bat sentitu zuen hasiera batean, garrek kilimak eragiten baitzizkioten. Kilima jostagarriak ziren, barre egiteko horietakoak… Baina irribarre triste hark ez zuen mutikoaren ezpainetan gehiegi iraun. Izan

ere, egoeraren larritasunaz ohartu bezain pronto, hamaika orban gorri gorputz osoan zehar sakabanatuta agertu zitzaizkion, inolako ordenarik mantendu gabe, bakoitzak nahi izan zuen tokian kokatuz, bere bizileku berria hantxe finkatuz.

*"…Eta zergatik niri…?"*

Desesperazioaren desesperazioz, gorputza igurzteari ekin zion Manexek. Inguruan zuen guztiarekin probatu zuen, baina ezerk ez zion funtzionatu, dena marrubi kolorez tindaturik baitzegoen. Egun hartan, eguzki betaurreko beltzek ez zioten babes gehiegirik eskaini, ez. Kolore madarikatua kristal iluna ere zeharkatzeko gai izan zen, unai-fraken bestaldera pasatzeko, mundu osoa konkistatzeko…

***..Rec..***

Airean, hauts zirimola hegaka, uso **gorrien** artean kamuflatu nahian, euren erritmo berean. Tartean, Manexen oihu bortitza, desesperatua… Jada infernurako bidexka hartuta duen oihartzun sakona, zirimola hautsiz, usoak ferekatuz… Haien adiskide bihurtuz?

Baliteke…

Eta, oihartzunak betirako iraungo zuen Manexek eratutako mundu berezi hartan, marrubi koloreko usoen memorian grabaturik.

# Gaueko izarra

Xabier Zubizarreta Arano
Txingudi institutua
Irun

Abuztuko gau lehor hartan udako belar idor haien artean etzanda zegoen hamar urteko mutiko txikia, bere amonaren baserriko soro nasaian. Gaueko ortzi beltza miresmenez ikuskatuz. Benetan liluratzen ninduen zeru hark, txiki-txikitatik. Batek daki zein arrazoirengatik, agian ezezaguna zenak baliteke nolabaiteko zirrara eragitea umetxo harengan.

Orain hemen nago, hogei urte geroago zeru hartara berriro begira. Baina oraingoan beste puntu batetik. Hamar urteko mutiko hark sekula imajinatu ezingo zuen orain dagoen lekuan egotea. Jada ez nengoen amonaren zelai idiliko haietatik oskarbia arakatzen eta inoiz gehiago egongo ere ez ama-lurraren beraren magaletik at aurkitzen bainintzen.

Baziren urte zenbait, denboraren kontua aspaldi galdua bainuen, nire etxea, auzoa, hiria, herria eta azkenik izar-bela utzi nituela. Bidaiaren hasierako eguna eta aurrekoak argi nituen nire gogoan, gauero, edo gaua deitzen genion denbora tartean, beti nerabiltzan gora eta behera eta nahiz eta hasieran egin behar nuena argi eduki, denboraren poderioz galde-

ra bat sortu zitzaidan nire barnean, galdera erantzuteko zaila eta aldi berean mingarria: Zergatik?

Hasiera batean, ama-lurrarekiko maitasunak itsuturik, inongo zalantzarik gabe onartu nuen lan zail bezain beharrezko hura: ortzi zabalean zehar bidaiatu gure hilzorian zegoen Lur zikindu eta suntsitua ordezkatuko zuen beste astroren baten bila.

Teknologiak asko aurreratu zuela zioten, ez zegoela arazorik eta dena kontrolpean zegoela. Momentu hartan jabetu izan banintz gure ustezko salbazioa ekarri behar zuen teknologia bera izan zela gure suntsidura ekarri zuena, ziurrenik beste era batera erantzungo nuen, aldiz, garai hartan itsututa nengoen, betebeharrak itsututa.

Leihatila hartatik begira nengoen, nire etxea izan zenetik distantzia imajina ezinetara. Nire eskumuturrera atxikita nuen aparailuaren pantailatxoan begiak iltzaturik:

*"Itzulera Gabeko Punturainoko denbora: 1h 31min 23seg"*

Ordu bete eta erdi eskas baino lehenago hartu beharko nuen erabakia. Ortzi-ontzi hark jada ez zuen izango erregai aski lurrera itzultzeko, are gehiago, eguzki sistemara ere ezingo zen itzuli denbora haren kabuan. Hala ere, bila nenbilen mundu berri hura topatuz gero transmisio bat bidali ahalko nien bere kokapena adieraziz lurtarrei. Errekurtsoei zegokienez, banuen ur, aire eta jaki aski espazio-ontzi erraldoi hartan berrogei bat urte bizirauteko. Hala ere, denbora hura igarotakoan, ni ezingo nintzen inoiz gehiago nire herrira itzuli. Benetan merezi izango ote zuen nire bizia sakrifikatzea gizadiaren bekatuak garbitzeko? Urte ugari izan nituen

horri buruz gogoeta egiteko, hala ere, erabakia horren zaila zen ezen oraindik ez nuen hartu.

Bakardadea zen nagusi kaiola hegalari hartan. Nirekin batera atera ziren kideen gogoek ez ziruditen agonia hura jasateko bezain indartsuak, denak galduak nituen lehen bi urteetan. Lehenik, gogo ahulenek kapsuletan ihes egin zuten Lurrarekiko hurbiltasuna aprobetxatuz etxera itzultzeko esperoan. Hurrenik, deprimituenek, beren buruaz beste egin zuten presio hura ezin pairaturik. Azkenik, ahaltsu eta indartsu sentitzen zirenak, euren handinahiak elikaturik, zoratu egin ziren eta elkarren artean suntsitu, batek daki ni haietako bat ez ote naizen. Horrez gain, distantzia luzeak zirela medio, Lurrarekin komunikazioak ezinezkoak izaterainokoak ziren.

*"Itzulera Gabeko Punturainoko denbora: 55min 34seg"*

Denbora aurrera zihoan, ordu bete barru nire patuaz gain izadi osoarena erabaki beharko nuke. Benetan merezi ote zuen gizarte hark, bere burua gabeziara eraman zuen gizarte hark, beste aukera bat? Zenbat planeta gehiago suntsitu beharko ote ziren gizakia jabetzeko bere biziraupena naturaren aurkakoa eta auto-suntsitzailea zela?

Nire buruan bi aukerak borrokan zebiltzan, ez jada nire bizitza soilagatik, hura huskeria bat baitzen, baizik eta izadi osoarenagatik. Batzuetan, errukia nagusitzen zen ene gogoan, besteetan, amorruak piztutako mendeku nahia.

*"Itzulera Gabeko Punturainoko denbora: 30min 44seg"*

Jada erabakia hartu beharra zegoen; gaitzez ezina zen. Behaketa-gela hartatik aldendu nintzen, ia amaiera gabeko korridore isil eta ilunak gurutzatu nituen kontrol-gela deitzen zioteneraino. Kontrol-aulki nagusian eseri nintzen, aparailuak doitu hartu behar nuen erabakia hartzeko prestatuz eta agian azkenekoz nire eskumuturrera begiratu:

*"Itzulera Gabeko Punturainoko denbora: 15min 17seg"*

Momentua iristeko zain geratu nintzen aulkian eratzanda. Gela hura miatu nuen, inkontzienteki, erantzuna letra eta zifraz gainezka zeuden pantaila haietan, pareta isil eta iluneta n eta azkenik, izkina batean nabari zen dunbuilo batean balego bezala, azken hartan gelditu ziren nire begiak.

Ontziko azken kidearen hilotza zen, ni neu hura hiltzera behartua izan nintzen. Denbora asko zen gertaera hartatik, jada, ahaztua nuela esan zitekeen ekintza hura, baina zer pentsatu ematen zidan oraindik. Nik, lagun, erkide, bidaiari hura hil nuen, eta zergatik? Nire bizitza ziurtatzeagatik, azken finean esan liteke gizarte bizitza ukatu nuela nire ongizate pertsonala ziurtatze hutsagatik. Milioika kilometrora nire bizilagun ohi izandako lurtarrek egiten zuten bezala. Norbanakoaren zoriontasuna bermatu, horretarako dena suntsitu behar bazen ere.

*" Itzulera Gabeko Punturainoko denbora: 3min 08seg"*

Amaitu zen, dena amaitu zen. Batek daki lurtarrekiko sortu nuen amorruagatik, nirekiko sentitzen nuen autogorrotoagatik edo nire kideekiko nuen saminagatik, baina, erabakia hartuta neukan. Zehaztasunez eta ausardiaz edo agian koldarkeria eta histuraz datuak sartzeari ekin nion

ordenagailu nagusian. Ortzi-ontzi hura ziztuan zihoan ostondo zabala urratuz, noraezean, itxaropenaren bila. Barrua hutsik, ia inor gabe.

*" Itzulera Gabeko Puntura iritsia, erabiltzailearen programa exekutatzen"*

Danba! Ortzi-ontzia desagertu zen ziztuan. Geroago, espazio-ontzia azkenekoz egondako lekuan izar berri bat agertu zen, izar distiratsu bat. Ontzi hark zeraman erregai exotikoaren ondorioz sortutakoa, itxaropenez betetako izar distiratsu eta handi bat. Erabakia hartuta zegoen, ekintza burututa.

* * *

*Lurra, berrogei urte geroago.*

Zeru kiskali, ilun eta kirasdun haren magalean. Garai bateko zelai berdeak, harri beltz ikaztuek ordezkatzen zituela. Ozeano urdin eta oparoak orain likido beltz orlegi batek ordezkatzen zituen. Garai batean herri handi eta jendetsuak izan zirenak orain hondakin mortu eta erreak ziren. Urte askotan zehar lur haietako jaun eta jabe sentitzen zen gizakiaren azken arrastoak lurpean zeuden, beraien suntsidura ekarri zuen teknologia beren menpe arnasteko, jateko, bizitzeko. Gizadiaren azken hatsa botata zegoen, pixkanaka-pixkanaka beraien suntsidura osoaren zain zeuden eta aldi berean, planetako azken izaki bizidunen planetaren berarenaz gain.

Amaigabeko lurpeko herri gainpopulatu haietako bateko kontrol-gune belun bezain goibelean argi txiki eta ezgauza

bat distiraka zebilen. Behargina ez zen berandutu panelera hurreratzen. Zenbait botoi sakatu ostean pantaila zikin eta herdoilduan irudiak azaltzen hasi ziren eta bozgorailu zikin eta puskatuetan hitzak nabaritzen.

Gabon lurtarrak, batek daki gogoratuko duzuen ni nor naizen, behar ere ez zenukete. Zuen handinahi horrek itsututa bizi zaretenok, halabeharrezkoari ihes gin nahian galduta zabiltzatenok, zer jakin beharko zenukete iraganari buruz, zuen buruan soilik orain hurbila, momentua, norbanakoa kabitzen dira eta. Imajina dezaket hau jaso duzuen momentuan nola egongo zareten, egon bazaudete noski. Zuen azken ahaleginetan norberak bere bizia egiteko, inguruko azken errekurtsoak ustiatzen beste egun bat gehiago nola hala bizitzeko zuen artean elkar suntsitzen duzuen bitartean inongo errukirik gabe. Nik nire erabakia hartu dut, ez du merezi bizitzea. Ez, ez du merezi, biziak zentzu logikorik ez badu. Ze bizi da inguruaren suntsiduran oinarritutako bizia? Zein bizi eboluzionatu beharrean inboluzionatu egiten duena? Eta are gehiago, ez dena gai gogoeta soil bat egiteko, honez guztiaz jabetzeko, galarazteko. Orain beranduegi da, niri dagokidanez, ezin dut ezer egin zuen gogoeta errazteko saiakera soil honetaz gain. Espero dut laguntzazkoa izan natzaizuela, hori baitzen nahi zenutena, nahiz eta bidea beste bat izan. Agur betirako.

Pantaila belztu egin zen eta ahotsa isildu. Beharginak, momentu batzuez pentsakor iraun ostean, teklak sakatzeari ekin zion berriz. Pantaila beltza piztu egin zen eta erdian, letra lodi gorriz hitz batzuk marraztu ziren:

*“Ezabatzen…Ezabatuta”*

# Morte nel carnavale

Unai Alduntzin Egizurain
Pasaia lizeoa
Pasaia

– *Scusi signorina*. – esan zion aurrean zeukan emakumeari, nolanahi ere, berehalakoan aldatu zuen bere italiera ingelesagatik emakume eder hura amerikarra iruditu baitzitzaion. –Barka iezadazu andereño, baina ezin duzu muga hau gainditu. Sentitzen dut.

– Bai baina nire gela da –esan zuen berak italieraz. Guido harritu egin zen emakumeak italieraz zeinen ongi hitz egiten zuen ikustean, Veneziarrek zuten doinu berezia erabiltzen zuen gainera. Hala ere, Guido ziur zegoen bere baieztapena zuzena zela, emakume hark amerikarra behar zuen izan.

– Sentitzen dut, baina ikerketa lan batean ari gara eta ezin izango zara sartu. Nahi baduzu nire kidearekin hitz egin dezakezu. Karlo! –dei egin zion.

– *Sì signor*e –esan zion Karlok ahoan irribarrea zuela. Ezin zuen gainditu topo egitean izandako ezustea, Guidok, egun osoan gorbatarekin ibiltzen zen pertsonak, Venezia osoko jantzirik xelebre eta dotoreena zeukan jantzirik soinean. Zeren Venezian inauteriak ziren.

Lehenengo aldia zen, aspaldiko partez, Guidok Veneziako inauteriak bertan igarotzen zituela, Veneziar askoren antzera turisten inbasio geldiezinetik ihes egiteko kanpoan pasatzen baitzituen egunak. Baina aurtengoan lana egitea egokitu zitzaion, hura bai zorte txarra!

– *Signorina* honek gela berea dela dio, egin iezaizkiozu behar diren galderak.

– Baina zer gertatu da ba nire gela ikertzen hasteko! –Esan zuen suminduta.

– *Signorina*, zure gelan gizon bat dago hilik, mesedez joan nire lankidearekin.

Gelara sartu zen berriro, gorroto zuen hura egitea. Noizbehinka gertatzen ziren halako hilketak Venezia bezalako hiri batean. Han zetzan, ordea, munduak ezagutu zuen idazlerik onenetako bat. Johann Freud besaulki batean zegoen jazarrita eskuak bi aldeetara erortzen zitzaizkiola. Lurrean kikara bat zegoen eroria, kafe orban bat zuena inguruan. Guidok gelara sartzean usain arraro bat antzeman zuen eta momentu hartan bere sudur gakodunarekin usain haren eratorria bilatzen ziharduen. Almendra mikatzen usaina zegoela jabetu zen, eta Agatha Chirstieren zale sutsua zenez berehala egin zuen lotura. Zianuroak usain hori bera zuen.

–*Agente*. Har ezazu lurrean dagoen orban horren lagin bat, gure idazlea zianuroz hil dutela uste baitut.

–Sí, *ispettore*.

Egin beharrekoak egin zituen eta kanpora atera zen aire pixka bat hartzera. Kanpoan, lehenago gelara sartzen saiatu zen emakumea zegoen polizia batekin hizketan. Guido gerturatzean, agentea joan egin zen.

– *Signorina*, nor zara eta zergatik dago zure gelan hilotz bat?

– Ni, Sophie Edmondson nauzu *dottore*. Hotel honetan nago ostatu hartuta, inauteriak direla eta, eta ez, ez dakit zergatik dagoen hilotz bat nire gelan.

– *Signorina*, ezagutzen al zenuen Johann Freud? –hau esaterakoan elurra baino zuriago jarri zitzaion aurpegia Edmondson andereñoari.

– Nire senar ohia zen.

– Sentitzen dut *signorina*.

– Ba nik ez. Kabroi hutsa zen. Barkatu hizkera, baina halakoxea zen. Min handia egin zidan eta ez nau batere harritzen hilik egotea.

– *Signorina*, galdera batzuk egin nahi nizkizuke eta kontuan hartu gela zurea izanik susmagarrien artean zaudela.

– Horretaz oso ongi jabetzen naiz *ispettore*. Baina argi esaten dizut nik ez nuela nere senar ohia hil.

– Hori ikusteke dago oraindik. –Guidok agian emakumea amerikarra zelako edo ez zion susmo onik ematen.

– Ez zaitez hiritik atera eta bihar bisitatxo bat egitera etorriko natzaizu.

Berandu zen baina eginbeharrak egin gabe zeuden. Gorpua eraman behar zuten, horretarako ordea, lehendabizi poliziaren presentziak erakarri zuen jendetza desagertzea komeni zela pentsatzen zuen Guidok.

Guido bere agenteetako batengana hurbildu eta hoteleko pertsonalari egindako galdeketen berri emateko eskatu zion.

–Hoteleko zuzendaria erabat jota dagoela ematen du, hotelari ekarriko dion ospe txarraz kezkatuta. Bera festa batean zegoen hilketa gertatutako momentuan eta ezin digula lagundu esan digu. Johann Freud ostegunean etorri zen Veneziara, inauterien hasieraz gozatzera eta gainera liburu sinatze bat izan behar zuen bihar San Paolo elizan, idatzi berri duen liburuaren gune garrantzitsuena baita. Besterik ezin izan dit argitu.

Atezainak, hoteleko bezeroa ez den inor ez dela sartu dio, baina ezin du ziurtatu ez baita ordu erdiz hotelean egon. Beraren ustez edozein sar zitekeen hotelean, ez ordea gelara, horretarako giltza behar baita.

Harreragileari galdegin diot ondoren, eta gela hartan sartzeko giltza Edmondson andereñoak, bere laguna den Antonio Liverti florentziarrak eta noski, hoteleko zerbitzariek dutela esan dit. Hauek giltza orokor bat erabiltzen dute, hoteleko gela guztiak ireki ditzakeena.

Etxeko beste zerbitzariek ez dute ezer gaineratu, ez dute ezer arrarorik entzun, sumatu ala ikusi.

– Mila esker, Luccio –bere agenterik efizienteena zen Luccio. Eskerrak eman eta kalera atera zen.

Gaua magikoa zen, ilargi betea magikoki islatzen zen Veneziako kanal estu eta bukaezinetan. Etxera joateko izugarrizko gogoa zeukan baina ezin zuen. Azken ordua jasangaitza izan zen. Ederki zegoen bera bere jantzi dotorearekin, gainera Venezian hain ezaguna zen maskara zeukan jantzirik eta festako inor ez zen konturatu norekin ari zen hizketan. Baina guzti hori atzean geratu zen, bere Maria maitea festan bakar bakarrik utzi zuen egoeraren ondorioz eta honezkero etxean egongo zen, ohean sartuta hain gogoko zuen irakurketa praktikatzen.

Gorpua eramaterako hirurak edo izango ziren eta Guido hain sentitzen zen nekatuta, ezen arrastaka ibiltzen hasia zen. Gauean ezin izan zuen lorik hartu ia.

* * *

Guido ohean sartzen zen momentu berean Veneziako beste toki batean gizon bat zebilen kale bakarti batean. Beltzez jantzita zihoan eta aurpegian irribarre zabal bat zuen marraztuta. Bat-batean algara ozen bat bota zuen eta ezer gertatu ez balitz bezala Veneziako itzaletan galdu zen.

* * *

Guido goizean goiz esnatu zen eta kafe bero bat hartu zuen lehenik, ideiak argitzeko. Kalera atera zen bueltatxo txiki bat ematera, bide batez hilketaren berria egunkarian irakurtzeko. *Il Matutino* erosi zuen eta lehenengo orrialdean hotelaren argazki handi bat zetorren. Azpian honelaxe zioen:

ZORIGAITZA INAUTERIETAN
Johann Freud idazlea hilik aurkitu dute Grassi hotelean. atzo gauerdiko hamabietan Grassi hotelean gertatu zen eta emazte ohia izan daitekeela uste dute.

HILDAKOA KANALETAKO URETAN
Laura Moretti hilik agertu zen atzo arratsean "Di Ca' Foscari" kanaleko uretan.
GOLKOKO ESTATUEI ARMAK SALD

Betiko moduan, artikulua bukatzerako erruduna aurkitu zutela zirudien. Nazka-nazka eginda zegoen egunkarietako berriekin. Etxera bueltatu eta dutxa hotz bat hartu ondoren lanera abiatu zen. Iristerakoan, informe mordoxka bat ikusi zituen bere mahai gainean baina horietaz ahantzi eta Grassi hotelera dei egin zuen

–*Buon giorno. Hotel Grassi, Pronto?*

–*Sono il ispettore Goldoni*. Edmundson andereñoarekin hitz egin nahiko nuke. Abisatuko al zenuke?

–Oraintxe bertan. –eta musika lasaigarri bat jarri zuen. Itxaroten zuen bitartean, Guido informeetako bat ikuskatzen hasi zen, eta barruan zekarrenak erabat zurtuta utzi zuen. Bertan Johann Freuden liburuetako baten pasarteak zeuden idatzita.

"[...] Eta Veneziako Grassi Hotelean gertatutako heriotzak erabat intrigatuta zeukan Alessandro. Zianuroa oso pozoi arriskutsa zela pentsatu zuen beti [...]"

"[...] Gainera emazte ohiaren gelan gertatu zen heriotza. Alibia izan arren erruduna izateko motibo asko ikusten zituen Alsessandrok. [...]"

–*Ciao, Chi è?*–erantzun zuen Edmondson andereñoak.

–*Signorina*, zurekin hitz egin nahiko nuke gaur goizean bertan.

–Ongi da. Hamaiketan ondo baderitzozu, hotelera etor zintezke.

–Ados *signorina*. *Arrivederci*.

Momentu hartan eskuartean zeukan informeak zioenak arreta guztia bereganatu zion, ia-ia ezin izan zuen Edmondson andereñoarekin hitz egin. Dena kointzidentzia hutsa zen. Baina benetan ba al zegoen kointzidentziarik ala aurrez pentsatutako zerbait zen?. Ikertu beharko zuen.

Bederatzi eta erdiak zirenez, *questura* ondoan zegoen tabernara joan zen gosaltzera. *Macchiato* bero bat hartu ostean vaporetto bat hartuz San Marco *piazzara* joan zen handik gertu baitzegoen Grassi hotela. Handik pasatzean plazako terrazetara begiratu zuen. Han macchiato bat hartzea ezinezkoa zitzaion, han kafe bat ordaintzeko ia-ia kreditu txartela atera behar baitzen.

Hotelera iristean, Edmondson andereñoa gelaz aldatu zutela ohartarazi zioten eta mandatari baten bitartez gelaraino lagundu zuten.

Atea jo zuen gelara iristean, nahiz eta ateak zirrikitu bat zeukan irekita. Edmondson andereñoaren ahots goxoa entzun zen.

–*Avanti*.

Gelara sartzean bihotza saltoka hasi zitzaion. Hain zegoen eder Sophie ezen Maria bera ere ahantzi egin zuen. Satinezko txabusina bat zeukan jantzirik soinean eta ez zirudien ordu gutxi batzuk bakarrik pasa zirenik bere senar ohia hil zenetik. Guido bero-bero zegoen, eta hasieran emakume hark eragindako inpresio txarra erabat baztertu zuen. Zertara joan zen gogoratzean, ordea, damutu zen buruan zeukan ideia lizunaz.

–*Signorina* Edmondson, galdera batzuk egin nahi nizkizuke.

–Ulertzen dut zein den zure egitekoa, baina argi esaten dizut ezin izan dudala Johann hil, hilketa gertatutako orduan ni festa batean bainengoen. Beraz pelikuletan esan ohi den legez alibi bat badut.

–Bai, hori badakit. Baina hiltzailea aurkitu aurretik zure senarra nolako pertsona zen jakitea asko gustatuko litzaidake.

–Argi esango dizut. Nire senarra bizitzan ezagutu dudan pertsonarik zitalena zen, nahiz eta bere liburuetan ez hala islatu. Jipoitu egiten ninduen eta gainera mehatxupean bizi nintzen, norbaiti kolpeena kontatzen banion hil egingo ninduela zioen.

–Eta nolatan eskuratu zenuen dibortzioa?

–Egiazki berak eskatu zuen. Nitaz nazkatuta zegoela zioen. Eta orduz gero ez dut prentsako argazkietan besterik ikusi.

–Irakurri al dituzu zuk bere liburuak?

–Bai ia denak, asko gustatzen zaizkit zoritxarrez. Bere idazteko modua eta bere nolakotasuna ez dira ez bat etortzen. Liburuetan erabiltzen duen hitz goxo bat bera ere ez zidan inoiz niri zuzendu.

–Eta gogoan al duzu “Hiltzaile Bat Hotelean” liburua?

–Bai noski– erantzun zuen. Guidori zertxobait toteldu zuela iruditu zitzaion hala ere.– Nire ustez argitaratu duen libururik ederrena da. Ez duzu inondik inora igartzen hiltzailea nor den.

–Bai, hori entzun dut. Barkatuko didazu baina ez dut liburua irakurri eta, nor da ba azkenean hiltzailea?

–Hoteleko gerentea, Vitorio Moretti. Eroetxe batetik atera zuten eta idazlea gorroto zuelako edo hiltzen duela uste dut, ez dut ondo oroitzen. Alabaina, *ispettore,* honek ba al du zerikusirik ikerketarekin?

–Jakina baietz, esan bezala nolakoa zen jakin nahi dut ezer pentsatzen hasi aurretik. Baina, ez du garrantzi handirik. Beste galderaren bat egin nahiko bazenu orain da momentua.

–Ez, ez dut ezer galdetu nahi. Eta hiltzailea aurkitzen baduzu eman iezazkiozu bi musu eta zoriondu ezazu nire izenean.

Emakume haren garraztasuna ikusirik altxa egin zen Guido. Altxatzean, ordea, ezin izan zion tentaldiari eutsi.

–Afaltzera joateko gonbitea onartuko duzu, ezta?

–Gustu handiz gainera. Bihar bertan nahi baduzu, ez dezagun ostera ere hilketaz hitz egin.

–*Buon giorno signorina! A domani*.

Atetik ateratzean estropezu egin zuen Guidok. Luccio, bere agentea, zutik jartzen saiatu zen eta eskua luzatu zion laguntza eskainiz.

–*Grazie ispettore*, berri garrantzitsu bat dakart zuretzat. Langile guztiak ikertu ditut eta ezetz asmatu nor egon den eroetxe batean.

–Hoteleko gerentea –esan zuen Guidok, liburuko gertakizunak kontuan hartuta.

–Ez ba. Atezaina. Baina esan digun izena ez da egiazkoa, atezaina...

–Atezaina –moztu zion Guidok, bere buruaz oso seguru oraingoan, eta hain ezaguna egiten zitzaion izena esan zuen –Vitorio Moretti da.

–Nola asmatu duzu Guido?– esan zion Lucciok. Hain zegoen harrituta ezen bere izenez dei egin baitzion.

–Berea delako guzti hau sortarazi duena. Bera da Johann Freud hil zuen pertsona. Atxilotu ezazue.

–Baina nola dakizu?

–Susmo hutsa da, baina tipo horrek izugarrizko harrikada du buruan. Bere izena erabili zuen liburua idazterakoan signore Freudek eta horrenbeste sinestu zuen bere hiltzaile

papera ezen errealitatea eta fikzioa ezberdindu ezin zituen. Berak egin zuen hilketa hau eta seguru nago proba dezente aurkituko dituzuela.

* * *

–Eman al zenizkion bi musuak Vitoriori? –esan zuen irribarrea ahoan zuela Sophiek.

–Bai eman nizkion. –eta barre egin zuten. Hala ere Guido ez zen gustura sentitzen, esan egin beharko zion azken finean.

–Baina Sophie, noiz arte jarraitu behar duzu engainu honekin?–berehala aldatu zitzaion aurpegia.

–Bai guztia dakit, badakit zuk antolatu zenuela dena, zuk hil zenuela Laura Moretti, eta zuk hil nahi zenuela zure senar ohia.

–Baina, nola jakin dezakezu?

–Ba bai. Erreza izango zen guztia ezta? Kasualitatez ikusiko zenuen Vitorioren izena nonahi idatzita, eta orduantxe prestatu zenuen dena. Berarekin hitz egin eta jabetu zinen berak ere emaztea hil nahi zuela, beraz bakoitzak alibi bana eskaini zenioten elkarri. Banekien ba nik nonbaiten irakurria nuela izen hori. Berria gogoan dut. Laura Moretti hilda agertu zen kanaletako uretan. Ez zitzaion garrantzi handirik eman.

–Polizia zikina. Ikusiko duzu!

Guidok bazekien atxilotu beharra zeukala, ezkutuko indar batek esaten zion: maitasunaren indarra, ordea, handiagoa izan zen, eta aurrean zeukan emakume lirainari bizitzan emandako muxurik goxo eta beroena eskaini zion.

# Loteria tokatu izan balitzaigu, orain Bahametan geunden

Josu Narbarte Hernandez
Txingudi institutua
Irun

Gaur goizean, esnatu eta hainbeste ideia etorri zaizkit burura, azkenean ez dudala bakar bat ere martxan jarri; eta gainera, izugarri nekatuta bukatu dut.

Hau da hau... zer da, baina, "hau"? Zalantzarik gabe, ez da deus onik, ene buru-argitasuna koska larrian jartzen baitu, baina ez nago ziur txarra ote denentz ere. Azken finean, munduak berdin-berdin jarraituko baitu aurrera, egiteko asmoa neukan gauza guzti horiek gabe. Ez ziren horren garrantzitsuak ere. Ala bai?

Dena dela, gaur zeozer berezirik egitea gustatuko zitzaidakeen.

Zergatik? Ez dakit, bada. Agian, gaur egun berezia delako, egun arrunt bat gehiago besterik ez izanagatik, hain xuxen ere. Edo, beharbada, zerbait berezia egin nuen azkeneko aldiaz jada oroitzen ere ez naizelako. Auskalo. Zaila izaten baita, noizbehinka, abisu gabe, barne-barnetik irteten zaizkigun nahi horiek ulertzea.

Eta nik zeozer berezia egin nahi nuen gaur. Vartsovia komunistara bizitzera joan zen osaba hark bezala. Edo egunero, goizeko zortzietan hondartzan igerian aritzen den Alex Gaxen lagunak bezala. Edozer gauza. Baina berandu xamar zen hondartzara joateko, eta ez dut, azkenean eta tamalez, beti izaten den bezala, deusik egin. Egin dudan gauza bakarra ohetik altxa eta, gosaltzen nuen bitartean, pentsatzea izan da. Ideiak mirakuluz zetozkidan gogora; bat pentsatu eta eskuak paper eta arkatz bila mugitzen hasi orduko, beste burutapen bat neukan, aurrekoa baino hobea. Eta goiza joan zait, pentsatu eta deus ez egitean arras lanpeturik.

Eguerdirako, egoera jasan ezinik ia, azkenean papera eta arkatza hartu eta honakoa idatzi dut, edozein ezezaguni eskutitza idazteko erabakia hartuta;

«Nestor de Rosas naiz».

Idatzi eta berehala damutu naiz. Paperaren zuritasuna zikindu besterik ez dudala egin iruditu zait. Baina, behin hasita, zail izaten da gelditzea, eta izkiriatzen jarraitu dut:

«Baina, egia esan, ez dakit nor naizen».

Kontraesana dela konturatu naiz, baina ezin izan dut inoiz idatzi dudan egiarik handiena dela pentsatzea saihetsi. Bi egia, hobeto esanda. Altuan esan dut. Gustatzen zait ze soinu duten hitz horiek.

Nanokeria bat da; badakit. Baina ene ezinegonak apur bat baretzeko balio izan zait, eta, egia esan, askoz lasaiago gelditu naiz, karga astun bat arindu balidate bezala. Idatzitakoari begira gelditu naiz apur batean, eta, bat batean, idazten jarraitzeko gogoa piztu zait. Banindoan, arkatza har-

turik, paperari erasotzera, baina zerbaitek geldiarazi nau: ezin nuen artean lorturikoaren berezitasuna, hain bakar egiten zuen soiltasuna, hondatu.

* * *

Bazkal ondoren, ohean etzan naiz berriro, arkatza eta paper pusketa berri bat eskuetan harturik. Ez zitzaidan, alabaina, kalera irten eta ikusten nuen lehen ezezagunari kontatzea merezi zuen berri onik gogoratzen, oraindik ere; denbora luzez egon naiz han, begirada galdurik, eta gogoa (are galduago) mila konturen inguruan hasi zait dantzan.

«Azterketa garaiko estresa. Egunero kroketaz bonbardeatzen nauen ama; sukaldatzen eztakidala pentsatzen dik, nonbait...», idatzi dut. «Alokairua (lehengo hilabetekoa ordaintzeko putak pasa nitian). Drogetan galdu zen neska berezi hura... non bukatuko ote zuen?».

Ia konturatu gabe ari nintzen idazten, eta, telefonoak jo duenean, ez dut aditu ere egin.

«Herriko gazteak presoen begirada hutsak darakuskiten kartelak itsasten. Haurrak jolasean, zuhaitzetako adarretatik zintzilik. Atso bizilaguna eguraldiaz kexu, azken hogei urteetan (alargundu eta semea motor-istripu batean galdu zuenez geroztik) kexu izan den bezala. Lanagatik lau sos ziztrin ordaintzen dizkidan nagusi putanera».

– Esan?

Azkenean telefonoa erantzun dudanean, Itziar Bandres entzun dut linearen bestaldean.

– Nestor.

Ez zen galdera; baieztatu egin du, besterik gabe: ni Nestor nintzen. Ikaragarri atsegin zait zein naturaltasunez darabilen bere euskaldun berriaren hizkera bitxi hori.

– Kaixo, Itziar.

– Ez zara klasera etorri.

Isiltasuna nagusitu da baieztapen berri honen ondoren, berak eten duen arte:

– Zergatik? –hau bai; hau galdoa zen.

–Esan dezagun... Esan dezagun ezin izango nukeela deusik egin, joan ezkero ere. Egun aski berezia dut gaur.

Ezin nuen ikusi, baina argi eta garbi irudikatu ahal izan dut bekain bat altxatuz (bat bakarrik, bestenaz zarpailegia litzatekeelako Itziarrentzat, eta orduan, eta fida zaitezke diotsudan honetaz, orduan akabo dena; Itziar Bandresek Itziar Bandres izateari utzi dion mundu batek ez baitu “mundu” izena merezi).

– Ondo al zaude?

– Ondo...? Bai. Lasai, ongi nago; ez kezkatu.

Hasperen egin du berak.

– Hmmm... Arraroa da. Egun batzuetan, denok jartzen gara ados elkarrekin deprimitzeko. Tira... eguraldiaren kontua izango da, edo zer dakit ba nik. Hala ere, hobe genuke hainbeste ez kexatzea; loteria tokatu izan balitzaigu, orain

Bahametan geunden. Eta bestela... Tira, azken finean denok gara brillorik gabeko izarrak.

Azken hori ez diot ulertu, baina nahiago izan dut ez galdetzea. Gaur Unibertsitatean gertaturiko kontu pare bat aipatu dit, eta, hizketaldi labur baten ondoren, moztu egin dut.

Kalera irten naiz. Deus egin gabe egote hori jasangaitza da.

* * *

Azken jende pixarrez husten zihoazen karriketan barna, oinek kairantz eraman naute, nik hala nahi izan gabe. Hori da oinen arazo handiena, sarri errebelde ateratzen zaizkiola bati, eta ea ze ausart hasiko den haiek kontrolatzeko ahaleginetan.

Kaia hutsik zen. Goizago iluntzen du jada; ene gainean, ortzia urrez margoturik, zirimiri arin bat udazkeneko azken eguzki-izpiekin nahasten zen, urrunean, Hendaia gibeleko labarretan, ortzadar ahula osatuz. Norbait entzun dut, ahopeka abeslari:

«Berriz itzuliko balitz, iragan denbora arrotza
Berdin kontsumi nezake bainila gozo artean
Itsaso urrun batean irudimena galdurik
Udaberriko eguzkitan arrosak pizten ikusiz...»

Ahots ezti hark bere golkorako kantatzen bazuen ere, haizeak urrunera zabaltzen zituen notak, inguruko isiltasuna melankoliaz betez. Ongi. Falta zitzaidan gauza bakarra, hura bezalako abesti depresiboa. Ingurura begiratu eta, ene harridurarako, Alex Gaxen ikusi dut euripean, auto baten kapot gainean eserita, ortzi-mugara begira.

Gaxen ezagutzen duenak ulertuko du han, horren bakarti, bere ohiko irri dotorea erantzirik ikusteak eragin didan inpresioa. Izua, ia. Ene buruari galdetu diot ea zer arraioa ariko ote zen kaian, abesti zahar hura ezpain artean.

Beregana hurbildu naiz. Kopeta estaltzen zioten kizkur harrotuetatik eta lepo inguruan zeraman palestinoaren muturretatik euri ttantta lodiak erortzen ziren, lurreko harri bustiaren aurka lehertuz.

– Ez nian hemen inor topatzerik pentsatuko, eguraldia bistan.

Bere beix koloreko katu begiek ile xerlo horailen artetik begiratu naute. Ironia txinparta bat ikustea iruditu zait haietan, erantzun ala ez erabakitzen zuen bitartean. Haren ondoan, kotxean bermatu naiz.

– Izan haiz Unibertsitatean gaur?

Ezetz egin diot buruaz.

– Ez... ni ere ez. Dena den, gaur eztuk Unibertsitatera juteko eguna.

Isilik geratu gara biok. Berak hortz artean zerabilen bere ditxosozko Habanera, oraindik ere. Itsasora begira jarri naiz. Koipez betetako ur kizkurrak kaian gelditzen ziren ontzi bakanak astintzen zituen. Arrain bat ikusi dut, segundo erdiz ur gainean jauzi egiten.

–Badakik? –esan du Gaxenek tarte baten ondoren, irri-erdi moduko batekin–. Haurra nintzenean, abesti hori abesten nian etxean inoiz entzun izan gabe; burura etortzen

zitzaidaan, baina. Egun batean, amari galdetu nioan abestiagatik. Badakik zer erantzun zidaan?: «Kantu hori? Hori hire aitatxik abesten zian, besoetan hinduela, umea hintzenean». Sinets dezakek?

Ironia izpiak, apur batez, gehiagora egin du. Gero, guztiz desagertu da; baina oraingo zintzotasun gardena are deserosoago egin zait, haren begietan zehar bere biluztasuna antzeman bainezakeen. Horrek izutu egin nau.

– Aitatxi nik urtebete besterik ez nuenean hil zuan; orain hogei ditiat. Nola oroit naiteke horrelako zerbaitez? –esan du Gaxenek.

Ez dit erantzuten jakin. Gaxenekin hitz egiten dudan bakoitzean, etengabe aztertzen nauelako sentsazio deserosoa dut, ene hitz eta keinu txikiena lupaz begiratzeko prest dagoela iruditzen zait.

– Euri duk. Goazimizia!

Baina ez du deus erantzun. Urrunera begira zegoen, begien aurrean irekitzen zitzaion zabaltasunari galdezka ariko balitzaio bezala. Sakon hartu dut arnasa; bai, aireak gaziaren usaina atxikitzen zuen oraindik. Zerua urdin gezurti batez tindatzen hasia zen, arratseko azken hodei gorriak Jaizkibel atzean ezkutatzen ziren heinean.

– Marina alde egitekoa duk –esan du, azkenean, Gaxenek. Begietara begiratu nau, mingarri zen tinkotasunez–. Bartzelonara zihoak. Behin betiko. Lana aurkitu omen dik.

Haren bisaian ironia-arrastoa azaldu da berriz. Gaxenek badakielako Marinak alde egiten badu, ez dela, ezta urrune-

tik ere, lan kontuengatik (Marinak lanpostu ona baitauka hemen ere, etorkizun handikoa gainera); ez. Gaxenek badaki ez dela horregatik. Zergatik zegoen, bestenaz, kaian, bakarrik? Ziur bainago arratsalde osoa... ez; egun osoa zeramala kotxe haren kapot gainean eserita. Baina ez da Marinaren gezurra horrenbesteraino mintzen duena, baizik bera, Alex Gaxen, dela haren martxaren arrazoia, bat eta bakarra, hain zuzen ere.

–Bihar alde egin behar dik; lehen, goizean esan zidak. Ala puta, ez zikean ni ongi izorratzeko era hoberik aurkituko! Eta hik ere ez duk oso egun onik, hire bisaia bistan... Bada, gaur bezalako egunetan ez genikek ohetik altxa ere egin behar, horra zer uste dudan. Hartara, ez zigutean muturrera halako kaka klaserik botako...

–Bai –erantzun dut, zergatik jakin gabe. – Izan ere, denok baikaituk distirarik gabeko izarrak...

Ez nuen espero berak bota didan begirada hotza zuzentzea.

–Ez –esan du, astiro–; ni ez.

Lasaipen eta tristura nahasmen batean alde egin dut handik, Gaxenekin izaniko elkarrizketa interesgarria izan den ala, ausaz, deprimitu egin nauen asmatu ezinik. Eta urruntzen nintzenean ere, bere ahotsa entzun dut kantuz:

«...Ezpainek gordetzen dute ezpain bustien gustua
Desiozko hotzikarak etsipenaren tamalez
Gauak zelatan dakusa kontzientzia biluzik

Badoaz ordu geldiak gogorapenen hegalez...»
Eta, bat batean, ez zait horren abesti itsusia iruditu

* * *

Amak ez du erremediorik. Etxeko atarian topatu dut, zilar paperetan bilduriko pakete bat zekarrela eskuetan, albondigaz beteta, ziur aski. Gurasoen etxetik bi ate haratago bizitze hau hain argi ez ikusten hasia naiz, dagoenekoz; amaren *hobby* berriak (eguna etxe batetik bestera karrika gurutzatzen ematea, edo ene egongelari *garbitasun inspekzioak* pasatzea, kasu) ez zaizkit izpirik ere atsegin.

Etxe barnera sartzea eskaini diot, baina berak ezetz esan du, etxea auskalo nola nuen eta berari, bederen, ez ziola inongo ilusiorik pizten bere egunak han bertan bukatzeak, bihotzekoak jota.

–Ene –bota du, zilar paperez estaliriko ontzia ene eskuetan jartzen zuen bitartean–. Ene... Egun osoa daramat eseri gabe. Hau da nekea, hau, eta ez zuek gazteok kexu duzuena eguna sofan botata emateko... Zure arreba ezgauza horretaz ari naiz, noski. Gustatuko litzaidake... kontuz!, horrek salda darama eta, etzazu bota, motel... Gustatuko litzaidake jakitea zer egingo zenuketen zuek ni gabe... Eta ez egin irri!

Egia da; farrez ari nintzen, ezin izan diot eutsi. Izan ere, amak bizitza osoa baitarama, berak dioen bezala, *exeri gabe*.

– Ai! –jarraitu du bere kexua–, badakit beti esan eta azkenean eztudala inoiz eitten, baina egun hauetako batean esnatu eta ez dut deus-deusik egingo. Ohean geldituko naiz. Ez pentsa etzaidanik gaur bertan eittea burutik pasa –gehitu du, poker aurpegia jarriz–, edo atzo, edo herenegun... Baina

leihotik beittu eta etzuela euririk ari ikusi dut. Geroago hasi da, ni izorratzeko-edo.

– Ezin duzu ohean gelditu, euririk ari ezpadu ere?

– Bistan dena, motel. Bestenaz, pena ematen baitit.

* * *

Etxean sartzean, kontent nintzen Baina, amaren lapikoa sukaldeko mahai gainean utzi ondoren (gaurkoan, babarrunak ziren), sofan eseri eta goizean idatziriko lehen papera hartu dudanean, egun osoko kezka guztien pisua ene gainera erori da bat batean. Antza, Gaxenekin, lehenbizi, eta amarekin, gero, izaniko elkarrizketek droga gogor baten moduan lokartu naute, egonezin guzti horiek anestesiatuz eta ene gogoa hitzen mundu hutsean zehar irristatzen utziz. Anestesiatu, bai; baina ez ordea desagerrarazi, orain, berriro bakarrik, berriro buruari bueltaka hastean ulertu dudan bezala. Zeren eta Gaxen kaian dagoen, eta Itziarrek Egiptoko haurrei gabon-jostailuak eramateko proiektuak antolatzen dituen eta Vartsovian exiliaturiko amaren anaiak bere mundua den mundu komunistaren erorketa ikusten duen bitartean, eta mila Gaxen, Itziar, Marina eta anonimok borrokan diharduten bitartean, ni etxeko sofan eserita bainago, inoiz iristen ez den eta zer den ere ongi ez dakidan aldaketaren baten zain. Eta bakardadea, gauza txarra gabe, arriskutsua ordea badela ulertu dut.

«Nestor de Rosas naiz. Baina, egia esan, ez dakit nor naizen».

Hain hitz xumeak, hainbeste gauza esateko. Hain galduta nagoela. Ez dakidan hainbeste gauza dagoela. Gogoa droge-

tan galdu zen neska berezi harengana joan zait. Ba ote zekien berak nor zen? Eta ba ote zekien nik bai, nik ongi nekiela nor zen? Ez, ez dut uste; elkar-ulerkortasun handia behar da horrelako ezer jakiteko. Nik ez nuen inoiz jakin, azken finean, zer zekien (eta zer ez zekien) berak. Baina zer arraioa jakin daiteke, edozer gauzaz, hamasei urte eskasekin? Deus guti, ezbairik gabe. Gauza gehiegi esateko hitz gutxiegi, bada.

Paper zatiari buelta eman eta honakoa idatzi dut:

«Nor naiz ni?».

Horrela, galdera bakarrean bildu ditut Gaxen, Marina, ama, drogetan galdu zen neska berezia, Vartsoviako osaba exiliatua, Itziar, eta kaia, eta euria, nekea, mila zauri ikusiezinen agonia, eta unibertsoa eta etorkizuna eta iragana, eta kantuak, irriak eta negarrak, eta goizargi konpartituak, eta bakarrik iraganiko ilunabarrak. Dena bildu dut galdera bakarrean, eta are gehiago.

Eta, inork entzun ez duen alferreko desesperazio-garrasi mutu horren ondoren, txiskeroa hartu eta erre egin dut paper pusketa. Gero, zigarro-kutxatila hartu eta bata bestearen atzetik erre ditut denak, bi ordu amaigabez, begirada galduaz leiho atzean euria nola erortzen zen ikusten nuen bitartean; halako apatia batek hartu nau, irriak eta negarrak noiz etorriko diren kontrola ezin dezakedala ulertu dudanean. Erretzeari utzi behar, beraz, ene bizitzan emozio pixarren bat sartu nahi badut.

Eta ez dakit eguna ona ala txarra izan den.

*Hondarribian, 1988ko azaroan*
*(02:43 am)*

*– Bakizu zer?*
*– Zer?*
*– Sekreto bat dakot.*
*– Konta!*
*– Bale, baie ez konta inori.*
*– Ez...*
*– Inori bez gero!*
*– Ezetz ba! Benga, kontaiztezu.*
***– Brillorik bako izarra naz.***

*ALAINE AGIRRE*

# POESIA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Denbora zer den

Alaine Agirre Garmendia
Arozena-Barrueta institutua
Bermeo

Eternitatearen txotxongilo
diren erlojuaren orratzek
ez badakite ere,
haizea da
denbora.
Berarekin akort daramatza
gogorapen sikuak,
hatsik bako hostoak,
narraz. Berarekin daramatza
udazkena,
iragan hotza.

Segundotik segundora
hilago
dauden orratzek ez dakiten arren,
ura da
denbora.
Itsasertzera dakartza olatuak
orain,
haragora daramatza
gero. Gaur ahantzi
eta bihar gogoratzen
ditudan gauza txikerren
legez.

Gaueko hotsak dira
denbora,
egunez mutu
eta gauez,
gauez oihuka darraiten
zarata txikiak,
ikusezinak.

Marradun eta loredun eta Micky Mouse-dun
galtzerdiak dira
denbora,
garbitu berritan samur, epel,
gauerako latz
bihurtu
eta oheko oihanean galtzen direnak.

Argazkiei kolorea lapurtzen dien
sitsa da
denbora,
ispiluaren ertz ilunenak gainez egin arte
ikaraz betetzen dituen
dardara,
hala nola pastelean esnegaina.

Gabonetako zuhaitzetako argien
katean
etsita itzaltzen den bonbilatxo bakartia da
denbora,
airearen hustasuna bustitzen duen
hautsa .

Batzuetan irmo,
besteetan bare
dantzatzen duten taupadak dira
denbora,
atzo zeureak
eta gaur inorenak
diren ene
bizi-izpiak.

Zure soineko gorria astintzen zuen
tangoa zen
denbora.

Atzo zeuretzako,
eta gaur inorentzako
diren musuak dira
denbora.

Azalean etzaten diren
zimurrak,
zilborraren hegoaldean jalgitzen den
muinoa,
bularrean gaindi doan
ibaia dira
denbora.

Egunetik egunera zaharrago,
higatuago
dagoen tontortxoa da
denbora,
gauetik gauera sakonago
arnasten duen gailurra.

Biolina baten
korda herdoilduak,
poltsikoan pilatutako
treneko tiketak,
zapata txiki batzuen
pausoak,
saltoak,
pausotxo eta saltotxoak
dira
denbora.

Baina, batez ere,
kajoiko izkinarik lotsatienetan
izkiriatzen ditudan
berbak,
iraungitze data duten
poemak,
bihurgune amaigabeetan galtzen diren
lerroak
dira
denbora.

**(uraren azal)**

Ur- azala bare zegoen, kieto. Iluntze haren edertasunak
[lotsatuko balu bezala.
Hain zegoen hain, hain geldi, hain mutu, hain; ezen apenas
[mugitzen zela
ontziaren fereken ondorioz, hilda balego bezala. Heriotza goxo
[hartan kulunkan,
pulunpan. Olatuen baltseoa isiluneetan mugatu bailitzan. Otzan.

Nare.

Urrunean, lainoek trazatutako azukrezko zirimoletan, kaioek
[dantzan zirauten,
hegaz, zeruan gailenduz. Bitartean, ontziak apal zerraien,
[itsasoari hazkura

ematen zion zirri aisit bat eginez. Aita Guriaren bela
[astiro-astiro astintzen zuen
haizeak, leunki, marruskadura fin hartan urtuz. Kapitainaren
[kamerinoan bertan,
lasaitasun isil guzti haren entropiaren erdian gatibatuta,
[intziri batek ihes egin
zuen ezpain umel batzuetatik, askatasunaren eskaileretan
[labainduz,
iraultzaren poesian lerratuz. Marinelak, maitearen
[ezpainetatik hasperen hura
ostu eta bere egin zuen, betikotasun eternoarentzat,
[kilikortasunaren zio
bakarrean bilakatuz.

Kadentzia perfektua.

Une horretantxe, intziri asaldari hark piztuta bezala, harrotu
[egin zen itsasoa,
bizitu. Olatuz eta bitsez eta zurrunbiloz (((eta garrasi
[mutuez))). Eta, intzirien
eta hasperenen eta hatsen *in crescendo* zoro-eroan, bi notek
[alde egin zuten
bost barrotedun kartzela melodiko hartatik. Ihes egin zuten,
[azukredun lainoez

haratago, itsasoen mende diren zeruez harantzago,
[errealitatearen hegiei
desafio eginez. Iluntzearen esklabu ziren itsasoak eta ortziak
[amodioa egiten
zuten utopian lotsagabeki erreakzionatuz, nor den solutu, nor
[den disolbatzaile
ahantzita. Bateratze kimiko perfektuegian.

Kadentzia ezin perfektuagoa, irrealitatearen mugetan taxutua.

**(trena)**
Etxekoak eroaten zituen
trenak
behinola: gerra garaietan.

Haragora;
inoiz ez ekartzeko
bueltan.

Igarotzen ziren hilabeteak,
urteak;
eta trena bueltatzen zen
(akaso).

Ekartzen zuen
kea,
ekartzen zuen
esperantza,
ekartzen zuen
behin ostu zizun bizitza.

Baina ez zen ahazten
kearen gristasunaz,
ez zen ahazten
esperantzaren pitzadurez,
ez zen ahazten
behin ostu zizun bizitzaren
arrakalez.

Zaurituta bueltatzen baitzen
guda hartatik
trena.
Gaur eroan zaitu
zu;
zeu eroan zaitu.
Eta gerran sentitu naiz:
egunero-egunero apur bat gehiago
itotzen
nauen errutina honegaz,
askotan nire melodia irensten
duen pentagramagaz,
zugandik hain urrun
naroan errekagaz.

Gerlan nago,
bizitza honen kontra.
Zugaitik.

**(nirea ez dena)**

Desberdin ikusten dut gaur
dena.
Zerbaitek
(edo norbaitek)
gauzen arima zaharkitua
errotik jalgi
eta mintz berri batez estali izan
balitu bezala. Gauzak.

Diferente. Aldatuta edo.

Usainean nabari dezaket.

Gaur haizea arinago
doa, dator.
Presa balu bezala.

Hostoak ere
presaka
doaz, datoz.
Haizeari jarraiki legez.

Desberdin dago dena
gaur.

Baina, bereziki,
usainean nabaritzen
dut.

Beharbada haizearen eta
hostoen
zirimolak barreiatzen duen lurrina
da. Edo, agian...

Agian
ni naiz.

Neu naiz
desberdin usaintzen
duena.

Neure baitatik arima
zaharkitua lapurtu,
eta usai berri hau jantzi
balidate bezala,
soineko arrotz hau.

Diferentea.

Nirea ez dena.

**(isilunea)**
ezer geratzen ez zaizunean.

ez hitz,
ez izpi,
ez bizi.

zure pentagrama galbiderantz doanean,
daroatenean.

zure ahairearen zio diren notak
koloregabetzean,
ezereztatzean.

ilargiari dirdira ostu
diotenean.
dizutenean.

ezer geratzen ez denean.

**isilunea**
besterik ez.

# Zure zain nago

Mikel Mancisidor Iztueta
Aita Larramendi ikastola
Andoain

Zure zain nago,
baina ez zara, oraindik, ohartu.

Barra alboko morroiari bukatu zaizkio
tabernaria harrituko duten
gezurrezko proezak,
bera heroi bihurtzen zeneko
istorioak,
eta beinholako ekintza imajinarioek
zentzua galdu dute jada.

Landare garaien atzean lotsati ezkutatzen den
pianojoleari,
aspaldi amaitu zaio errepertorioa,
eta bere inprobisazioaren
guduzelai antzuan dihardu,
tekla zuribeltzetan hatzak
paseatuz,
zebra bati dedikatutako melodia
asmatu nahian edo,
ingurukoen entretenimendu bila,
alfer-alferrik
(inork ez baitio jaramonik egiten).

Egunkarietako titularrei
erreparatu ondoren,
munduan gertatzen denaz jakiteko
mundua erreparatzea dela onena
ondorioztatu duen damak,
leihotik begira dihardu,
aurreko kale bakartietako arimak
imajinatuz, eta jendeak botatako egunkari orrien
hegaldi aztoratua,
zirimola eroetan mugitzen den hori,
interpretatuz,
mundua haserre baitago.
Hasperen egin du,
sakonki.

Ari da haizagailua,
bira eta bira,
buelta eta buelta,
erlojuko orratzen aurkako
lehian,
gure pazientzia lehenago
nork eramango.
Biek ala biek
lortu dute euren helburua,
eta epaileak
berdinketa
egon dela dio.
Erlojuaren orratzak gelditu egin dira inkonforme,
irabaztea baitzuten xede.

Bien bitartean,
kafe kondarretan zure izena
izkiriatzeko ahaleginetan nabil ni,
koilara berauen gainean dantzaraziz.
Baina begietatik irristaka
        suizidatzen diren
                ene malkoek
neka gabe ezabatzen dute
        hizki oro, amets oro,
                gupidagabe,
katiluaren hondoa
        tristuraz elikatzen den urmael ilun bilakatuz,
                neure itxaropena
                        ur sakon beltzetan
                                emeki…..
                                        …..itoz.

Eta zure aurpegiera liraina,
ezpain eskuzabalak,
begi sakon beltzak
oroitzen ditut,
zure izterrek nire gerri buelta
urkatu zutenekoa,
basapizti baten antzo
hitz goxoak eskatzen zenizkidanekoa,
bion gorputzek sinbiosi perfektuan
bat egin zutenekoa
datorkit gogora,
nola esan zenidan
maite ninduzula,
eta nola egin genizkion Ilargi argitan elkarri
sekula beteko ez genituen promesak,
itsasoa larre zabal bilakatuko genuela
eskutik helduta lauhazka mundutik desagertzeko,
bilduko genituela han-hemenka
erori zitzaizkigun ilusioak bata besteari oparitzeko,
eraikiko genuela etxe polit bat
bion ametsek bertan lo egiteko,
une batez bederen sinetsi bagenituen ere.
Zure zain nago,
baina ez zara, oraindik, ohartu.

*Grappa*

# Toxikoa, ia beltza

Iraitz Ugalde Pikabea
Koldo Mitxelena institutua
Errenteria

Postal bateko argazkian ageri zen
tintontzi hura dut gogoan.
Paperaren mende zirauen, lauso.
Paradoxa polita.
Paperezko tintontzia
paperaren erreinuan preso,
papera tinta tantaren bonbardaketaren beldur izan ordez.

Luzaz egoten nintzaion begira.
Harrituta.
Argazkilaririren batek nola izoztu ote zuen
tintontzi bete tinta,
tanta bat bera ere isuri gabe,
osorik,
osoegi,
hiru dimentsioak ostuz.

Hari begira ohartu naiz
tintatan igeri egitea
ez dela uretan igeri egitea bezain erraza.

Ilunagoa dela.

Inork ez baititu zure mugimenduak ikusten,
likido urdinetan urdintzen baitira.

Eta toxikoagoa.
Ezin baituzu murgildu
eta tragoa egin ustekabean.
Mozkortuko zaitu bestela,
pozoitu,
lotu,
kristalezko presondegian.

Tintazkoa zinela ohartu barik
ibili nintzen igerian zure itsasoan.

Hainbestetan irentsi ninduten
ustez gardenak ziren uhin haiek…
Hainbeste musu likido…

Eta *glup!*
Tragoa ustekabean.

Denborak ekarri nau, akaso,
hareatza zuriaren oinetara,
zugandik legoa askotara,
hurbilegi, hala ere.
Urdinegi.
Ia beltz.

Eta ezin,
behin eta berriro
itsaso garden-orlegitan igeri eginda ere,
zure tintaren laztanen arrasto urdinak
azaletik ezabatu.

Pozoiaz lotuta naukazu oraindik,
eta uretan jostatuta ere,
zure koloreak nauka besarkatuta.

Pentsatzen hasia naiz
ez ote naizen tintontziko sirena
itsasoko arraina baino gehiago.
Sirena pozoitua,
urdindua,
gatibua,
zurea.
Madarikatu dut, isilean,
behinola marraztu zintuen luma,
paperarekin izan zuen harreman euforikoa
eta instante hura bildu zuen kotoizko ohatzea.

Egarri naiz dastatu zintudanetik,
urak ez baitu tintak duen misterioa,
iluntasuna.
Ez baita hain ezkutua,
isila.
Adiktiboa.
Zu zaren bezalakoa.

Pasea zaitez ene azalean,
zikin nazazu,
marka ezazu ibilbidea.

Marraz nazazu.

*…Zer dira hitzok, baina, zure tintontziaren bihotzetik? Uhin*
*[biribilak baino ez,*
*errealitatera heltzean. Mundu surrealista batean bizi omen*
*[naiz. Zu bazara nire egia*
*(zaren bezain urdin, urdina bazara bederen), ez dut beste ezer*
*[behar,*
*arnasa hartzerik ere ez…*

# Nork asmatu zuen berotegi efektuaren ipuina?

Mikel Mancisidor Iztueta
Larramendi ikastola
Andoain

Lehen errainuek
amaigabeak diruditen etxeorratzek marraztutako
zerumuga, urratu dute
munduak beste buelta bat eman duenaren berriemaile.
Eta badirudi hiriak ere buelta bat emen duela,
eta bonboi kaxekin gertatzen den antzera
irekitzean guztia dagoela hankaz gora,
aldrebestuta,
anabasa kaotikoan.

Han-hemenka barreiatutako mozkortiek
euren bizitzaren zioa
azken zerbeza apurretan ari dira bilatzen,
zerbait aurkituko dutenaren esperantza
tragoz-trago
errealitatetik urrunago sentitzearekin batera
areagotzen den heinean.
Gero eta hordituago,
gero eta eroago,
eta gero eta
pertsonago.
Une
batez
bederen.

Euren edalontzietako itsasoan nabigatuz
ziur
sentitzen dira.
Mugagabetasunaren beldur baitira,
horma-ezak segurtasuna lapurtzen baitie,
eta askatasunak preso lotzen,
bizitzaren zirimola bihurri, krudel eta korapilatsuetarantz
bideratzen baititu,
iparra topatzen ez duen naufrago bilakatuz
euren arima.

Neguko haize hotza kexu da
etxeetako berogailuek
bere esentzia apurka-apurka
emeki, eta tiranoki aldi berean
lapurtzen dielako.
Eta inoiz baino haserreago egin du putz
kaleetako zigarro mutxikinak,
kleenex usatuak eta McDonall'seko hanburgesa zorroak
sekula ez bezala harrotuz,
eta bere hoztasunaz
jendearen bihotza inoiz ez bezala
izoztuz.
Bere izatearen aldarrikapena eginez.

Baina ez dio gauza bera
bere azken orduak aspaldi agurtu zuen bizitzaren
itzuleraren esperoan
itxaropen kondarrak non-nahi
bilatzeko alferrikako saiakera desesperatuan
hiriak hotzez akabatu duen
eskaleak.
Kaleetako zigarro mutxikin,
kleenx usatu eta McDonall'seko hanburgesa zorro artean.
Eta sua dario
bi txakur txikitan saltzen duen
prostitutaren pasioak,
bezeroaren intziriek sexu gosearen
melodia basati distortsionatua
bizilagunen etxeetara zabaltzen duen bitartean.

Bitartean, sexua zer den aspaldi ahaztu zuen atsoak
erratza eskuan sabaiari kolpeka dihardu,
dinbi-danba, dinbi-danba…
goiko bikoteari isiltzeko eskatuz,
ez baitiote sekula ezagutu ez zuen printze urdinarekin,
sekula egin gabeko ezkon-bidaiarekin
amesten uzten,
Sekula.

Estoldetan behera suizidatu dira
talentudun haurren bila
nekagabe aritzen den programako castingean
ezezkoa eman dioten
bost urteko neskatilaren malkoak,
beste askorenekin batera
kaleetako asfaltuen azpian
tristuraren isla den
urmael erraldoiak
ia gainezka egin arte.

Trenbideak lanbro artean ezkutatzen dira
eta iluntasunean galtzen trenak.
Horregatik murgildu da
sms batez lehen bezala maite ez duela eta
neska utzi duen gaztea
bertatik urrunduko duen bidaian.
Bere aurpegia burutik kendu ezin
eta aurrez aurre bi hitz esateko beldurrez,
kalean galdutako haur baten pare.

Eta egunen batean,
eguzkia etxe-orratzen gibelean ezkutatuko da,
eta goizaldera
ez du gehiago atera nahi izango,
akituta egongo baita goizero garaiago diren eraikinen aurka borrokatzeaz,
hiriari berotasun apur bat oparitzeko.
Alferrik izango baita barnea zero azpitik duten hiritarrentzat.

Nork asmatu zuen berotegi efektuaren ipuina?

*Zas*

# Urduritasuna ari du eta aterkia ahaztu zait

Oskia Zalakain Ederra
Ekialdea institutua
Gasteiz

Gogoan ditut
hautsezko kriseiluak,
argiz beteriko zorabioak.
Gogoan dut
kolore berdearen usaina,
supituki gainera erortzen zitzaidanean.
Gogoan dut
eguzkiaren errainuen zaporea,
hezetasunaren ukimen latza,
ur-anpuluen zilegizko dirdira.
Gaur goizean zure usaina ahaztu dut,
puntu eta aparte bat bihurtu naiz
armairu barrenera begiratu eta
ez zeundela konturatu naizenean.
Eta maite zaitudala ulertu dut,
nire Ezkerreko oineko behatz potoloari
begiratzen diodan bakoitzean
zutaz akordatzen naizelako.
Gogoan zaitut zu,
behinola hegotik heldu
eta orratza bihotzean sartu zenidan zu hori,
zure hatzetan oraindik ere
gupudagabekeriaren koloreak
iraunen dizu
norbaitek hegotik heldu
eta zu zintzilikatzen zaituen arte.

## POEMA DIRUDIEN POEMA

Lehenengo hegal bat eta ondoren bestea.
Amaitu gabeko poema baten antzera,
munduak biraka jarraitzen du
eguzkiaren inguruan.
Eta nik,
arnasa hartzen jarraitzen dut,
nahiz eta bizitzeko gogorik ez izan.
Eta agian,
eguzkiaren argia
ilusio bat baino ez da izanen,
subjetu bakoitzak,
esperientziaren ondorioz,
objetu biribil bati ezarritako atributoa.
Ez ote gara
perfekzioaren
ilusio
bat?
Itzaldu
zeure gainean erortzen ari den zaparrada,
amestu
zure irudia isladatzen duten ispiluekin,
eta geroz eta luzeago egiten diren esaldidekin.
Nirekin.

Urduritasuna ari du,
eta aterkia ahaztu zait.
Ireki gabeko leihotik sartzen den haizeak
Hozten dit barrena,
ireki gabeko leihoetatik
erortzen zaizkit
zuretzako idatzitako
hitzak
eta sentsazioak
eta begiradak.
Ireki gabeko leihoetatik ihes egiten didazu,
behin aldrebestuta zeuden maindire horietan
galtzen naizen bitartean,
zu gabe,
tindarik geratzen ez zaion
boligrafo triste baten antzera.

# Tximeleten jolasa

Amaia Agirre Gonzalez
Antigua-Luberri institutua
Donostia

Begi bi horiek
sakon
sarkorrak
nireekin noiz aurkituko esperoan
urduri,
ia batak bestea so egin duenean,
harantz zuk
honantz nik
aldenduz
desbideratuz.
Ahalegin batzuen ostean
lortu dugu bion begiradari eustea
indarrez
gogoz
batetik bestera doan hari ahula
amaigabea
ez haustearren.

Sumatzen ditut jada tximeletak nire barnean
hegoak astinduz;
aireratu nahian.

……………………

Disimuluz jarraitzen ditut
iluntasunaren itzalpean murgildurik
zure pausu jostariak
mugimendu dantzariak.
Zeharkako keinu
seinale gezurti
baten esperoan,
eguna argituko duen irribarre bihurri hori
noiz aurkituko
esperoan
zelatatzen zaitut
isilean
ezkutuan,
hainbeste itxarondako irria
eskaintzen didazularik
azkenean
Erabat estalgabetuz,
dirdira ttipi batekin
iluntasun osoa
sakon
sarkorra
koloreztatzen duzu;
hemen naukazula ohartuz.

Haizearekin bat
zurrunbilo txikiak sortuz
tximeletek kilimatxoak egiten dizkidate urdailean.

…………..

Hitz bakan baten zain.
Bakarra bada ere
biziki
desiratzen.
Marmeladazko ahots
gozo
eztia
niregana zuzenduko ote den
galdezka neure buruari
itxaropena galdu ezinik
lotsatuta
uzkurtuta.
Ausardia non den,
zuregana hurbiltzeko adorea non den
itaunduz neure buruari.
Tximeletek hegaldia azkartu heinean
haien koloreak nahasten doaz
lausotuz.

……………..

Begirada
Irribarrea
Hitza
Eta hala ere
Zure ezpain
erakargarri
limurtzaile horiek
nireekin noiz topatuko
itxaroten dut
pairugabe.
Ezin barruan gorde
sentitzen dudana,
muxu
heze
umel
batean
elkartu garenean
garagardo zapore
mingots
garratza
ahazturik,
zure besoetan
galduz
desagertuz
betiko.

Gorputz osoa zeharkatu dute tximeletek
oin puntetatik burmuineraino
segundo batean
errealitatera itzularaziz.

……..…..

Esnatu naiz.
Izara bakarti artean
nire logela ilun
goibel
tristean.
Itzalen lagun
irudimenak eskainitako
fantasiazko mundua
oroituz
etsipenez.
Ezin ahantzi
ezin ahaztu
bizitako amets zoragarria
zirraragarria,

…ametsa…

…………..

Gaizki itxitako pertsianen zirrikituetatik
ordea
eguzkia sumatzen da,
maitasun izpiak
igorriz
ikusten zaitudan bakoitzean.

Itxaropena bizirik mantenduz
tximeletek hegoak mugitzen dituzte

ZERUA ZEHARKATZEKO ADORE BILA!

# Iluntasunaren argitan iratzarri ezinik

Maddi Murua Sarriegi
Txindoki-Alkartasuna institutua
Beasain

Arraizearen beldur
sartaldetik ihesi datorren
laino multzo ilun batek
bereganatu du eguna
eta badator, mendian behera, arrapaladan
eromenaren morroi huts,
desira guztien hiltzaile aseezin,
itzala non-nahi barreiatuz,
suzko zirimola erraldoi bat bailitzan,
lauhazka.

Inoiz baino biziago eta bortitzago
dator gaurko gaua
eta bat-batean asaldatu ditu
gupidarik gabe
lo gozorako prest zeuden izaki isilak.
Izuaren menpe, aztoratuta, hor doaz guztiak
ihesi, aterpe eta ezkutaleku bila.

Eta bitartean hemen nabil ni alderrai, noraezean,
haizearen xurxula eztiaren bila agian
edota, beharbada, bidean atseden alditxo bat
hartu beharko nukeen
neure buruari galdezka.
Nork daki?, zeinek argitu bidezidor irristakorra?,
zeinek uxatu iraganaren zantzua?,
zeinek bihur eramangarri
etorkizunaren zalantza?

Atzera begira dagit bidea,
iraganari lotzen nauten lokarriak hautsi ezinik,
orainari atximurka, etorkizunaren beldur
erabaki ezinezko eromen honetan.

Aurrerantz narama bideak
itzulerarik gabeko leize ilunera, agian?
Gogoa negar malkotan blai,
irribarrea ahanzturaz izoztua,
keinuak adorerik ezaren ispilu,
zalantza beldurraren bidaide.

Istant bat, garrasi bat, mundu bat
eta erdi-erdian, ni neu
amildegiaren hutsune mugagabearen ziegan,
gatibu, haizearen ferekaren zain
itsasoari so, haizeak zakar
astintzen dituen hondar ale finez inguratuta.

Zeruertzean laino gorrien distirak ageri dira
han-hemenka barreiaturiko izar bakanekin lehian,
norgehiagoka antzuan,
nire sekretuen kukutegi eta
etsipen gordeen kontsolamendu
bihurtu nahiko balute bezala.
Baina iheslari soil bat baino ez naiz
inoiz amestutako paradisu idortzen hasian.

Lore zimelduek non-nahi oztopatzen didate
eguneroko urratsa, jada ilargirik ez da jausten
nire ametsen zergatiaz galdezka,
bakardadea baino ez
garrasi zaurgarri honetan.

Iragana ilargiaren magalean kulunkatu da,
oraina amets hutsaletan hegan doa
eta geroa ezintasunaren malko huts...,
baina amaitu da dena
badoa gau luzea etorri den bide beretik
ibai handiagoetara hiltzera doan
urmael arrunt bat bailitzan
nire nahigabeen langa irekiz.

Dagoeneko hasi dira lozorroan zeuden izaki isilak
lo gozotik iratzartzen, astiro,
izadiaren zentzumen oro ernearaziz.

Lore eta zuhaixka ñimiñoek altxatu dituzte euren buruak
txorien txorrotxio gozoz hautsitako isiltasunean
izarrei desafio eginez,
egunsentiari merezi duen diosala egiteko.

Eguzkiaren lehen argi printzek goxatu dituzte
sortaldearen kolore gorrixkaz zipriztindutako belar sailak
eta dantzari ekin diote, zein baino zein lerdenago,
maitale ezkutuen arreta eurenganatu nahirik.

Nire erraietan ere izugarrizko borroka nabari dut
itxaropena hasi da gailentzen
etsipenaren kate oro hautsi nahirik,
eta etsipenak eragindako noraeza
harkaitzen zokorik ilunenean geratu da, zelatan
berriro ere iluntasunaren aiduru.
Egunsentiaren bizipozak askatu nau
behin berriro ere gauaren ahutzetatik.

# Udazkenean jausten diren orbel sikatuak

Olaia Azpiroz Iragorri
Oiartzo Batxilergo ikastola
Errenteria

***Udazkenean jausten diren***
***orbel sikatuak,***
***zuhaitzaren adarrak***
***biluzik geratzen diren arte,***
***banan-banan lurreratuko direlako…***

*Begi ilunak dira ikusten.*
*Inpotentzia nabari,*
*eta orbel sikatu bi jausten dira,*
*masailetan pasealekua marraztuz.*

Gitarra zaharraren melodia umila
hirietako kaleetan zehar entzun;
eta doinuaren sortzaileak agure behartsuaren
hatz indargabeak direla kontenplatu.
Soilik disposizioz eskatzen du
duro pare bat, ahoratzeko zerbait eskuartean izatearren.

*…eta begi ilunetatik orbel sikatu bi jausi dira,*
*masailetan pasealekua marraztuz…*

Irratiari hitz egiteko baimena eman,
kayukoetan itsasoan ordu luzez eman dutenen erdiak,
bizia itsasoan nonbait utzi dutela,
eta besteek hitz egiteko ere indarrik ez dutela entzun.
Eta ostean, ”25.000 personas mueren de hambre cada día”
aditu.
Ikusi ere egin gabe, euren begiradek diotena jakina da,
bizitza aurrera ateratzearren…

*…eta beste bi orbel jausi dira…*

Aurpegia kosmetikoz lepo jartzen duen
emakumearen begirada galduan erreparatu.
Barnean duen ikararen isla nabari ez dadin,
irreala den aurpegia erakutsi nahian;
masailean duen esku-marrazkia borratzearren,
pintura gehiagorekin estaltzen duela ohartu.

*…eta beste behin,*
*bi orbel sikatu jausi dira,*
*jada eginak dauden bidezidorretatik…*

Bart gauean, auto istripuz,
gidariaren gehiegizko abiaduragatik
heriotzak eraman behar ez zuen bizia eraman,
eta senitartekoek arrazoiaren bila egiten dituzten ahaleginak ikusi.
Edo, medikuen hitz faltsuak entzun ostean,
heriotzak bizia ostu
eta besterik egin ezin zitekeela entzun.

*... Ia biluzik dagoen zuhaitzetik,*
*beste orbel bi jausi dira,*
*emeki...*

"Heriotzak banatzen gaituen arte" esaldiaren ostean,
beti maitatuko duela hitz eman eta,
elkarrez nekatzeko behar beste denbora igarotzean,
beste baten ohean berotasun gehiago sentitzen duela
aitortzen duenean,
ustezko bikotekidea, norbera denean...

*... Begi ilunak dira ikusten.*
*Inpotentzia nabari,*
*eta orbel sikatu bi jausten dira,*
*masailetan pasealekua marraztuz.*
*Zuhaitzaren ia adar guztiak*
*erabat biluztuz...*

*Udazkenean jausten diren*
*orbel sikatuak,*
*zuhaitzaren adarrak*
*biluzik geratzen diren arte,*
*banan-banan lurreratuko direlako…*

*Zuhaitza guztiz biluz ez dadin,*
*orbel sikatu gehiago jaus ez daitezen.*

# POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Pantailak itzali du

Amaia Iturriotz Etxaniz
Urretxu-Zumarraga ikastola
Urretxu

**1**

Joan zenean ekia
zu hurbildu zinen atzo
animoa ezin jaso
goibel jarriz aurpegia
azalduz gure egia
utzi zenidan bihotza
kanpoan zegoen hotza
bezain izoztuta ia
begirada jasoz gora
malkoak jausiz segidan
dena egotzi zenidan
ez omen goaz inora
ez omen zaude gustora
ta ni mindu egin nintzen
ez omen dizut eskaintzen
zuk nahi adina denbora.

**2**

Ordenagailuarekin
beti omen nagoenez
nazkatu zara aidanez
hala diozu behinepin
baina nahi bazenu jakin
orotan zauzkat presente
pentsatzen baitut dezente
zugan, zugatik, zurekin
eztabaidaren baten truk
itzaltzean gure sua
ordenagailu dontsua
bihurtu den gisan arrunt
berehala piztu ohi dut
baina nik normala denez
ordenagailu hori ez,
zu irazeki nahi zaitut.

**3**

Behin piztuta nire xerka
zatoz zu birus moduko
pantailari so orduko
zu topatzen zaitut eta;
zure argazkiz beteta
baitut eskritorioa
denen erremedioa
dut zuganako arreta
gero worden hasten naiz fin
gure artean nolanahi
"intro" ez dut sakatu nahi
transkribatzen bezain arin.
Hala egiten dizut zin
maitatuko zaitut ozen
inoiz izan ez gaitezen
bi paragrafo desberdin.

**4**

Bere kable eta guzi
sagua higitu ohi dut
ez zenuke jasango zuk
bere askatasun gutxi
baitidazu erakutsi
independentzi beharra
hargatik ez naiz senarra
ez eta zure nagusi
ta niretzat denez luxu
har zazu nire magala
nik pantailari bezala
arren emadazu musu
nahiz egiten duzun usu
egin gaur ere mesede
ta e-mailez bada ere
beste bat jasoko duzu.

**5**

Bai, arrazoi duzu, hala
ematen dut nik eguna
ordenagailu laguna
pare-parean dudala
nik zure lana bezala
onar zazu zuk nirea
biok dakigu, ordea,
denboran duen itzala
*klik* nire lanen karpetan
*klik* leihatila bat itxi
*klik* antibirusa jaitsi
*klik* google orrian bertan
*klik*-ak *klik*-ekin hizketan
baina sagutik harago
zu klikatzea nahiago
gau birtual horietan.

**6**

Beti pentsatzea zugan
ez bada asti eskaintza
alfer-alferrik zabiltza
gehiagoren zain tristuran
lanbidea baitut mugan
ta zuk badakizu hori,
ez, ordea, horren ongi
zenbat maitatzen zaitudan
dena botaz pikutara
eten nahi duzu kablea
ez naizen arren zalea
agian hobe da laga
usu ibiltzen baikara
itzaliz ta piztuz errez
elektrizitatea ez,
konexioa falta da.

# Malkoz josiriko bandera

Ugaitz Agirre Zapirain
Udarregi ikastetxea
Usurbil

Hildako herria bezala dago azti hippya
infinituaren atzapar bustien aurrean
diamante bat erori zaio
tinta beltzaren josturan iluna jaio
hiltzen doa ama
suaren alboan, Chanel usaina lurruntzen den txokoan
josten eta josten
itzaltzen, taupada biluzien erritmoan itzaltzen
ametsen lantegiko kandela
malkoz josirikoa da botere gordinak zapaltzen duen
harearen bandera.

Poetak hartu du bere makila magikoa,
hitzez marrazten ekaitza,
itzaltzen doan esperantza,
malko gorriz laztanduriko beldurraren arantza.
Proserpina geratu da infernuan,
Zeresek ez du zorionik ereiten munduan.

Iparraldeko mamuak, arima izoztuak, beraien zaldietan datoz
herriz herri, auzoz auzo ateaz joz
ama hiltzeko asmoz
bihotzaren orratzak gelditzeko gogoz.
“Hemen bizi da, hemen!”
“Hala da izanen.”
Berotasunaren harresia bota dute lehenbailehen
eta amaren bihotza hasi da itzaltzen
aspaldi sorturiko ametsa lokartzen
basoetan zuhaitzak biluzten
haizearen pentagrama isiltzen.

Azken hatsak ekarri du hotza
beren begiei darie sugarraren izotza
taupada gordinak, hamaika zauri amaigabez jantziak,
ezin daitezke goxa.
Hiltzen doaz basoak, hiltzen itsasoak.
Isiltzen doaz txoriak, isiltzen txoriak.
Biluzten amets goxoak, iragana marrazten zuten kantu
goxoak
gaueko otsoak, argitan lan egiten duten heriotzaren besoak,
arimen hiltzaileak
begi gorri gordindun soin beltzeko isiltasun mugagabeen
egileak.
Diruz bustirik, jakintsu itxuraz mozorroturik,
eroturik dauden langileak.
Amaren hiltzaileak,
Lurraren hiltzaileak,
Ama-lurraren hiltzaileak,
Herio usaina duten kale amaigabeak.
Espaloi gainean garagardo aparretan itotzen dabilen
gezurra,
loreen ordez jaiotzen den buru-hezurra.

Infinituan galdurik, ortziari begira
negar beltzez josirik printzesen margolaria
eta pauso hotzen konpainian, olatu musika gabeen
erromesaldian
aurrera doa harea gorriz margoturiko bidean
bihotza oroitzapen ilunez gainezka.
Zerua hodei beltzek estali, negu gorriak jantzi
bere begiak bezala.
Hil dezala tiro baten hozkadak
ez baititu bizi nahi hamarkadak
malko gorriz laztanduriko beldurraren arantzez
apainduriko maldan,
maitasunaren begiek argitzen ez duten pasealekuko aulkian.
Inoiz zapaldu gabeko bideetan hitzen magoa
entzun gabe haizearen pentagramako fereka,
ezin aurkiturik maiatza eta urtarrilaren arteko oreka,
laztandurik ama-lurraren malkoz josiriko bandera.

# Gereziaren zukua

Blanca Garcia Cengotitabengoa
Armentia ikastola
Gasteiz

Ezpata jaurti duzu
ibairik sakonenera,
zerurik garaienera,
atmosfera zeharkatuz,
espaziorik infinituenera.

–Komandante…
–Bai…?
–Nekatu egin naiz jada…

Malko batek bere aurpegiaren irudia
kolore ilunekin
marraztu du,
grisa, marroia, beltza, urdina…

–Komandante, nik…

Esperantzaz josiriko soarekin
begiratu dizu.
Begi batera lehenengo,
eta bestera gero.
Bien erantzuna, halere, berdina izan da:

–…ezin dut.

Burua biratu duzu,
egoera jasangaitz hartatik ihes egiteko;
saiatzeko behintzat.
Eguzkia ez da oraindik lotara joan
baina hotzikara batek zeharkatu egin zaitu,
goitik behera.
Hotz zarelako...(?)

Mutu geratu da.
Mutu geratu zara.
Mutu geratu zarete…

*Klinexa* eskaini diozu,
negar tantak
(goxo-goxo)
bertan gorde ditzan.
Hotz direlako…(?)

Gereziondopean eseri da,
azken lau minutuetan
*..bat, bi, hiru, lau..*
zuk esandakoaz jabetzen ahalegintzeko,
hitz gehiegi ahoskatu bazenitu lez.
Zure bi begi tristeek
inoiz baino min handiagoarekin
begiratu diote,
baina ez dira atzera egiteko gai izan,
ahots-korden bibrazioek kantatutakoari
men egitea erabaki dutelako.

–…ezin dut.

Eta, gerezi bat eraman duzu ahora.

Zuku gorria zure ezpainetan pausatu da;
azukreak kilimak eragin dizkizu;
goxo dago.

Malenkoniaz beterik
ikuskatu zaitu berak,
zuku gorria dastatzerik
izan ez duelako.
Malenkoniaz beterik
iragan hurbila, urruna, etorri zaizkio burura…

| | |
|---|---|
| Dantzan dabiltza<br>olatuak,<br>gora eta behera,<br>bere itsasontzi txikia haien erritmora mugiaraziz. | Oihuka ari zaio barkua,<br>igerian ez dakielako,<br>bakardadea zer den ikasi berri duelako… Oihuka..!<br>Isiltasunean murgildurik. |
| Esnatu da ilargia,<br>ilargi betea,<br>eta zuei begira jarri da,<br>izarrek urduritasunez<br>Komandantea agurtzen dutelarik. | *Adio! Adio!*<br>kantatzen diote,<br>bere bi oinak zeure lurraldetik<br>alde egiten duten bitartean<br>*Adio…!!* |

–Ene itsasontziak beti maite izango zaitu…
–…Ikusi arte, Komandante.
–Arren…
–Ikusi arte.

Eta,
iluntasunean barrena,
barkua galdu egin da,
Komandantearen azken hitzak
ur gainean geratu badira ere.

Urrunean,
arrain eta ur molekula artean,
objektu distiratsu bat begiztatu duzu:
elkar ezagutu zenutenean
berak erregalatutako
zilarrezko ezpata…

# Urrun izan arren

Izaro Zinkunegi Barandiaran
Azpeitiko ikastola-Ikasberri kooperatiba
Azpeitia

**1**

Behartuta egin behar
irri aldian-aldian
Malkoak ordea sarri
masail eta aurpegian
Lurreraino jausten dira
amaigabeko arian
Ez dute ezer balio
mina bakarrik agian
Zu zara malko horien
iturria emarian
Ihes egin baitzenuen
babeseranzko argian
Nire ondoan nahi zaitut
baina nago miserian
Itsasoa baita bi lur
ta bi bihotzen erdian.

**2**

Mutil langilea zinen
pazientziaz beteta
Denerako nabaria
adorea eta beta
Itxaropena zen ardatz
indar edo errezeta
Guztiak zuen zentzua
guztiak zuen oreka
Ez zirudien zorteak
hartuko zuenik buelta
Salatariak ordea
egin zuen berriketa
Etsaiak iritsi ziren
lagun artean gordeta
Herriagatik borrokan
aritzen zinela eta.

**3**

Ez zintuzten harrapatu
eta hobeto horrela
Akaso bizirik ere
ez baitzeundeke bestela
Nahiz eta egun hartatik
jakin urruti zaudela
Errealitatea da
sarritan horren krudela
Gogoan dut azken aldiz
zure alboan nintzela
Ikusitako guztia
pelikula bat bezela
Amets gaizto bakarra dut
txarrena egia dela
Elkar agurtu aurretik
ihes egin zenuela.

**4**

Egunez egun handitzen
doa barreneko harra
Eta horrekin batera
zu ikusteko beharra
Oroitzapenen mundua
bihurtu da aro zaharra
Sentitu nahi nuke berriz
gertutasun haren garra
Nahiz eta ez den itzali
dago ilundu xamarra
Baina guk hautsiko dugu
eurek jarritako marra
Distantziak ezkutatzen
du argi izpi bakarra:
Zugatik borrokatzeko
ematen didan indarra.

**5**

Sei hilabete pasatxo
elkarrengan amesteko
Gorputzak ordea urrun
muxu bana trukatzeko
Zaila egiten den arren
zuretzat askoz hobeto
Bestela itzalpe beltza
izango baitzen tarteko
“Maite zaitut” idatzia
zure gutun bakoitzeko
Beti gaude denboraren
gatibu eta menpeko
Baina laster da eguna
dena berreskuratzeko
Eta gutunez esana
begiradaz esateko.

# …bals

Blanca Garcia Cengotitabengoa
Armentia ikastola
Gasteiz

Gustura zenbatuko nizkizuke zeruko izarrak,
bitartean nire alboan egongo bazina, behintzat,
oxigeno molekula batek ere zeharkatzen ez gaituelarik,
isilik.
Gustura zenbatuko nizkizuke hodei zuriak,
eta beltzak,
eta ez hain beltzak,
eta goizaldeko arrosak,
eta arratseko morexkak…
baina ez, ordea, horiak,
ez baitago eguzkia baino horiagorik den ezer,
izarrez gain,
eta horiek dagoeneko zenbatu egin ditut.
Sistema osoa izarrez (eta horiak ez diren hodeiez) bete zait jada.

Gustura, izar bihurtu naiz.

Atsegin handiz emango nuke egunsentia
zure gorputzeko orbainak zenbatzen,
inolako presarik gabe,
banaka-banaka errezitatzen:
bat,
eta beste bat,
eta hiru,
eta lau,
…infinituraino.
Eta infinituan jarraituko nuke, bai,
enarek hegan egiteari uzten dioten arte,
lurra erabat geldirik geratu arte,
nire bihotzak eztanda ((danba!)) egiten duen arte.

Atsegin handiz, zure orbain bihurtu naiz.

Eta,
konturatu barik bada ere,
segundo pare baten tartean,
nire behatz eztitsuek zurera zuzenduko dute noranzkoa,
ezbaian ibiltzeko astirik izan gabe,
jarraian emeki zu ferekatzeko,
detektibe bilakatuta,
zure irudi osoa miatzeko,
leku berriak esploratzeko,
eta konkistatzeko,
eta nire bandera marraduna bertan kokatzeko.

Konturatu barik, zurea bihurtu naiz.

Dena dela ere,
Van Goghen eguzki-loreek marraztuko didaten irribarrearekin
maite zaitut esango dizu nire aho lotsagabeak,
leunki,
elur malutak zure ileen artean kamuflatu nahian dabiltzan
  bitartean,
euritako gris tristeek negar egiten dutelarik…
*"…maite zaitut…"*
*"…maite zaitut…"*
Eta, zure eskumako begitik
malko bat irristatzen sumatuko dut:
pasioaren negar tanta,
hamaika hitzen mozorro,
Eiffel dorretik
egunero
jausten
diren
horietakoa
.
.
.

Orduantxe,
Pariseko gauerdi koloretsuan,
ilargipean,
nire tinpanoaren mintzak
zure ahots korden erritmora dantzatuko du,
tangoaren pausoei jarraituz,
notak geure gidari bilakatuz:
*mi, sol, la…*

Tangoa baztertu
eta bals frantsesera pasatuko gara ostean,
Sena ibaiaren ertzetik,
(muga-mugatik),
hanka ahul dardaratsuak mugiaraziz,
poliki-poliki, mintzarekin batera dantzan jarriz,
azukre *Crêpe*-a gure ezpainen artean labaintzen den bitartean
…goxoa da benetan;
*Un, deux, trois, quatre…*

...bals.

# Itsasoaren magalean

Maialen Artetxe Maiztegi
Azkoitiko ikastola-Xabier Munibe
Azkoitia

**1**

Zuloa, hesi ta espetxea
gaua ta iluntasuna…
maleta itxi, taxia hartu
gerturatu da eguna.
Gizon zahar bat, nola zen… “aita”
izen hortaz ezaguna
nire lagunak ziren itzalei
sarritan nien entzuna:
“Bere alaba babestea da
aita baten gaitasuna”.
Hori al da zuk duzuna?
Ta zein da etorkizuna?
Haize leunak beste aldera
bideratuz erantzuna
bere azken keinu maitakorrak
egin zuen oihartzuna.

**2**

Eskaileretan pauso bat behera
ta amaren irudia
beldurrak zulo sakoneraino
zeharkatuaz zubia
biluzik itzal baten aurrean
dardarak ondo eutsia
hasteko ezker eskua altxaz
ta jarraian eskubia…
Bere ezpainen jolas faltsuan
malko baten isuria:
"Aitak galdu du bizia…"
Amak barnetik irria.
Beste pauso bat aurrera emanda
ahopetik garrasia
oroitzapena haize leunak
bere tokian jarria.

**3**

Itzal ilunak isladatuaz
hitz gordin haien mezua
arnas artean irrist eginda
irentsiz sentimendua
eguzkiaren azken izpia
bat batean itzaldua.
Amak irritan esan zidana
alkoholak engainatua
bihotz bazterrak hautsi zituen
taupadaren esklabua
bizitzan zehar galdua
iluna beltz bihurtua
bere bizia baztertu eta
alkohol artean saldua
hitz biluztuen sekretu hura
malko baten iltzatua.

**4**

Azken amaren oroitzapena
txirrista baten oinera
bizitza alkohol artean galduz
iritsiz nire parera:
“ Aita bizi da espetxe baten
hemendik gertu gainera”.
Azken hitz haiek esaterako
eroriz goitik behera
aldapa luze hark bideratuz
amaren malko artera…
Nik deiadar bat airera
ama ta_egia lurrera
patrikan amonaren dirua
ta goxokien papera,
nire malkoak engainatu nau
nire_amarekin batera.

**5**

Tren geltokian irribarre bat
galdurik malko artean
oroitzapenek laztandu naute
ta hesitu bihotzean.
Hiru bagoiko tren beltzarana
ikatzaren hauts artean
bere ahotik ke dariola
nire parera heltzean,
hamaika pausok eseri naute
aulki baten magalean…
Irri bat ezpain barnean
aurrera egin nahiean…
Itxaropena malko bihurtuz
itzal beltza ikustean
honela soilik oroitzen nuen
nire malko bakoitzean.

**6**

Malkoz bustita dauden ametsak
honen testigu direla
oroimenaren korapiloa
askatzen noan bezela
bizitzak aurrera jo nahi zuen
nik hankarik ez nuela
bakardadean hasperen batek
dena amaitu du honela…
Nire taupaden pausu herrena
ta begirada goibela.
Helmugatzat dut kartzela,
zer egingo dut bestela?
Nik lo aurreko amets jantziak
begietan nituela
taupada gazi argi gabea
ta bere malko ustela.

**7**

Trenaren leiho ertzetik nago
haur txiki bati begira
nire_haurtzaroko arantza denak
malko bilakatu dira
larritasunak menperatuta
bere ingurura begira
bakardadean murgildu eta
negar malkotan hasi da
aita ta ama hurbildu dira
azkar bere garrasira…
Besarkadaren desira…
Begi ertzeko distira…
Ama ta aitaren maitasuna
haur txikiaren irrira,
ta trena astiro abiatu da
geltokitik geltokira.

**8**

Begia malkoz gainezka duen
lehen pausoaren balantza,
argazki hura gurasoekin
oroitzapenen arratsa…
Islatu dute beren bilduman
irribarre aberatsa.
Haize bortitzak itzal artean
malko hontako zalantza…
Noiz, non ta nola emango nuen
nire lehenengo urratsa?
Egiaren esperantza…
Beti da gordin zein latza…
Negar ta odol tanta gorritan
lurretik bueltaka antza!
Belaunen kostra gorrietan dut
egi guztien arantza.

**9**

Haurtzaroaren goxotasuna
ezpain ondoan seinala
niri malko bat bilakatzen zait
irribarrearen bala.
Geldiuneak sentimendua
irentsi du berehala.
Aita semeak ikusi ditut
jolasean zebiltzala,
hosto guztiak haizearekin
jolasten duten bezala.
Iraganaren azala,
zulatuz marraztu ala…!
Horma gabeko teilatupean
bizi zen ume apala,
bizi guztiko lagun bakarra
agian nire itzala…!

**10**

Malkoen penaz entzuten nuen
haurtzaroko deiadarra
nire alboko aita semeek
itzali zuten su garra.
Haur txikiaren lehen hitzetan
bere aitaren negarra,
etorkizuna argiz janzteko
bizitzak zuen indarra…
Zimelduriko loreen gisan
irten zidan irrifarra…
Iragan ilun zakarra
maitatzen hasi beharra.
Astiro astiro isuri nuen
lehen hitzaren hondarra…
Eguzkipeko mina soilik zen
entzuten zidan bakarra.

**11**

Trenaren gurpil ilun artetik
olio tantak jario
nahi gabe baina begiratu dut,
negarrari ekin dio…
Oroitzapen bat malko artean
bihurtu zait arerio,
aita ikusi gabeko egunak
begira daude serio
ta ikusteko dudan denborak
aldi berean presio…
Nire nahiak zein desio?
Irriak mina dario.
Preso bere hitz mugatuetan
lehenak ez dit balio,
nire putzuak gainezka egin du
azken tanta hau medio.

**12**

Hitzen bitartez galdera denei
erantzun arren baietza
bihotzak zerbait sentitu zuen
pentsarazteko ezetza
begi aurrean ikusten nuen
beti etorkizun beltza
ezin saihestu hautaturiko
bidean pauso traketsa…
Esku artean ikusten nuen
hari bakarreko trentza,
hitzik gabeko defentsa
ematen zidan zer pentsa…
Trena gelditu ta zutitu da
nire bagoiko jendetza
ta lehortzeko ez dut indarrik
bustirik dudan ametsa.

**13**

Iraganeko malko txikiak
lehor eguzki izpian
nire taupaden azken soinua
islatu nahi dut irrian
bi hankak zutik mantendu nahian
espetxeko geltokian
askatasuna aurkitu nahirik
sentimendu biluzian
zuhaitz berdea bilakatu da
hosto lehorren habia,
mila malkoren erdian
nire hitzen isurian
azken arnasa astiro iltzatuz
nire taupaden hegian
begiradaren hitz goxoena
zulo beltzaren hesian.

**14**

Isil isilik dago eguna
gaua hurbildu ezkero
geltokiaren bankuan nago
loak laztandu ta gero
bere besotan maitemintzen nau
muxu goxoez gauero
eguzkiaren argi izpitan
ihesi doa goizero
nahiz ta ametsak magala eskaini
ilargian bero-bero.
Amets berbera astero,
gaur desberdina espero…
Ta bat-batean irudikatuz
aitaren itzala edo,
nire malkoa bilakatu da
irribarreen bezero.

**15**

Kilometroen joan etorria
sarri pausoak debeka.
Eguzkiaren argi izpitan
tira ta tira maleta,
amaigabeko bide beltzean
marra zuria tarteka.
Nire beldurra aurreratzeko
bide guztia beteta,
ohartu gabe iritsiko zait
zati gabeko pusketa.
Izerditan blai kopeta,
urtuz minaren pareta.
Bide gurutze bat du aurrean
ezin dut atzera buelta…
Hautaturiko marra zuriak
aitarena doaz eta.

**16**

Pausorik pauso bilakatu naiz
kezka guztien menpeko
eta biderik ez dut aurkitzen
hesi artean sartzeko.
Irudimena noraezean
galtzen zaidan bakoitzeko,
inoiz indarrik ez dut nabari
neure eskuz jasotzeko
ta geltokirik ez du aurkitzen
niri dena azaltzeko…
Etsi dut dagoeneko,
ez dut ezer egiteko…
Sentimenduak ez du indarrik
nire malko bat hiltzeko,
hesi arteko itzalak daude
ezbeharrak maitatzeko.

**17**

Pentsamenduak ez du ikusi
malkoaren ur jauzirik
inguruetan ez da geratu
miatu_ez dudan harririk.
Aitaren hitz bat aurkitu nahi dut
harripean estalirik
hesi arteko iluntasunen
zergatiari eutsirik…
Baina bihotza geldirik dago
taupadak ez du biderik…
Malkorik malko husturik
ta denbora geldituri k…
Etorkizuna iraganaren
bakardadean josirik,
gauak iluna magalean du
izarrei besarkaturik.

**18**

Ametsetatik ametsetara
ametsak amets amesten…
iraganaren irri faltsuan
hitz sekretua aurkitzen
oroitzapenak astiro astiro
bi begiekin biluzten,
amaigabeko isilunea
deiadar baten entzuten,
espetxearen bizimodua
lainorik laino ikusten…
Jipoirik ez zen agertzen
baina hasi naiz beldurtzen…!
Aitaren itzal artean hasiz
tanta gaziak isurtzen
nire hitz dena besarkatuaz
ta gorrotoaz maitatzen!

**19**

Lorik gabeko gau bakartiak
ta bi egun pasa dira
etorkizunak irriz narama
bizitzaren harresira
ezpain ertzeko argitasunak
mina mugaren hegira
amestu dudan espetxeari
neure begiez begira
ta bi gizonen itzal sendoa
nabari da urrutira.
Eguzki izpiez argira
egunsentiko distira.
Deiadar baten korapiloei
apurka apurka tira
etorkizuna esperantzari
eskutik heltzen hasi da.

**20**

Espetxerako pausu bakoitza
hutsa bilakatu bada
nire beldurrei aurre egiteko
unea heldu da jada
laztan gabeko besarkadaren
zain nengoen beharbada…
Bere atea korridorean
laugarren zenbakia da.
Nire bihotzak gaur aurkitu du
noizbait galdu zen taupada…
Hesipean begirada
ta aurrean aita hara
ohe hertzeko hitz bakartitan
esan didan dena hara:
“zure irria begiradatik
inoiz urrunduko al da?”

**21**

Aita ikusi ta berehala
ondoan jarri zait ama…
Iraganeko oroitzapenak
gainean utzi dit zama,
nire aitaren itzal gordinak
azaldu dit iragana
droga artean honantz bidea
apurka aurkitzen joana…
Orain bizitzak taupada baten
bere mugara darama
azken unean jasana
malko batek sakabana
aurkitu nauten azken hitzetan
astiro aitak esana:
“Zu behar zaitut baina nor zaren
ez jakin horrek narama.”

**22**

Eutsita zuen lehenengo hitza
azkenaren aurkakoa
begirada hark iltzatu duen
irribarreen malkoa,
bere arnasak ferekatu dit
aurpegia ta lepoa
ta mantso mantso hurbildu da lehen
zapaldu nauen pausoa
iraganaren oroitzapena
taupadei lotua da.
Treneko istorioa,
haurtzaroko presioa…
Nik ahopean dudan agurra
malko batean itoa
hots mutuaren oihu gordina
gogor askatzera noa.

**23**

Belaunikatuz ohe ertzean
irriaren negar hotsa…
Denbora preso giltzapetu da
geldik du orratz zorrotza.
Aitak begitan ikusi zuen
neskatxa gazte arrotza
bizi guztian ez zuen entzun
nire beldurren ahotsa…
Zuloz josia aurkitu nuen
etorkizunaren poltsa…
